

ASTELEHENEOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-05-16
ASTELEHENA
321. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Besteengandik bereiztea oso garrantzitsua dela uste dugu"



Koldo Aiestaran | Kukuxumusuko sortzailea | 7

Gazte zein heldu, euskarari bai, Loramendiren Euskerian Egunian | 12



'Buh txabal' antzezlaren aurkezpen arrakastatsua | 29



Varela eta Talavera nagusi Urkulun ospatutako krosean | 24



TXAPELDUNAK!

Mondrako neskak Gipuzkoako txapeldun; bigarren mailatik gero eta gertuago | 22

Mondrako neskak Azkoagainen; partidua bukatu bezain pronto garaipena ospatzen.

JULIO CALLEJA

Lapurretek gora egin badute ere, atea giltzaz itxita seguru daude herritarrak

Lapurreten gaia ahoz aho dabil azkenaldian; bereziki Aretxabale-tako Etxebarri industrialdean joan den astean izandako lapurreten ondorioz, eta etxebizitzetan ere gora egin dutelako. Hala ere, larritzeko arrazoirik ez dago; jakin, gainera, norbere esku ere bada-goela neurriak hartzea. | 2-3

Arrasaten lau autori erasoak Ertzaintzaren aparkalekuan

Tartean PSE-EEko hauteskunde furgonetari | 4



Edurne Brouard eta Maddalen Iriarte bihar Kulturateko Klaustroan, 19:00etan | 15

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

MUNDUMIRA



► Zoaz 32. orrialdera



Lasai egon daitezke herritarrak, baina atea giltzaz itxita

- Kezka piztu dute azkenaldian egon diren lapurretek
- Norberak asko egin dezake seguru egoteko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Azkenaldian, lapurreta asko egon diren alarma piztu da Debagoienean; Pazkotik hona, batez ere, zenbait lapurreta egon dira. Orain azkenekoa Aretxabaletako Etxebarri industrialdean izan zen, joan den martitzen goizaldean. Hiru lagun, 25, 36 eta 43 urtekoak, atxilotu zituen Ertzaintzak, hango enpresa baten indarra erabilita lapurtzea egotzita. Ertzainek txartarraz betetako hainbat zaku aurkitu zituzten, bai lantegian, bai atxilotuen furgoneta baten ere.

Baina bortxaz lapurtu duten kasu bat ere egon da azkenaldian, Bergarako kirol-denda baten, hain zuzen ere. Apirilaren 28an gertatu zen, Maria Jesus Baños Antigua dendaria bertan zegoela. 12:00ak aldera, kaputxadun gizonek bat sartu zen. Aiztoarekin mehatxu egin zion dendariari, eta "kutxa!" esan zion, gaztelaniaz. Hura hartu eta hanka egin zuen gaizkileak.

Diru aldetik, galera txikia izan zen -50 euro bakarrik zeuden kutxa- baina Maria Jesusi ez zaio sustoa ahaztu: "Oso-oso urduri nengo. Ondoko harategira joan nintzen, eta "lapurretan egin didate" esan nien". Gaizkilea "oso kurioso" zihoala gogoratzen du. "Hitz egiteko moduagatik, gaztea iruditu zitzaidan, eta hemengo hizkera zuen". Ertzaintzan salaketa ipini du, baina esan diote "zaila" izango dela hura harrapatzea. "Epaitegitik gutuna bidali didate, eta esan didate, gaizkilea ezin denez errekonozitu, seguruenik ezin izango dela ezer egin".

Gaizkile bera bi kasutan

Maria Jesusek diosku orain "bel-durra" duela, eta etxeko atea ere giltzaz ixten duela, lehen ez bezala. Eta bera ez da orain lapurren beldur handiagoa duen bakarra: lapurreta bolada izan da azkenaldian. Bergaran, apirilaren 18an,

automobil baten lapurtu zuten; hilaren 28an, esandako kasuaz gain, aparkaleku publikoan zeuden bi automobilen kristalak apurtu zituzten eta barruan miatu zuten; Arrasaten, hil hasieran, Forum dendan lapurtzen saiatu ziren -arropa batzuk harrapatu eta ospa egin zuen lagun batek; Udaltzaingoak harrapatu egin zuen -eta maiatzaren 4an, gauean, Lasagabaster Gazte moda dendan sartu eta arropa eta oinetako asko eraman zituzten, eta Musakolako gasolindegian ere ostu zuten. Eta orain azkeneko, Aretxabaletan.

Ertzaintzak dio lapurreta kasu horiek "ikertzen" dabilzala. Horietako bitan, gaizkilea pertsona bera den susmoa dutela esaten dute Ertzaintzako iturriek. Bakarrik Aretxabaletan atzeman zituzten egileak, eta txatarra lapurtzen ibili izan den jendea dela esan du Ertzaintzak.

Etxeetan lapurreta gehiago

Herritarrok uste arren lapurreta gehiago dabilzala, datuek ez dute hori esaten. Ertzaintzak dioenez, "estatistikoki, 2009 eta 2011 artean ez da handitu enpresetako, lokalak edo komertzioetako lapurreta kopurua".

Baina, adi: etxebizitzatan bai, lapurreta gehiago egon da. Horregatik, Ertzaintzak plan estrategiko bat diseinatu zuen. Lekuan lekuko udaltzaingoarekin elkarlanean eramatan da praktikara

plan estrategiko hori. Hala, autobide sarreran, Eskoriatzan, eta Olandixoko biribilgune berrian, Arrasaten, kontrolak egiten dituzte ertzainek, eta bateren bat sumagarrizat hartzen badute, atxilotu eta identifikatu egiten dute. Industrialdeetan gehiago zaintzen dute ertzainek, eta udaltzainek gauza bera egiten dute kalean.

Horrez gain, ohar batzuk ere egiten dituzte ertzainek eta udaltzainek; Bergarakoak, adibidez, www.bergara.net webgunean. Gehienak dira etxebizitzan lapurreta sartu ez daitezkeen: atea giltzaz ixtea da garrantzitsuena, lapurreta gehienak plastikozko txartel batekin zabaltzen dituztelako atea. Etxera zerbitzu tekniko bat baldin badator, ziurtagiria eskatu behar zaie langileei, eta agiria baieztatzen enpresara telefonoz deituta.

Nagusia, biktima handienak

Kalean ere gerta daitezke lapurreta. Poliziak dio pertsona nagusiak izaten direla askotan aukeratutako biktimak. Arrasateko udaltzain buru Jose Luis Etxebarriak honako oharra ematen ditu: "Ez da ezer sinatu behar, gezurrekin lortu nahi izaten dute-eta sinadura. Eta ez erakutsi Nortasun Agiria. Askok diru-zorro barruan eramatan dute, eta diru-zorroa harrapatzen dute lapurrek". Beste gomendio batzuk hauek dira: behar den dirua bakarrik eraman, eta hobe hainbat poltsikotan banatuta; ez



Udaltzainek gehiago zaintzen dituzte kaleak. Argazkian, Bergaran, euren ohiko zereginetan.

ESANAK

"Kalean sinadura eske badatoz, ez egin kasu eta ez sinatu ezer; gezurretan dabilza"

JOSE LUIS ETXEBARRIA | UDALTZAINA

"Urkulun, lapurretak boladatan izaten dira, eta azkenaldian egoera normaldu egin da"

MARTIN GARAI | UDALTZAINA

diru norbere gauzak bistatik galdu behar; poltsa aurrealdean gurutzatuta eraman behar da...

Nagusiei begira, beste neurri bat ere hartu dute udaltzainek: "Erretiratuek hileko lehenengo bi egunetan joaten dira banke-txera kobratzera, eta egun horietan zaintzen ibiltzen gara".

Merkatariendako beste ohar bat dauka Etxebarriak: "Gogoratu behar da alarma egunero begiratzeaz, ea estali egin duten jo ez dezan; eta, jakina, piztuta utzi".

Delitu gutxiago daude

Dena dela, ez du ematen larritzeko arrazoirik dagoenik. Aretxabaletako udaltzain buru Martin Garaik dioenez, Ertzaintzak eta udaltzainek neurri zorrotzagoak hartu zituztenetik, "txikitu egin da" horrelako delitu kopurua. Era berean, Urkulun, lapurreta gutxiago egoten dira. "Boladak izaten dira, eta momentuz egoera normaldu egin da", esaten digu.

Debagoienean, oro har, delitu gutxi egiten dira. Ertzaintzak iazko datuak eman ditu, udalerriz udalerriz zenbat arau-hauste penal egon ziren, eta bailarako arau-hauste gehien Elgetan izan ziren (1.000 biztanleko 60 eta 79 artean); gero, Bergaran eta Antzuolan (1.000 biztanleko 30 eta 38 artean); Arrasatek, Aretxabaletak eta Eskoriatzak zuten hirugarren tasa handiena (1.000 biztanleko 20 eta 29 artean), eta Oñatik, bailarako baxuena: 20 baino gutxiago 1.000 biztanleko.

DATUA

4

KOMERTZIO

Hilabetean, bailarako lau komertzioetan lapurtu dute: hiru denda eta gasolindegia bat. Horrez gain, autoetan eta enpresa baten.

29,36

DELITU 1.000 BIZTANLEKO

Hori da Gipuzkoak 2007an zuen delitu eta falta tasa. Hego Euskal Herriko bigarren txikiena zen, Nafarroaren (22,81) atzetik.

%71,4

ONDAREAREN AURKAKOAK

Iaz Ertzaintzak aztertutako EAEko delitu eta faltetatik %71,4 (15.462) ondarearen aurkakoak izan ziren.



GOIENA



Autoan lapurretan. | GOIENA/IRATI GOITIA



Lasagabaster Gazte denda hutsik, lapurrak ibili eta gero. | GOIENA/IRATI GOITIA

Lapurrei 'stop'-a emateko moduak

ESTATISTIKAK

Ertzaintzak dio, estatistikoki, 2009tik 2011ra artean ez dela lapurreta gehiago egon enpresetan, lokaletan edo komertzioetan; bai, ordea, etxebizitzetan.

NEURRIAK

Ertzaintzak, lekuan lekuko udaltzaingoarekin batera, plan estrategiko bat martxan jarri zuen. Horren barruan, errepidean kontrol sarriagoak egiten hasi zen, industrialdeetan patruilak gehiago zaintzen, eta udaltzaingoa herriko kaleak ere gehiago begiratzen.

ETXEAN

Etxean lapurrak sar ez daitezten, neurri garrantzitsuena hauxe da: atea beti giltzaz ixtea, "nahiz eta etxetik kanpo denbora txikia eman", esaten dute udaltzainek. Lapur gehienek plastikozko txartel batekin irekitzen dute atea, eta giltzari buelta emanez gero, hori galarazten zaie. Leihoak ere itxi egin behar dira, batez ere solairu baxu baten bizi bagara.

EZ SARTU

Etzera ailegatzekoan lapurrak sartu direla susmatzen bada, hobe da ez sartzea, oraindik barruan egon daitezkeelako, edo hatz-markak ez ezabatzeke. Deitu Ertzaintzari 112 telefonoan.



KALEAN

Poltsa aurrealdean gurutzatuta eramatea eta bakarrik gastatu behar dugun dirua eramatea gomendatzen da. Dirua poltsikoan eramanez gero, poltsiko baten baino gehiagotan banatzea aholkatzen dute.

EZ SINATU

Gure sinadura eska diezagukete kalean, esanez umezurtzen alde dela, eskolak eraikitzen laguntzeko dela... "Gezurak dira. Ez sinatu ezer", esaten dute udaltzainek. Horrez gain, ez da erakutsi behar nortasun agiria ezezagunek eskatzen badigute.



ALARMA

Komertzioetan, ziurtatu alarma piztuta dagoela eta ez dutela estali.



Mikel Uribetxeberria
Aretxabaletako Hautagaia

Debagoiena

Patxi Basauri
Elgetako Hautagaia

Maria Eugenia Arrizabalaga
AntzuolaKo Hautagaia

Aitor Urrutia
Eskoriatzako Hautagaia

Aintzane Oiarbide
Bergarako Hautagaia

Juan Karlos Garitano
Arrasateko Hautagaia

Lourdes Idoiaga
Oñaliko Hautagaia

ONENA EMATEKO GARAIA

Andoni Larrañaga | 'Publifestival' jaialdian saritua

"Etxean entzundakoa erabili dugu uraren erabileraz ohartarazten duen kanpainan"

Andoni Larrañaga antzuolarrak jaialdian irabazle irten den publizitate kanpainan hartu du parte

MIRIAN BITERI | ANTZUOLA

Gipuzkoako Adaki Komunikazio Agentziak Nazioarteko grafika onenaren saria jaso du Bartzelonan, *Publifestival* izeneko Publizitate Sozialeko Nazioarteko Jaialdian; Antzuolako Andoni Larrañaga diseinatzaile grafikoa agentzia horretako sortzailea da.

Zorionak. Garaiz gabiltza, zaindu ura lanagatik sarituak izan zarete...

Eskerririk asko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuarendako egindako kanpaina saritu dute. Uraren kontsumo arduratsuaren inguruan hiritargoa sentsibilizatzea zen kanpaina horren asmoa, eta tokiko komunikabideetan argitaratu zen. Nahi dutenek hemen ikus dezakete iragarkia: www.adaki.com/eu/komunikazioa/zaindu-ura.html.

Aditu entzutetsuek parte hartu dute epaimahaian. Esaterako, horren burua Carlos Rubio izan da, Publizitateko Komunikazio Agentzien Espainiako Elkarteko zuzendari nagusia. Kanpainaren



Andoni Larrañaga. | ADAKI

"Buber saria ere irabazi dugu 'Turismodebagoiena.com' gunearrekin"

mezua ere interesgarria dela nabarmendu dute. Negar malko bat erabili dugu; etxean niri askotan esan didate alferrikakoa dela gauzak gertatu ostean negar egitea. Mezu hori erabili dugu uraren erabileraz ohartarazteko.

Zehazki, zein izan da zure lana?

Proiektua kontrolatu eta koordinaatu dut; kanpaina sortzeko prozesuan ere lagundu dut. Diseinu Grafikoa ikasi dut eta horretan lan egitea gustuko dut.

Lehen aldia da horrelako lehiaketa batera aurkeztu zaretena?

Ez. Noizean behin deitzen digute publizitatearekin lotutako jaialdiak materiala bidaltzeko, baina lana dela-eta askotan ez diegu kasu askorik egiten. Kasu honetan, Diputazioak eskatutako materiala aurkeztu genuen; zorte apur batekin, irabazi egin dugu.

Aurretik ere beste hainbat sari lortu ditugu, egindako webguneen harira. Esaterako, urtero euskal webgunerik onenak saritzen dituen Buber saria irabazi dugu; hain justu, 2009ko edizioan, guk egindako *Turismodebagoiena.com* webgunearekin.

Zenbat urte daramatzazu publizitatearen alorrean?

Bartzelonan Massana eskolan ikasi ostean, hainbat komunikazio eta publizitate agentzian ibili nintzen han. 1999an, Antzuolara itzuli eta bakarkako ibilbideari ekin nion, eta Arrasaten enpresa berria sortu. 2004an, ostera, Adaki enpresa eratu nuen Tomas Mendizabal tolosarrearekin batera, eta ordutik hona hor nago.

MUko ikasle bik antolatuta Debagoieneko pintxo lehiaketa izango da ekainaren 11n Arrasaten

M.B. | ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateko Lidergo Ekintzaile eta Berritzaile graduiko ikasle Txomin Gallastegi eta Jon de Andres Debagoieneko pintxo lehiaketa antolatzen dabilta. Bailarako taberna guztiak daude gonbidatuta ekainaren 11n Arrasateko plazan egingo den ekitaldira.

Haien esanetan, gainerako eskualdeekin alderatuz pintxoaren alorrean "nahiko atzeratuta" dago bailara, eta ekimen horren bidez "berritzaileagoak" diren mokadutxoak ibarreko tabernetan sartzeko aukera "paregabea" dela diote. Ekainaren 11n sukal-

deak jartzeaz arduratuko dira antolatzaileak; tabernekin jarri beharko dute gainerakoa. Pintxo bakoitzaren kostu prezioa, gehienez, 2 euro izango dela azaldu dute; partaide bakoitzak aukeratu dituzten osagaiak.

Epaimahaikide entzutetsuak

Epaimahaian, besteak beste, Euskal Herriko pintxo lehiaketako irabazle Bixente Muñoz eta munduko pintxo lehiaketako txapeldun Pantxo Bedialaguneta daude. Parte hartu gure dutenek gallastegi.ego@gmail.com edo jondileinn@gmail.com -era idatz dezakete.

Arrasateko Ertzaintzaren aparkalekuan 4 auto kaltetu zituzten, tartean PSE-EEko furgoneta bat

Herrizaingo sailetik adierazi dutenez, kalteak zapatutik domekarako gauean egin zituzten, Arrasateko Ertzaintzaren barrutiko aparkalekuan. Kalteak eragin zizkioten Ertzaintzaren ibilgailu patruila bati, PSE-EEko hauteskunde furgonetari eta beste bi autori; hala, atzerako ispiluak apurtu eta atzeko eta aurreko kristalak apurtu zizkien aipatutako autoei. Auto barrutatik ez dute ezer ostu. Ertzaintzak ikerketa abiarazi du.

Bestetik, Herrizaingo saileko iturriek jakinarazitakoaren arabera, Bergaran, Aranzadi Ikastolako ondoko parkingean zegoen EAJko karpa bati kalteak eragin zizkioten, gau berean.

Bozkatu aralar

IREKI BIDEA EZKERRARI

BAKEARI EUSKARARI EUSKAL HERRIARI POLITIKARI

M-22 "Gogotsu" aurkeztu da Bildu Elgetan, Aretxabaletan eta Bergaran

Gipuzkoako Bilduk Foru Aldundia udalen zerbitzura ikusten du

A.BARRUSO/M.BIKUÑA | DEBAGOIENA

Egubakoitzean Debagoieneko hainbat herritan egin zituen Bilduk aurkezpen ekitaldiak. Bergaran, herri-programa eta zerrendakideak aurkezteko ekitaldia egin zuten herriko plazan. Musikaz lagunduta zerrendakideen ametsak irudikatzen zituen kolorezko hariz osatutako haril handi bat osatu zuten. Herri euskalduna, bizia, kultura aniztasuna, enplegua gartzeko politikak eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzea aldarrikatu zituzten, eta Jesus Elortza

alkategaiak herritar guzkiekin egindako herria garatu gura dela esan zuen.

"Gogotsu" aurkeztu zen Aretxabaletako Bildu herritarren artean. Ana Bolinaga alkategaia herritarrei zuzendu zitzaion: "Badakit berria naizela politika munduan, baina talde sendoa bildu gara, eta lanerako gogotsu gaude. Aretxabaletatik aretxabaletarren alde lan egingo dugu". Maiatzaren 22an "aldaketa" espero dutela ere esan zuen. Ekitaldia bukatzeko talde argazkia egin zuten.

Elgetan ere egin zuten Bildukoek aurkezpena. Hautagaiak programaren ardatz nagusiak azaldu zituzten eta txorizoa eta sagardoa eskaini zieten bertaratu ziren guztiei.

Bestetik, egubakoitzean hori ere, Bergaran batu ziren Bilduko Gipuzkoako hautagaiak. Iragarri zuten herrialdeko udalgintzaren garapenean etapa berria ari direla irekitzen eta Foru Aldundiak udal zerbitzuak bermatzeko eta eguneko beharrak asetzeko lan egingo dutela.



Bergarako Bildu herri-programa eta zerrendakideak aurkezten | ARRITXU BARRUSO



Gipuzkoako Bilduko hautagaiak. | A.T.



Aretxabaletako Bilduko kideak. | JULIO CALLEJA



Txorizo eta sagardoa ekitaldira joan ziren guztiei. | J.C.



Bergaran, debagoieneko alkategaiak eta Olano, Egibar eta Urkullu. | J.B.A.

M-22 EAJk "bake-itxaropena ekintzez" sendotu gura du

Egibarrek eta bailarako EAJren alkategaiek alderdiaren dokumentu berria aurkeztu zuten

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

EAJk *Bizikidetza bakean, gure udalerrietatik hasita* delako dokumentua aurkeztu zuen egubakoitzean Arrasaten. Ekitaldian egon ziren Gipuzku Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar eta bailarako EAJren alkategaiek. "Bake itxaropena ekintzez sendotu, lan hori gure arlora eta erantzukizun politikora ekarri. Oinarri etikoa eta demokratikoa indartu behar dugu, zutabe horren gainean bizikidetza eraikitzeko". Horiek dira aurkeztu zuten dokumentuaren oinarri nagusiak.

Aretxabaletan

Arrasateko ekitaldia bukatuta EAJko kideetako batzuk, Joseba Egibar buru zutela, Aretxabaletan egon ziren hango alkategai Mikel Uribeberriarekin ekitaldi politikoa egiteko.

Bergaran

Atzo egin zuen ekitaldia Bergaran. Bertan izan ziren Aintzane Oiarbide alkategaiekin eta gainerako bailarako alkategaiekin batera Iñigo Urkullu, Joseba Egibar eta Markel Olano.



Egibar ekitaldian, Arrasaten. | J.C.



Egibar eta Uribeberria. | J. CALLEJA



JOKIN BEREZIARTUA

M-22 Arrosa gorriak, hautesleei

Alderdi Sozialistak ere egubakoitzean egin zituen agerraldiak, Eskoriatzan eta Arrasaten. Eskoriatzan lehenik eta Arrasaten ondoren, Francisco Garcia Raya eta Blanca Roncal legebiltzarkideak, senatuko kide Jose Luis Vallés, Ainhoa Sagarrbai Aretxabaletako alkategaia eta Orioko zinegotzi Jesus Rodriguez Pousa egon ziren bi herrietako zerrendaburuekin. Eskoriatzako eta Arrasateko Jose Luis Cantero eta Aritz Arrieta alkategaiek arrosak banatu zituzten.

M-22 Ezenarro: 'Aralar zenbat eta sendoagoa, orduan eta atzeraezinagoa izango da bakea'

Aralarrek triptikoak banatu zituen zapatuan Arrasateko Seber Altuben

IRATI GOITIA | ARRASATE

Zapatu arratsaldean Arrasaten egin zuen hauteskunde kanpaina Aralarrek. Bertan izan ziren besteak beste, Aintzane Ezenarro, Rebera Ubera, Mikel Basabe eta bailarako ordezkariak.

Asko dago jokoan bozetan

Aintzane Ezenarrok adierazi zuen asko dagoela jokoan: "Batetik, PP eta PSE-EEren arteko binomio estrategiak erantzun abertzale bat behar du, Diputazioetan gobernu ez dezaten hartu. Bestetik, bizi dugun krisi ekonomiko honek ezkerreko erantzunak behar ditu eta hori da gure lehentasuna. Horretaz gain, jokoan dago etorkizuneko ezker abertzalea zein oinarritan eraikitzen den. Guk garbi daukagu ezker abertzaleak izan behar duela politikoki eraginkorra eta erantzunak eman behar dituela. Gainera, gaitasuna



Aralarreko ordezkariak Arrasateko Seber Altube plazan | IRATI GOITIA

na behar du ezberdinekin adostasunetara iristeko. Ez da nahikoa norberak proposamenak egitea, gero isolatzen badira." Gaineratu zuen: "Aralar zenbat eta sendoagoa izan, orduan eta atzeraezinagoa izango da bakea herri

honetan." Ildo beretik egin zituen adierazpenak Rebera Uberak: "Aralar da bermea gizarte justuagoa, bidezkoagoa eta ezker-tiarragoa eskuratzeko. Baita behin betiko bakea eta normaltasun politikoa lortzeko bidea ere."



Eguenean ELAren Bergarako egoitzan batu ziren kideak. | TXOMIN MADINA

Adin guztietako ELAko afiliatuek batera ospatu zuten mendeurrena

Lagun arteko giroan batu ziren, eta katurako tartea ere hartu zuten

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Ekitaldi polit eta hunkigarria egin zuten ELA sindikatuko lehengo eta oraingo afiliatuek eta lagunak joan den egun arratsaldean. ELAk Bergaran duen egoitzan batu ziren, sindikatu horren mendeurrena bailaran ere ospatzeko eta, bide batez, Bilbon egingo den ekitaldi nagusirako deia egiteko (ekainaren 11n, zapatua).

Oroitzapen asko izan zituzten ahotan, eta, une jakin baten, kantuar ere bai: *Hara nun diran eta Adio Euskal Herriari* abestu zituen kide batek, eta azkenean, denek bat egin zuten kantuan.

Klandestinitatea
Debagoieneko eta Debabarreneko afiliatuak izan ziren Bergaran batu zirenak. Plazentzia-tik zetorren Jose Mari Larrañaga: 1968an hasi zen ELAn, klandestinitatean, hortaz, eta hauxe esan zion Txomin Madina kazetariari: "Ezkutuan lan egiten genuen eta harreman txikia geneukan elkarrekin. Ilusio handia geneukan, baina oso zaila zen lan egitea. 1973an atxilotuta egon ginen 12 lagun, eta urte beteko kartzela zigorra eman ziguten, baina gero indultatu egin gintuzten".

Eta 1977an, ELA legezko egin

zuten: "Legezkatzeak askatasunez lan egitea ekarri zigun. Baina lana oso desberdina zen orduan, gaurkoaren aldean: orduan, sindikatua antolatua nahi genuen eta militante gehiago lortu, oso gutxi ginen-eta. Kuotak, erresistentzia-kutxa... oso garrantzitsuak ziren", gogoratzen du Larrañagak.

"ELA birsortu egin da"

Gaur egungo ELA "oso indartsu" ikusten du Jose Mari Larrañagak. "Birsortu egin da. Ilusioa, jakintza, gogoia... hori guztia dago", esaten du. Eta oraindik badago zer egina, bere esanetan: "Euskal Herrira ez dira lan-eskumen guztiak transferitu. Borroka-sindikalismo eredu jarraitu behar dugu", gaineratzen du.

Gauza bera deritzo Juan Ruperto Alberdi bergararrak: "Lehen eta orain ere, oso zaila da borrokatzea; grebak antolatzea, adibidez. Orain bide horretatik goaz".

Lehen kongresua, Eibarren

Solidaridad de Obreros Vascos izenarekin jaio zen gaur egun ELA dena. Haren estatutuak 1911ko ekainaren 11n sinatu zituzten. Sindikatu euskaldun eta independente izan nahi zuen. 1912an 1.000 afiliatu zituen eta 1918an Gipuzkoako eta Bizkaiko federazioak eratu ziren.

1929ko urrian STV lehenengo kongresua egin zuen Eibarren. Ordurako 6.200 afiliatu zituen Bizkaian eta 1.500 Gipuzkoan. Kongresu hartan dagoeneko hitz egiten hasi ziren urteko lanaldiaz, ordaindutako oporretaz, eta beste hainbat kontzeptuz, baina gerrak eta diktadurak langileen errebolta hasierak zapuztu zituen.

1976an Euban hasitako kongresuak Astelehena frontoian izan zuen jarraipena. Hantxe hartu zituen ELAk bere oinarriak, gaur egunera arte ailegatu direnak.

SMS bidez 1.448 lan-eskaintza bidali ditu Lanbidek

L.K. | ARRASATE

Martxoaren 14an telefono mugikorrek zerbitzua abian jarri zenez geroztik, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 1.448 lan-eskaintza bidali dizkie dagoeneko 9.645 enplegu-eskatzailerari, SMS bidez. Sistema berri horri esker, langabearekiko komunikazioa "zuzenagoa eta eraginkorragoa" da, azpimarratu du Enplegu sailburuorde Javier Ruizek.

Zerbitzu hori jasotzen dutenei, enplegu-eskaintza baterako edo gehiagorako baldintzak betetzen dituztela jakinarazten dio Lanbidek. SMSaren bitartez, eskaintza-erreferentzia eta okupazioaren izendapena ematen diote. Eskatzailea interesatuta badago, Lanbiderekin jartzen da harremanetan, eta xehetasun gehiago jasotzen ditu.

Lanpostuari ondoen egokitzen zaizkion hautagaien zerrenda bidaltzen dio Lanbidek lanpostua eskaintzen duen enpresari. Proposamen bakoitzera 6,6 hautagai aurkeztu ditu Lanbidek, batez beste.

Ausolanek urteko batzar orokorra egingo du zapatuan

Mondragon taldeko Ausolanek (Auzo Lagun kooperatiba elkarte) zapatuan, hilak 21, egingo du batzar orokorra, Garaia gunean. Beste gauza batzuen artean, 2010eko kontuak eta balantzea aztertuko ditu, soberakin garbiak banatuko ditu eta errektore kontseilua berrituko du.

ausolan
auzo lagun
AUZO LAGUN, KOOP.E. - ARRASATE

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

DATA: 2011ko maiatzak 21.
ORDUA: 10:30ean, lehen deialdia
11:00etan, bigarren deialdia.
TOKIA: Garaia Berrikuntza Gunearen Auditoriuma (Arrasate).

GAI - ZERRENDA

- 2010eko batzar orokorreko akta onartzeari buruzko txostena eta batzar honetako akta onartzeko bazkideak izendatzea.
- Memoriaren irakurketa eta onarpena.
 - 2010eko kudeaketari buruzko akordioa.
 - 2011ko kudeaketa planaren onarpena.
- 2010eko kontuen eta balantzearen azterketa.
- Soberakin garbien banaketa.
- Ekonomia araubideari buruzko estatutuen xedapenak.
 - 5.1. Sarrera kuotak eta ekarpena.
 - 5.2. Kapitalari egindako ordainketa.
 - 5.3. IPDk aplikatzeko irizpideak.
- Estatu eta erregelamendu aldaketak.
- Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
- Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
- Mondragon taldeari eta Erkop kooperatibari buruzko txostenak.
- Galderak eta eskariak

2011ko maiatzaren 9an

'Tulankide' aldizkariaren Interneteko bertsioa martxan dago, Mondragon taldearen berri emateko

USOA AGIRRE | ARRASATE

Maiatzean jarri da martxan *Tulankide* aldizkariaren bertsio digitala, www.tulankide.com, Mondragon taldea osatzen duten kooperatiben zerbitzurako. Aldizkariak berak duen filosofiari jarraituko dio: Mondragon taldeko kooperatiben berri eman eta kooperatibismoaren balioak bultzatu. Interneteko ataria izanik, albistegi jarraitua izango du eta kooperatiben inguruko azken albisteen berri emango du.

Albistegiaren gain, beste zenbait eduki ere biltzen ditu: iritziak, kolaborazioak, kooperatiben aur-

kibidea, agenda, aldizkariaren pdf-ak, bideoak, argazkiak...

Enpresen aurkibidea

Tulankide.com-ek Mondragon taldeko kooperatiba guztiei eskaini nahi die beraien berriak zabalteko aukera, hasi handienetik eta txikieneraino. Hori kontuan izanda, taldeko kooperatiba guztiak aurkibidea biltzen du web-guneak. Hala, kooperatiba bakoitzaren gaineko albisteak aurkibide edo direktorio horretan biltzen joango dira, kooperatiba bakoitzaren albistegitxo osatuz.

'Tulankide', sarean. | GOIENA

Twitter, Flickr eta Youtube

Tulankide.com-en argitaratzen diren albisteak Twitter bidez ere zabalduko dira (twitter.com/tulankide). Posta elektronikoz eta RSSz ere jaso daitezke albisteak.

Koldo Aiestaran | Kukuxumusuko sortzaileetako bat

"Estilo propioa izatea ezinbestekoa da jendearen arreta lortzeko"

- ▶ 1989an sortu zuten Kukuxumusu hiru lagunek; gaur egun mundu osoan saltzen dute
- ▶ Ulmaren 50. urteurrenaren harira etorri ziren hitzaldia egitera Kukuxumusukoak

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Koldo Aiestaran Kukuxumusuko sortzaileetako bat eta egun enpresako zuzendari nagusi dena eta Pedro Balboa Komunikazio arduraduna Ulman izan ziren hitzaldia egiten eguaztenean. 1989an Iruñean martxan jarritako enpresa-proiektu berezi horren esperientzia azaldu zuten.

Kukuxumusuk sortu denetik izan duen bidea azaldu duzue Oñatiko Ulman.

Kukuxumusuren berri eman dugu; nola sortu zen, zer ibilbide egin dugun eta nola iritsi garen orain arte gauden tokiraino.

Zein da Kukuxumusuren filosofia? Eta hasierako filosofia hari eusten diozue?

Hasieratik gure filosofia lan egitea eta aldi berean ahalik eta ondoen pasatzea izan da; eta horixe bera gure jarraitzaileei sentiaraztea da gure asmoa; alegia, eurek ere bikain pasa dezatela gure marrazki, produktu eta ekimenekin.

Hastapenetik horixe izan da gure xedea eta berdin jarraitzen saiatzen gara, nahiz eta batzuetan bidean zailtasunak aurkitu.

Nolakoa izan da 22 urte hauetako bidea?

Tira, bada, hainbat jendeak pentsatuko du akaso bidea erraza izan dela; baina, egia esan, ondo pasatzeaz gain, lan handia egin dugu eta une gozoak eta latzak bizi izan ditugu, baina ezin gara kexatu. Pozik gaude eginiko bidearekin eta aurrera jarraitzeko gogoia dugu.

Kamisetetatik haratago salto egin duzue; beste hainbat enpresarekin hitzarmenak egin eta bestelako materiala ere saltzen duzue. Nola hartu zenuten erabakia?

Gu betidanik aritu gara kamisetagintzan, baina pixkanaka bestelako osagarri batzuk egiten hasi ginen gure kabuz eta ohartu ginen jendearen gustukoak zirela. Horrela, duela zenbait urte harremanetan jarri ginen hainbat enpresarekin eta bestelako produktu batzuk ere egiten hasi ginen. Gaur egun hainbat enpresarekin ditugu hitzarmenak eta gure irudiak hainbat euskarritan ikusteko aukera dago; aterkiak, segapotoen osagarriak, zartaginak, motorrerako kaskoak, boligrafoak, koardernoak, betaurrekoak, txakur eta katuentzako ohetxoak, e.a.

Zuen arrakastaren gakoa marka eta estilo propioa lortu izana da. Beharrezkoa da bidea zabaltzeko?



Koldo Aiestaran Ulman izan zen eguaztenean. | JULEN IRIONDO

Bai. Jendearen arreta lortzea ezinbestekoa da, eta horretarako estilo propio bat izatea eta besteengandik bereiztea oso garrantzitsua dela uste dugu. Jendeak

guregana jotzen duenean badaki zer gura duen: Kukuxumusu marrazkiak bilatzen ditu. Horrek lagundu egin du gure marka eraikitzen.

"Eskaintza zabala dugun arren, bezeroek denetik eskatzen dute"

"18 denda ofizial ditugu; eta gure produktuak saltzen 700 bezero"

Gaur egungo garaia ez dira onenak. Halako uneetan irudimena gehiago lantzen da, eta aukera gehiago izaten dituzte gazteek euren ideiak aurrera eramateko?

Bai, egia da ez direla garai onenak, eta guk geuk ere gure baitan bizi dugu egoera hau. Horrelakoetan maiz esaten da ideia onak sortzen direla eta aurrera joanez gero baliteke haiek proiektu sendoak sorraraztea; baina bestetan, akaso, laguntza faltagatik oztopo

gehiago izan ahal dira. Ez da erraza izaten. Dena dela, zerbaitetan sinistuz gero, aitzina egin behar da amesten den hori lortzen saiatzeko. Guk, behintzat, horixe egin genuen.

Zuen ikur sanferminak dira. Gehien saltzen duzuen garaia da?

Sanferminetan jende asko hurbiltzen da Iruñera, batik bat hasierako egunetan, eta gure salmentek gorakada izaten dute, baina ez da urteko salmentarik handiena. Oro har, uda partean, sanferminak barne, saltzen dugu gehien, eta ondoren Eguberrietan.

Zer eskatzen dizute zuen bezeroek?

Tira, badakizu, bezeroek denetik eskatzen dute. Gure eskaintza geroz eta zabalagoa da eta dendetara hurbiltzen diren bezeroek gauza asko erosteko aukera dute, baina beti dago baten bat zerbait berria eskatzen duena eta hori ere ona da guretzako, gauzak hobeto egiteko hauspoa ematen digulako. Ideia bat egin dezazun, Interneten bidez jaso ditugun eskaeren artean izaretan marrazkiak jarri nahi zituen amama, tatuajeak nahi zituzten hainbat lagun, gorbatak egiteko eskaera egin digutenak, etxeko paretak gure irudiekin marraztu nahi izan dituztenak...Ikusten duzuen moduan, jendeak sekulako irudimena du!

Zenbat denda dituzue munduan eta zenbat saltzen duzue?

Guztira 18 denda ofizial ditugu, horietako bat Baionan eta gaitzetzekoak Espainian. Eta %100 Kukuxumusu saltoki horietaz gain, 700 bezero inguru ditugu gure produktuak saltzen dituztenak.

On line denda ere ireki duzue. Gaur egun ezinbestekoa da teknologia berrietara egokitzea?

Bai, horrela da. Teknologia berriek sekulako eragina dute gure bizitzetan eta Kukuxumusuk hasieratik egin zuen apustu horien alde eta lanean jarraitzen dugu oraindik ere. Baditugu hainbat webgune: kukuxumusu.com eta sanfermin.com; bi telebista: [on line kukuxumusu.tv](http://online.kukuxumusu.tv) eta sanfermin.tv; eta gizarte sareetan ere bagaude. Gure berri munduan barrena emateko aukera eskaintzeaz gain, jarraitzaileekin harreman zuzena izateko aukera ematen digute. Eta, jakina, *on line* dendari esker gure produktuak munduan barrena saltzeko aukera dugu.

ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA
'http://goiena.net/iritzia/'



UEMA eta ekologia

UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. 59 herri: txikiena, Oresa, 123 biztanlekoa; handiena Bergara, 14.700eko. Debagoienean UEMAn daude Antzuola eta Elgeta ere; Debagoienetik gertu, Aramaio, Arabako herri bakarra.

Euskal Herrian Euskaraz elkartearen ekimenez 1991n sortua, aurten Bergaran ospatuko du 20. urteurrena, bi mezu nagusirekin:

Lehenengoa, hizkuntza-ekologiaren aldeko mezua. Hau da, biodibertsitatearen defentsa egiten den modu berean, justua, egoia, aurrerakoa... dela kultura-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna defendatzea; galtzeko zorian diren baleak, hartzak, tigreak... naturako aniztasuna, kontserbatzeko baliabideak jartzen ditugun moduan, bidezkoa eta aurrerakoa dela gizakiok sortu ditugun kulturak eta hizkuntzak kontserbatzea. Hizkuntza bat badela komunikatzeko tresna bat, baina, horretaz gain, badela mundua eraikitzeko modu bat ere eta, ondorioz, hizkuntza bat galtzen den bakoitzean mundu-ikuskerak ere galtzen dela eta gizateria osoa dela pobregoa.

Eta ildo horri jarraiki, hizkuntza ekologiaren printzipioak diskriminazio positiboaren printzipiora garamatza: ahulenak, txikiak, gutxi direnak laguntzera eta babestera.

Bigarren mezua, berriz, euskararentzako arnaguneak eraiki beharra. Gaur egun zabal onartutako printzipio bat da edozein hizkuntzak, iraungo badu, ezinbesteko duela bera nagusi izango den eremu bat. PSEk berak txalotutako *Euskara 21* gogoetan jasotzen da: "*Arnagune horiek [gune euskaldunak] zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnaguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan*".

Ekainaren 4an Bergaran zain izango gaituzue... gure hizkuntzak har dezan arnas.

"Hizkuntza ere bada mundua eraikitzeko modu bat, besteak beste"

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | 'jbereziartua@goiena.com'

Politika aldatu dela? Hobeto!

Hauteskunde kanpainari 13 egun geratzen zaizkio. Ibarreko alkategaiek kanpaina egiten dihardute, herriz herri eta arloz arlo euren proiektuak herritarrei saltzen. Alkategaiek elkarrizketatu ditu Goienak eta lehen ondorioetako bat da, esan dutenaz haratago, gehienak ez daudela batere ohituta telebista kameran aurrean berba egitera. Politika aldatu dela entzun berri dut kalean, oratoria eta politika egiteko artea galdu egin direla. Politika garaiekin batera aldatu dela esango nuke nik. Eta herritarrekin modu gertukoagoan berba egitea izan daiteke aukeretako bat egun herritarren artean horren zabaldua dagoen politikarekiko ezinikusia -eta abstentzioa- gainditzeko.

KALE INKESTA

Udako oporrak antolatu dituzu edo urrun ikusten dituzu?



JON SAGASTA
ARRASATE

"Nik urruti samar ikusten ditut oraindik, eta lankideekin konpondu beharko naiz. Abuztuan gainera, seguruenera lan egin beharko dut".



PRACEDIS CAMPOS
ARRASATE

"Nik ez daukat oporrik. Hiru urte daramatzat hemen eta hiru urte hauetan ez dut inolako oporrik izan. Ea egunen baten iristen diren...".



TOMAS DEL RIO
ARRASATE

"Urte guztiko oporrak antolatuta ditut. Almerian eta Kanariar Uharteetan egon berri naiz. Interneten topatzen ditut bidaiak. Erretiratuen bizitza...".



PILAR IZTUETA
BERGARA

"Urte guztia ematen dut nik oporretan, beraz, abuztuan ez naiz oso urruti joaten. Gabon inguruan egiten dut hilabeteko bidaiak".

HANDIK ETA HEMENDIK

Botoak erdiesteko manerak: abstentziorik gabeko zahar-etxeak

Patxi Larrion
<http://www.argia.com/blogak/>

Hilean behin edo Gazteluko Plazako Txoko, Kiosko edota Gure Etxean institutuaren garaiko ikaskideak elkartzen ohi gara. Bost urte pasa dira ohitura hau ezarri genuenetik, gogoan dut non ginen elkartzearena proposatu genuen ueña, Donibaneko tanatorioan ginen, Xabierren aita hil berria zen eta Txemak azken boladan tanatorio, hilerri eta gisa horretako tokietan elkartzen ginela ohartarazi zigun. Laupabost hurbiltzen ohi gara Gaztelukora, eta bi ordu eskas irauten duen solasaldian hitza elkarri kentzen diogu etengabe. Pasa den astean elkartu ginen hondarreko eta espero zitekeen gisan hauteskunderen ingurukoak hartu genituen hizpide. Txemak kontatu zuena izan zen atentzio gehien bereganatu zuen pasadizoa. Hona Txemak kontatu moduan.

Susmoa ez zen ordukoa. Aurreko bozketetan ezer arraroa sumatu nuen nortasun agiriaren kontura.

Gure amak sei urte zeramatzan Agoitz ondoko zaharren egoitzan.

Gogorra da esatea, baina gure ama guztiz ezindua zen, ohetik aulkik gurgildunera eta hortik berriz ohera.

Igaroak ziren ezagunen bat ikustean aurpegia alaitzen zitzaioneko garaiak.

Arreba eta biok ere maiz arrotzak ginen amarendako.

Nire ardura zen amaren inguruko gestioak egitearena, nortasun agiriaren fotokopia bat erabiltzen nuen horiek egitean.

Nire urtebetzerako larruzko maleta bat oparitu zidaten etxean, zinez dotorea etxekoan presentia.

Apirila ailegatu zen eta amaren zenbait agiri berritu behar nituen, nortasun agiriaren fotokopia bilatu nuen larruzko maletan, alferrik bilatu ere, maleta zahararen barnean geratu zen.

Beste fotokopia bat behar nuen, ia egunero hurbiltzen nintzen Agoitz ondoko zaharren egoitzara, arratsalde horretan bertan egiten nuen egin beharrekoa.

Amaren mesanotxia goitik behera arakatuta ere ez nuen

agiria topatu.

Zahar etxeko arduradunarengana joan nintzaion, ez ulertuarena egin zuen.

-Zertarako behar du zuen amak nortasun agiria?

-Gure amak ez, guk behar dugu amaren agiria.

Azkenik amore eman zuen, baina maiatzerako agiria behar zutela ohartarazi zidan.

Ez galdetu nola ikasi nuen, baina gure amak zahar-etxean egon zen bitartean hutsik egin gabe bozka eman zuen hauteskundeoro.

Beno, hau ez da guztiz egia. Azkenekoetan abstentziora lerratu zen, nortasun agiriaren orijinala ez bainuen itzuli.

Honaino Txemaren kontakizuna. Bere amak pasa den neguan utzi gintuen.

Ez da azitia izan behar egun ere zahar-etxeetan gisa horretan jokatzeko ote duten igartzeko.

Hori bai, eskuina inoiz baino zaituago ageri da hauteskunde hauen aurrean, bada pentsa daiteke konpetentzia *latxa* izanen dela boto horiek erdiestean.

Ea lehiak leihoren bat zabaltzen digun, afera honen inguruan argitasun pixka bat emanen duen leihoa.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Miren Arregi
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

TORRA+PORTELLA

Zure seme edo alabaren ideiarik onena bezain jostagarria. Horrelakoa izatea nahi duzu bere denboraren zatirik handiena igaroko duen lekua. Magikoa, abegikorra, bere adinerako pentsatutako aukera praktikoekin. Umeentzako logeletan proposamen ugari dituzu made in Kibuc. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara funnya



gutxieneko prezioa bermatuta ok



1.176 €

98 € x 12 hilabete interesik gabe*



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Niko programa Argi eta kolore ugari osatutako proposamena, zure seme-alaben beharretara eta espaziora egokitzen dena. Trinkoa, ohe ateragarria eta ateratzeko estalkia L 203,8 zm-koak, 2 ateko armairuarekin (L78,4 zm-koa) eta kuboekin. Akaberrak: decapéak, testuratu zuria eta laranja iluna. Neurria: L 281,8 zm. Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. *Irekitze-gastuak % 2, eta finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Ana Mari Markuleta | Herri Batasunako zinegotzia Oñatin (1991-1995)

- ▶ Oposizioan lan egin zuen Iturbe alkate zela
- ▶ Lau batzordetako kide izan zen
- ▶ Agintaldi bakarra egin zuen zinegotzi moduan

"Euskararen arloari dagokionean agintaldi emankorra izan zen; lan handia egin genuen"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ana Mari Markuleta (Oñati, 1954) Herri Batasunako zinegotzia izan zen 1991tik 1995era. Politikan egindako urteez oroitzapen onak ditu, nahiz eta aitortu digun urte "zailak" izan zirela. Agintaldi hartan zazpi zinegotzi izan zituen HBk eta oposizioan "gogor" jardun zuten.

Nola heldu zinen politikara? Etxekoren baten ildo jarraituta?

Ez. Egia esan etxean ez dugu izan politikarako joerarik. HBren zerrendan nere burua aurkeztea erabaki nuenean Gestoretako kide nintzen. 1991an hasi nintzen politikan, 37 urterekin. Agian berandutxo, baina, presoan alde lanean hasi nintzen 20 urterekin.

Ze oroitzen dituzu?

Onak. Gogoan daukat oposizioan jardun genuela, eta lana gogor egin genuela. Lan taldean egon nintzen Jose Mari Larrañagarekin, Jabier Altuberekin eta Gorka Maiztegiarekin, besteak beste.

17 zinegotzik osatzen zenuten udalbatza Iturbe alkatea buru. Nola antolatzen zenuten lana?

Aurretik ere esan dut ordu asko egin genituela udaletxean. HBko zazpi zinegotziok batzorde guztietan parte hartzen genuen. Nik

neuk, adibidez, Hirigintzan; Kulturaren; Euskararen eta Gizarte Zerbitzuetan parte hartzen nuen.

Agintaldi hartan esku artean izandako proiektuetako bat aukeratu.

Duda barik zinegotzien artean istilu eta arazo handiena sortu zuena gaztelekua izan zen. Lehengo merkatu plazan gaztelekua egitea erabaki zen. Gu proiektuaren kontra ginen: onartutako aurrekontua ikaragarri handia zen, herriko gazteak gaztelekuaren kontra zeuden, EAJK proposatzen zuen funtzionamenduekin ez geunden ados... Istiluak istilu, berriro diot ez daukadala oroitzapen txarrik. Dena den, arazoak alde batera utzita, esan-

go nuke, lan handia egin genuela euskararen aldeko ekimenetan. Euskara arloa oso emankorra izan zen. Dendariekin lanean hasi ginen.

Zer nolako hartu-eman izan zenuen alkatetzarekin?

Nahiko ona. Egia esan, agintaldi hartan HBrekin geundenetako batzuk berriak ginen -ni eta Gorka Maiztegi adibidez-, baina beste batzuk aurretik politikan bidea egindakoak ziren. Gu udaletxean sartu ginenean alkate aldaketa egon zen: Angel Iturbere lehene agintaldia izan zen, Eli Galdosen lekukoa hartuz. Guk hartu-eman ona izan genuen alkatetzarekin.

"Presoen alde lanean 20 urterekin hasi nintzen, eta politikan 37rekin"

"Oposizioan jardun genuen, lan handia eginez. Ilusioarekin heldu ginen"

"Istiluak istilu hartu-eman ona izan genuen alkatetzarekin"

"Guregana etorri ziren herritarren kezak bideratu genituen"



Ana Mari Markuleta, Santa Marina plazan. | MIREIA BIKUÑA

Agintaldi bakarra egin zenuen. Garbi izan zenuen lau urte bakarrik izango zirela, edo agintaldiak aurrera egin ahala hartu zenuen erabakia?

Ilusio handiarekin heldu nintzen udaletxera, lan egiteko gogoz. Baina, agintaldi bakarra egin nuen, ez lan kontuengatik, baizik eta etxean nuen egoerarengatik. Ordu hartan nire bikotekidea kartzelan zegoen Kanarietan, eta urte oso gogorak bizi izan nituen. Dispersioa hasita zegoen... Eta erabakia hartzeko unea heldu zen. Nik familiaren alde egin nuen.

Udaletxea da herritarrek kezak bideratzeko duten erakundea. Herritarrek hurbildu ziren zuengana?

Ezker Abertzaleko herritarrengana jo izan dugu beti hauteskundeetarako programak osatzeko. Hori horrela, beti izan dugu hartu-eman eurekin. Guregana etortzen zirenean, euren kezak bideratzen genituen.

Asko aldatu da Oñati zinegotzi izan zinetik?

Oro har, gizartea aldatu da.

Zer falta zaio Oñatiri?

Garraio publikoaren arloan hobekuntzak behar ditugula esan nuke. Aurrera pausuak eman dira, baina gehiago behar ditugu.

Aldaketak espero dituzu hilaren 22an?

Egoera ez da normaltasunera erabat itzuliko, baina aurrera pauso inportantea da guztiondako.

Gremioen gida



Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAUKAZU?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



HERRIAK

ARAMAIO

Bertsoa bidelagun duen abentura, ondo pasatzeko barnetegian

Zuiako Koadrilak barnetegia antolatu du Sarriako aterpetxe baten, ekainaren 10etik 12ra

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako Bertsozale Elkartearen proposamena aintzat hartuz, Zuiako Koadrilako ikasleendako bertso barnetegia egingo da aurten ere, ekainaren 10etik 12ra bitartean. Aurten Sarriako Goikuria aterpetxera joango dira Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak. Aurreko edizioetan Aramaioko ordezkariarik ez da falta izan, eta aurten ere, noski, gonbidatuta daude.

Ekimenak bost urte beteko ditu aurten eta antolakuntza lanean diharduen Manex Agirre bertsolari aramaioarrek dioenez, ekimen "oso interesgarria" da: "Euskararen normalizatorako eta eskualdeko herri ezberdinetako haurrak gune zehatz baten elkartzeko ekimena da. Haurrak elkartzen dira beste arrazoi batzuk direla medio -kirolagatik, adibidez-, baina ahozko euskara eta bertsolaritza bera elkartzeko aitzakia izatea interesgarria da oso".

Eta nola gerturatzeko zaio bertsolaritza haur bati? Bada, Agirrek dio "modu asko" daudela: "Barnetegiko begiraleak modu ludiakoan saiatzen dira bertsolaritza



Manex Agirre, ekimenaren kartelarekin, Sarriako (Araba) Goikuria aterpetxe atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA

haurrengana helarazten. Helburua ez da aterpetxetik bertsolariak ateratzea, baizik eta bertso zaletasuna zabaldu eta haurrek ondo pasatzea, bertsolaritza teknika oinarrikoekin". Adibide konkretu bat jarri digu Agirrek:

haurrak korroan jarri eta nork bere izenarekin errima bat osatzea eta errima horretatik koplak bat egiten ahalegintzea. Eta, noski, aitzakia horrekin aste bukaera bat euskaraz eta jolasean pasatzea.

Izen-ematea, hilaren 26ra arte Izena emateko azken eguna da maiatzaren 26a da. Aramaioarrek Udalean aurkeztu behar dute 35 euro ordaindu izanaren ordainagiria. Zuiako Koadrilako ikasleendako irteera da eta Aramaio-

ESANAK

"Bertsolaritza umeak leku berean batzeko aitzakia izatea interesgarria da"

"Helburua ez da aterpetxetik bertsolariak ateratzea, haurrek ondo pasatzea baizik"

MANEX AGIRRE | ANTOLATZAILEA

tik 18:00etan irtengo da autobusa, hilaren 10ean. Domekarako Aramaioko eskolan izango dira, 14:15ean. Honakoa eraman behar dute ikasleek: mendiko botak, lo-zakua, aldatzeko jantziak eta garbiketarako gauzak.

Aurreko edizioetan, arrakasta nagusi

Aurreko urteetan, batez beste, 25 bat haurrek hartu dute parte bertso abenturan. Agirrek jakinarazi du adina pasatzen ez zaienetako askok errepikatu egiten dutela: "Oso gustura ibiltzen dira. Bertsolaritza hurbiltzeko ekintzez gain, bestelako hainbat ekintza egiten dituzte".

Aurtengo egitarauak ez dauka nobedade handirik. Ekainaren 10ean 19:15 aldera helduko dira aterpetxera. Heldu eta berehala, elkar ezagutzeko jolasak egingo dituzte, taldetan banatuta. Aflostean, berriz, bertso puzzle jokoa eta kantu tailerra egingo dute. Zapatuan, berriz, egun osoa aprobetxatuko dute: mendi buelta, tailerrak, joko zikinak eta, noski, bertso saioa egingo dute. 18:00etan hasiko dira saioa prestatzen; izan ere, zuzenean hartuko dute parte. Bertso saioa 22:00etan hasiko da eta Arabako bertso eskoletako bertsolari gazteek hartuko dute parte. Domeka eguerdian bueltatuko dira euren etxetara.



Ikasleak, duela bi urteko abenturan: gogotsu iratzarri ziren; hor ez dago zalantzarik. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Begirale eta bertsolariarekin harreman ona ezinbestekoa da barnetegiaren arrakastarako. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Bertsolaritza jolasen bidez helarazten zaie ikasleei. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



Bertso eskolako gaztetxoek euskararen aldeko aldarrikapen mezua bota zuten. | IRATI GOITIA

ARETXABALETA

'Euskeria gure ahotan', festaren aldarrikapen

- ▶ Zapatuan jai giro izugarria Euskerian Egunion
- ▶ Loramendiren 25. urteurreneko lehen ospakizuna

IRATI GOITIA | ARETXABALETA

Euskerian Eguna ospatu zuten zapatuan Aretxabaletan, Loramendi elkarteak antolatuta. Elkarrekin 25 urte betetzen dituela ere gogoan izan zuten festa osoan zehar.

Gazte zein helduak erakarri nahi izan zituzten Loramendikoek eta programa bete-betea prestatu zuten herritar guztientzat: jolasak, ibilbidea, bertsoak, bazkaria eta batukada, besteak beste.

Goizeko 10:00etan ekin zioten egunari, Aretxabaleto bigarren ibilbide historikoarekin. Eguraldi txarrari aurre eginez, 25 pertsona elkartu ziren txangorako. Hain zuzen, euriaren ondorioz 16 urtetik gorakoendako herri jolasak bertan behera gelditu ziren. Umeendako tailerrak eta ginkana, egin ziren.

Jai giroa beretzeko Plazakadie

Eguerdiko 13:00etarako herriko plazan zuten egin hitzordua: Plazakadie. Eskolako aterpean postuak zeuden: Hiruatx bidezko merkataritza taldearena eta Okila egurra lantzen duenarena. Ekitaldi bat ere izan zen. Txalaparta, bertsoak eta Basotxo erretiratuen elkarteak abesbatzaren abestiak entzuteko aukera izan zen. Festa eta aldarrikapena uztartu ziren plazan jarritako taula gainean. Bertso eskolako gaztetxoek honakoa kantatu zuten: "Gure hizkuntza, zuen ahotan ikusi nahi dugu".

Ekitaldiaren ostean lunch-a eta sagardo dastatzea izan ziren, baita koplatriki-poteoa ere. Azken horrek jende mordoxka bildu zuen.

Herri bazkari arrakastatsua

Festa baten ezin bazkaria falta, eta pilotalekuan egin zuten herri bazkaria. 150 lagunetik gora elkartu ziren bertan. Tripa ondo bete ostean, *Tribial Pursit* berezi bat jokatu zuten bazkarira joandako guztiak. Aretxabaleta eta aretxabaletarren gaineko galderak izan ziren erantzun beharrekoak, eta barre algara ugari entzun ziren. Giro paregabea izan zen.

Arratsaldean zehar beste hainbat ekintza egin ziren: bolo txapelketa (Basotxokoek irabazi zuten), Larrin-dantza, Euskarakea, batukada Zo-Zongo taldearen eskutik eta eguna amaitzeko diskofesta herriko plazan.

Antolatzaileak oso pozik azaldu dira heririk jasotako erantzunarekin.



Herriko plazan sagardo kupela jarri zuten. | IRATI GOITIA

**ENERITZ URRUTIA**
ARETXABALETA

"Goizean ibilbide historikoa egin dugu, 25 pertsona elkartu gara eta oso gustura ibili gara. Orain, trikitilariak entzun, poteoa egin, bazkarira joan... egunak dakarrena"

**MARKELINE MENDIETA**
ARETXABALETA

"Basotxo erretiratuen elkarteak naiz eta orain abestu egin behar dugu. Euskararen alde kantatuko dugu. Gero, bazkarira joango naiz, txartela erosita dut-eta."

**ANGEL ETXEZARRETA**
OÑATI

"Plazan zein giro dagoen ikustera etorri gara, ederra dago: trikitilariak eta postuekin. Jarri duten sagardo kupeletik ere hartuko ditugu trago batzuk."

**EDURNE LARRINAGA**
ARETXABALETA

"Eguraldia lagun ez izan arren, ibilbide historikoa egin dugu, oso interesgarria izan da. Euskararen alde merezi du. Hala ere, egunero egin behar da euskararen alde."

BERGARA



Neka-neka eginda, horrenbeste dantzatuta

Zapatuan Bergaran ez zen musika eta festa girorik falta izan. Izan ere, herriko trikitilari eta dantzariak Erromeria Eguna ospatu zuten. Egun osoko egitaraua prestatu zuten. Goizean, dantza emanaldiak izan ziren herriko kaleetan zehar. Eguerdian, herri bazkaria egin zuten udaletxeko arkupetan. Ostean, musika doinuak nagusitu ziren: erromeria, triki-poteoa eta dantzaldia izan ziren. Hankak nekatzeko moduko eguna!

ARRASATE



JULIO CALLEJA

Astebeteko ospakizun kulturala

Arrasateko Corazon de Encina extremaduraren elkartea aste kulturala ospatzen dihardu; hilaren 7an hasi eta gaur amaituko dute. Ekintza ugari izan dituzte: marrazki lehiaketa, bideo emanaldiak, Extremadurako produktuen dastatzea, afarria eta dantzaldia, besteak beste.

ANTZUOLA

Zirak soinean zituztela ospatu behar San Isidroak; abereak euripean plazan

Esperotakoa baino jende gutxiago ibili zen postuetan; arratsalderako animatu zen giroa

IRATI GOITIA | ANTZUOLA

San Isidro eguna ospatu zuten zapatuan Antzuolan. Hala ere, herritarrek bezperan ekin zioten motorrak berotzeari, eta nola ekin ere. Bertso saioa izan zen Terresoroan Julio Soto, Iker Zubeldia, Jone Uria, Miren Amuriza eta Iñaki Gurrutzaga bertsolarien eskutik eta aretoa lepo bete zen. Umorez betetako saioa izan zen, jai giroa nagusi.

Zapatua, egun handia

Antzuolarrek zapatuan ez zuten eguraldia lagun izan San Isidro-tako egun handia ospatzeko. Hala ere, jendea aterkiak eta zirak soinean hartu eta kalera irten zen, bazegoen-eta zer ikusi. Eskolako jolastokian, herriko zein

kapotik etorritako artisauek eta baserritarrek jarri zituzten postuak: belarritakoak, eskuz margotutako arropak, opilak, gaztak, barazkiak... Denetarik eros zitekeen, baina saltzaileak ez zeuden oso konforme. Esperotakoa baino jende gutxiago joan zela esan zuten, euriaren eraginez-edo. Hala ere, asko eskertu zuten eskolako estalpe berria, lehenengo urtez aterpean jarri ahal izan zituzten postuak. Herriko plazan, bestalde, abereak zeuden ikusgai: ardiak, behorrak, behiak eta astoak.

Kukumarro lehiaketa

Kukumarro lehiaketako txorimaloak ere plazan jarri zituzten erakusgai. Guztira zazpi taldek



Zira jantzita, plazan zeuden zaldiak ikusten. | JULIO CALLEJA

hartu zuten parte: erretiratuek osatutako bat eta 6 eta 12 urte bitarteko haurrek eratutakoak ziren gainontzekoak. Lehen saria erretiratuendako izan zen, euren kukumarroak irudikatzen zuen: aiton-amon bikote bat haur batekin eskuetan atez ateko edukiontziaz. Gainontzeko lanak ere ikusgarriak ziren: ONCEko txi-

rrindulari bat, mozkor bat botila eta tabako pakete eta guzti, hippie bat zentral nuklearrik ez kartelarekin...

Antzuola eta antzuolarrak Argazki Lehiaketako sariak ere banatu zituzten, Olanen goizeko 12:00etan. Helduen mailan lehen saria Juanjo Etxezarrendako izan zen.

Erromeria Trikiziorekin

Aurtengo berrikuntzak kale-bazkaria eta erromeria ziren. Lehen bertan behera gelditu zen. Izan ere, koadrila bakarrak eman zuten izena mahaia alokatzeko. Trikiziok berriz, dantzan jarri zituen antzuolarrak. Arratsaldean, eguraldiak hobera egin zuen eta baita herritarren animoek ere.

ARETXABALETA



JULIO CALLEJA

Euria

oztopo Ojala Zelain, baina ez festa eteteko

Ojala Zelain erromeria giroa izan zuten atzo: bertsoak, trikivilariak eta sagardo dastatzea. Gorritiren abereak ere izan ziren, eta umeak gustura ibili ziren pottokekin jolasean. Paella lehiaketa bertan behera utzi behar izan zuten euriarengatik. Bazkaririk ere ez zen egin euria tarteko. Arrazoi berarengatik, arratsaldeko ekintzak –disco festa eta Leizarra musika eskolako haurren dantzak– herrira jaitsi behar izan zituzten, Iturrigorri pilotalekura, hain justu.

ARRASATE



MAITANE UNAMUNO

Musakolan, txokolatea eta jaiak

Auzoko jaiak izan dituzte Musakolan asteburuan eta denetarik izan dute. Besteak beste, poteoa egin zuten auzoan zehar asto eta guzti, eta Astokilo sariak banatu zituzten. Txatxilipurdik ume eta gazteentzat hainbat ekintza antolatuta zituen, tartean txokolatada.

piñtxo
potea
Matxiategin

Ostiraletan 19:00 - 21:00

Etorri eta gozatu!



Aralar - Kayak - Matxiategi - Toki-Ona

Udal euskalduna lortzeko bidean, Udaleria euskaraz zuzentzeko deia herritarrei

- ▶ 'Zatoz Udaleria euskaraz' ekimena aurkeztu dute
- ▶ Alderdiei zinegotzi euskaldunak eskatu die Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Debagoienean duela lau urte martxan jarri zen *Zatoz Udaleria euskaraz* ekimenarekin bat egin du Arrasateko Udalak. Azken 25 urteotan aurrerapauso handiak eman dira Arrasaten euskararen

normalizazioan. Aurrerapauso horren errudun dira, esaterako, eskolek eta euskaltegiek belau-naldi euskaldunak gizarteratzen egin duten lana. Eta ezin da ahaztu, noski, beste zenbait alorretan egin den ahalegina, besteak bes-

te, merkataritzan, zerbitzuetan, herri komunikabideetan eta enpresetan. Datuek, justu-justu bada ere, Arrasate herri euskalduna dela diote -arrasatearren %56ak euskara du lehen hizkuntza- eta hori horrela, udal langileak eus-

kalduntzeko baliabide "asko" ipini ditu Udalak. Hala ere, Udalak alderdi politikoei hautagai euskaldunak aurkezteko eskatu die gainean ditugun maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskunderi begira. Funtzio publikoa betetzen duten heinean, herritar guztiei erantzun behar dietela uste du Udaleko Euskara Sailak, eta gurean hizkuntza ofizialak euskara zein gaztelera direnez, zinegotzi guztiak elebidunak beharko lirakeela deritzo.

Izan ere, datozen lau urteotako zinegotziek euskaraz jakiteak "garrantzi handia" du, Udaleko Euskara Sailaren ustez: "Udalean urteetan euskararen normalizazioan egin den ahalegina bertan behera ez geratzeko eta aurrerapausoak ematen jarraitzeko oso garrantzitsua da zinegotzi euskaldunak izatea. Horregatik alderdi politikoei zatoz Udaleria euskaraz esaten diegu".

DATUA

%56

EUSKALDUNA DA ARRASATEN

Arrasatearren %56a euskalduna da. Udalean: langileen %89a euskalduna eta ahozko zein idatzizko erabilera, %64koa da.

Herritarrendako dei zuzena

Herritarrek Udalean euskaraz egin ahal izatea bermatu gura du ekimenak, baina horrek ez du ezertarako balio arrasatearrak ez badira euskaraz zuzentzen. Hala, herritarrei dei egin diete euskaraz egiteko, Udalarekin dituzten harreman guztietan: "Zuri ere badagokizu euskararen egoera normalizatzea, zure esku ere badago".

Garagardo jaiaren 13. edizioa inoiz baino luzeago dator, eta nobedadez josita

Aurten, plazako karpa bi asteburutan zabalik: maiatzaren 27tik ekainaren 4ra

J.B. | ARRASATE
Arrasate Errugbi Taldearen -ART- Garagardo jaia bi asteburuz luzatuko da aurten, 13 urte beteko dituenean. Maiatzaren 27an zabalduko dute Herriko plazako karpa eta ekainaren 4an itxiko dute. Ezin da ahaztu errugbi taldearen urteko aurrekontuaren zati handiena Garagardo jaiaren menpe dagoela eta azken urteetan izan duen arrakasta ikusita -iaz askok itxaron egin behar izan zuten mahaietan eseri eta afaltzeko-, ez zaie batere txarto etorriko bi asteburuz karpa zabalik izatea.



Urtero moduan, denetarik garagardoak dastatu ahalko dira. | JOSETXO ARANTZABAL

Poker eta mus txapelketak

Lehen asteburuan mahai-jokoak izango dira protagonista. Hilaren 27rako *Texas Hold'em* erako poker txapelketa antolatuko dute, 19:00etatik aurrera. Jokalari bakoitza 5.000 fitxarekin hasiko da eta mahai bakoitzeko txapelduna sailkatuko da 00:00etan jokatu den finalerako. 20 euro pertsonako, eta bost euro gehiago ordainduta afaltzeko aukera egongo da. Domekarako, berriz, mus txapelketa antolatu dute. Bikote bakoit-

tzak 30 euro ordaindu beharko du. Bi txapelketetan parte hartzeko Kajoi tabernan eman behar da izena eta batzen den dirua onenen artean banatuko da.

Klubeko kideendako bazkaria

Beste nobedade bat da hilaren 28an bazkari berezia egingo dela Arrasate Errugbi Taldeko egungo, iraganeko eta etorkizuneko kideendako. Bazkari horretara joan gura dutenek -taldera ger-

turatu gura dutenak ere gonbidatuta daude- eguaztena, hilak 22, baino lehen eman behar dute izena, Kajoi, Itzala, Basati, Monte edo Mondra tabernan. Txartelaren prezioa: 20 euro. 19:00etan txahal bat erreko dute eta 20:45ean, futboleko Txapeldunen Ligako finala pantaila erraldoian ikusteko aukera egongo da.

Gainera, lehen asteburutik salgai egongo dira ARTEk atera dituen kamiseta berriak.

San Juan jaietako irudi lehiaketan parte hartzeko azken eguna da maiatzaren 20a

Edonork har dezake parte lehiaketan eta irudi irabazlearen egileak 750 euro jasoko ditu

J.B. | ARRASATE
Hilabete eskas geratzen da San Juan jaietarako. Bada, urtero moduan, Udalak lehiaketa deitu du karteletako eta egitarauaren azaleko irudia -gutxieneko neurriak dira 28 x 21 zentimetro- aukeratzeko.

Lanak egubakoitza, hilak 20, baino lehen aurkeztu behar dira BAZen -19:00ak baino

lehen-. Irudia egiteko teknika librea da eta baldintza bakarra da 2011 *San Juan jaiak Arrasate* testua eraman behar duela. Saritzen den lana Udalaren esku geratuko da.

750 euroko saria

Arrasatear orok har dezake parte eta irudi irabazlearendako saria 750 eurokoa da.



Azken bi urteetako irudi irabazleak. | GOIENA

ONCEko 37.940 kupoiak 175.000 euro utzi ditu Arrasaten

ONCE erakundeak egunero saltzen duen kupoiak 175.000 euro utzi ditu Arrasaten.

Egubakoitzean Iturriotz kalean Jose Antonio Sanchezek saldutako 37.940 zenbakidun 5 kupoi izan dira sarituak; hala, zenbaki bakoitzak 35.000 euroko saria eroan du. Sanchezek zenbakin horren 10 kupoi zituen eta horietatik 5 saldu zituen.



Proiektuaren saioko une bat. | MONDRABERRI

Igo Gora: 'gailurrera' igo, musika eta literatura bidelagun hartuta

J.B. | ARRASATE
"Ezinegon batetik sortutako proiektua da, zerbait berria eta apurtzailea egiteko asmoz sortua". Halaxe azaldu zuen Manex Agirrek Arrasate Irratian duela urtebete inguru sortutako Igo Gora proiektua. Eguenean Kooltur ostegunak ekimenaren barruan egon ziren, gaztetxean: "Jende gutxi egon da, baina, era berean, giro aparta.

Gu leku eta ekipo txikietara gauden ohituta eta akaso gaztetxea handi geratu zaigu", dio. Musika eta poesia bidelagun, bost ataletan banatutako *igoera* egin zuten.

Eguen honetan, Big Member

Hilaren 19an, Big Member talde nafarra: rock indartsua eta hardcore melodikoa. 22:00etan izango da, gaztetxean (bost euro).

Kustomizazio tailerra hilaren 19an eta 26an, Orhipean-en eskutik

Orhipean taldeak kustomizazio tailerra antolatu du. Arroren berrerabilpena izango du oinarri ikastaroak eta Itsaso del Rey eta Maider Arriaranek emango dute.

Bi saio izango dira, hilaren 19an eta 26an, 18:00etan hasi eta 20:00ak arte. Hilaren 19 baino lehen eman behar da izena Irati tabernan eta bi euro ordaindu beharko da.

"Medikuntza naturistak eta tradizionalak elkarren osagarri izan beharko lukete"

Jose Luis Armendiak gaixotasunen aurrean bi medikuntza motak uztartzea defendatzen du

U. MADERA / J. BEREZIARTUA | ARRASATE
Aspaldiko ezaguna da Jose Luis Armendia (Arrasate, 1945) Arrasate eta inguruko herrietan. Ezaguna yoga eskolako sortzaile izan delako, eta irakasle nekaezina inguruko herrietan. Medikuntza eta bizimodu naturista ondo asko ezagutzen ditu, beraz.

Eta orain, gaixotasunari aurre egitea tokatu zaionean, medikuntza naturista eta tradizionala uztartzearen onurak nabarmendu gura ditu: "Asmari aurre egiteko akupuntorearengana joan nintzen orain urte batzuk; bada, bi saiotan kendu egin zidan asma, eta hortik aurrera, tarteka joatea nahikoa izan zait asma barik bizitzeko. Gero, txiza arazoeekin hasi nintzenean –orain hamar urte, Indiatik bueltatu nintzenean– anbulatorioan ez zidaten zer izan zitekeen esan: akupunturaz eta elikadura zainduz lortu izan dut hamar urteotan zunda barik jarraitzea.

Elikaduraren garrantzia

Armendiaren arabera, badaude jaki batzuk berez hotzak direnak: frutak, gozokiak, azukrea, letxuga... "Horiei esaten zaie Yin", dio. Bestalde, badaude beste elikagai batzuk beroak direnak: gatzak, arrainak, arrautzak, haragiak... "Horiek dira Yang". Beste batzuk, berriz, neutroak ei dira: barazki borobilak –porruak, azenarioak, apioa...–, zerealak...



Medikuntza naturistaren defendatzailea da Armendia, tradizionalaren onurak ahaztu barik. | JOKIN BEREZIARTUA

"Bada, elikagaien arteko oreka bilatu behar da gaixotasunei aurre egiteko. Nik dudana asma eta txiza edo prostatako arazoak gaixotasun hotzak dira. Eta horri aurre egiteko, elikagai beroak edo neutroak jan izan ditut", kontatu digu: "Eta horri esker lortu dut hamar urte hauetan aurrera egitea. Hipokratesek orain 2.500 urte esan zuen moduan, zure elikadura zure medikuntza izan dadila eta zure medikuntza zure elikadura". Gainera, zerealen garrantzia azpimarratu gura izan du Armen-

diak: "Hiru dira berezienak: arrozak, gari beltza eta artatxikia –gatzeleraz, mijo–, guztiak ere integralak. Beste batzuk ere badaude, adibidez, kinoa eta oloa –gatzeleraz, avena–.

Akupuntura eta homeopatia

Armendiak azaldu duenez, orain lau bat urte berriro ere azaldu zitzaion gaixotasun bera eta medikuntza tradizionala joanda ebakuntza egin beharra azpimarratu zituen. Akupuntura eta homeopatia uztartu zituen, eta gaur egunera arte bere kabuz

heltzea lortu du. Orain, berriz, gaixotasuna berriro ere azaldu zaio eta ebakuntza egin behar izan diote. Bada, ebakuntzarako orduan ere sumatu ditu medikuntza naturistaren onurak: "Ebakuntzan akupuntura erakutsitako arnasteko modua erabiltzen, bihotzaren taupaden erritmoa orekatu eta lasaitzea lortu nuen. Ebakuntza egin behar zidaten profesionalak ere nabaritu zuten berehala, eta horretan segitzeko esan zidaten. Ebakuntzaren ostean, berriz, abisatu zidaten lehenengo gaua oso gogorra izango zela, eta aldiz, lo seko geratu nintzen gau osoan. Osteo errekupezioa ere oso erraza izan da".

Paralelo joatea, "onena"

Amaitzeko, urte hauetan guztietan medikuntza naturista landu eta aldarrikatu duen Jose Luis Armendiak helarazi gura du "naturista eta tradizionala uztartzeari esker" lortu duela gaixotasunaren hedapena moteltzea eta gaixotasunaren kontrako tratamendua hobetzea: "Bi medizina motek dituzte onurak. Tradizionala hobea da diagnostikatzeko eta gaixotasun estrukturalekin askoz azkarragoa da. Naturista, berriz, hobea da gaixotasun funtzionalerako –bizkarreko minak, nerbioa...–. Beraz, biek paralelo joan beharko lukete".

Ospitalera joan barik 23 urte

Jose Luis Armendiak 66 urte ditu. Duela 30 urte Arrasateko yoga elkartearen sortu zuen; bizimodu naturistaren adibide garbia. Bada, hona esan diguna, ebakuntza egitera joan zeneko: "Ospitalean ez zuten nire fitxarik, 23 urte joan barik nengoen-eta".

'Emakumeak protagonista', herrigintzari omenaldia

Berdintasun Sailak eta Emakume Txokoak hitzaldi zikloa antolatu dute; bihar Edurne Brouard dator

J.B. | ARRASATE

'Emakumeak protagonista' izenarekin bataiatu dute ekimena. Helburua da Euskal Herrian herrigintzan zenbait eremutan emakumeek egiten duten lana ikusaraztea: "Hainbat esparrutan mugitzen diren emakumeak elkarriketatuko ditugu, protagonista bilakatuko ditugu eta euren esperientzia eta ibilbideen berri emango digute", jakinarazi dute. Lehen elkarriketatua Edurne Brouard izango da eta Maddalen Iriartek elkarriketatuko du: maiatzaren 17an, Kulturateko klaustroan (19:00).

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak, Emakume Txokoarekin elkarlanean, Emakumeak protagonista izena duen egitasmo berri bat aurkeztu du. Ekimen horren bidez, Euskal Herrian

herrigintzan eremu ezberdinetan emakumeek egiten duten lana ikusarazi nahi dute. Horretarako, saio bakoitzean, emakume batek beste bat elkarriketatuko du.

Bihar Kulturaten, 19:00etan

Elkarriketa zikloari hasiera emateko Edurne Brouard AEKko arduraduna gonbidatu dute, eta Maddalen Iriarte kazetariak elkarriketatuko du. Hala, Edurne Brouard hobeto ezagutzeko aukera izango dute hitzaldira hurbiltzen direnek. Euskalgintzan eta politikagintzan izandako bizipenak eta eremu publikoan parte hartzeak dakartzen zailtasunak izango dituzte hizpide, besteak beste.

Bihar izango da, maiatzak 17, Kulturateko klaustroan, 19:00etan. Antolatzaileek herritar oro gonbidatu dute ekitaldira.

Musika taldeendako eta begiraleendako laguntzak

J.B. | ARRASATE

Udaleko Gazteria Sailak musika grabazioak egiteko eta aisialdiko begirale edo zuzendari titulua atera duten arrasatearrendako diru-laguntzen deialdia egin du. Bietan, interesdunek azaroaren 30a baino lehenago egin beharko dute eskaera.

Begiraleen kasuan, 2010-2011 ikasturtean titulua atera duten arrasatearrei laguntza ematea da helburua eta diru-laguntza matrikula kostuaren erdia izango da. Diru-laguntza jasotzeko beharrezkoa da Arrasaten erroldaturik egotea eta ikastaroak gutxienez urte beteko antzinatea izatea.

Musika ekoizpena sustatu

Musika ekoizpena sustatzeko laguntzei dagokienez, Gazteria Sailak 2011an egindako musika grabaketa eta edizio kostuetan laguntzeko diru-laguntzak zuzen-

duko dizkie herriko musika taldeei. Bete beharreko baldintzak hauek dira: taldekideen erdiak arrasatearrak izatea eta azken bi urtetan diru-laguntzarik jaso ez izana.

Diru-laguntzaren zenbatekoa grabazio edota edizio gastuen erdia izango da, gehienez 680 euro.



Musika ekoizpena laguntzeko. | GOIENA

Nubi elkartearen hitzordua Kulturaten, maiatzaren 31n

Maiatzean zehar Nubi Elkarrekin ekintza ezberdinak antolatu ditu herri saharauiarren gatazka lau haizetara zabaltzeko. *Maiatza Borroka* hartu dute lelo eta hilaren 31n Arrasatera datoz. *The-rtulia* deritzon ekitaldia egongo da Kulturateko Jokin Zaitegin (19:00). Saharako tea dastatzeko aukera egongo da.

Besaidetik Bakio eta Plentziara joateko izenematea, etzira arte

Besaide mendizale elkarteak irteera antolatu du domekarako, hilak 22. Bizkaiko Biraen laugarren ibilbidea izango da, Bakio eta Plentzia artekoa. Garibaitik irtengo dira 07:30ean, eta 17:00etan bueltatuko dira. Izena eman daiteke gaur, bihar edo etzi, 19:30etik 20:30era. Ohikoa denez, elkartearen egoitzan.

Agorrosin, aurtengo uda kanpainarako gertu

Tabernak kanpoko eta barruko bezeroak banatuko dituen itxitura izango du

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Uda garaia hasteko hilabete luze bat falta den arren, Agorrosinen udako kanpainarako guztia prest izateko azken esprintean dabilta. Dagoeneko ia guztia prest dago eta azken ukituek kiroldegia martxan jartzeko moduan utziko dute. Aurten kanpoko igerilekuak uztailaren 4tik irailaren 2ra arte zabalik egongo dira eta antolakuntzak aurreko urteetako zenbait hutsune edo akats konpontzen dihardu.

Lehen aldaketa nabarmena tabernan egingo dute: aurten, igerileku barruko eta kanpoko bezeroak bananduko dituen itxitura sistema ipini dute. Gainera, aurreko urteetako zenbait bezero eskatzen zuten moduan, liburutegia 15:00etatik 18:00etara egongo da zabalik.

Igerilekuko berdeguneak

Kexa handienak igerilekuko berdegunearen gainekoak izan dira orain arte.



Udari begira kiroldegiko tabernak izango duen itxitura berria. | ASIER ALKORTA

Aurten esfortzu berezia egin da erabiltzaileek hobekuntza nabarmenak igarri ditzaten.

Udal lorezainen brigada ahalgin berezia egiten ari da. Dagoeneko belarra ereinda dago eta

zelaia zeukan drainatze sistema guztia berri egin da. Unai Asurmendiren hitzetan: "Orain zelaia ur gehiago onartuko du, eta, gure ustez, horrela, horiguneak saihestu egingo ditugu".

Belarrak oso itxura ona du eta lorezainek lehen mozketak ere egin dute dagoeneko.

Hori ez da izan Agorrosinen aurten egin duten aldaketa bakarra: iazko uda amaitu zenetik

igerilekuan hainbat konponketa egiteko premiak ikusi dituzte. Lan horiek maiatzean egingo dira, eta, besteak beste, baldosak berri eta igerileku eta elementuen garbiketa eta arazketa makinak abian ipiniko dituzte.

Udako ekintzak

Arlo horretan ere zenbait berrikuntza egon dira. Aurreko urteetako erabiltzaileei kasu eginez, udako kirol ekintzatan izena emateko epea aurreratu egin dute, eta, kontrakoan espero bazen ere, arrakasta handia izan da.

Umeei dagokienez, eskuragarri zeuden 540 lekuetatik dagoeneko 313 beteta daude. Arrakasta gehien izan duten kirolak tenisa, igeriketa eta multikirolak izan dira. Dena den, oraindik izena emateko aukera dago, eta gogoan izan behar da gatzetxez gainera helduek ere kirol aukera zabala dutela igerilekuan.

Dagoeneko martxan dago Saharako herriaren aldeko elikagai bilketa

Bertako arazo politikoengatik elikagai bilketa maiatzera pasa dute aurten

I. GALLEGO | BERGARA

Bubisherrek, Bergarako Sahararen aldeko elkarteak, herri sahararrarekin elkartzasuna adierazi eta lankidetzara eta sendetzea indartzeko urtero egiten duen ekimena martxan da. Gipuzkoako Sahararen aldeko elkarteak eta Fronte Polisarioak antolatuta, elkartzasun kanpaina horren helburu nagusia Aljeriako Tindoufeko errefuxiatuen eremuetara elikagai iraukorak bidaltzea da, hala nola arzoa, lekaleak, olioak, pasta, azukrea eta sardina eta atuna oliotan, helduentzako fardelak eta konpresak.

Joan den urtean 4.000 kilo elikagai bildu zituzten Bergaran eta aurten iazko marka bera lortzea espero dute. Bubisher elkarteak kide Bibi Anduezen hitzetan, "ez da erraza izango, aurtengo karabanaren datak ezberdinak direlako". Aurreko urteetan elikagai bilketa Gabon garai inguruan egiten zen eta aurten, Marokorekin izandako tirabiren ostean, Fronte Polisarioak maiatzera pasa du karabana. Horregatik, aurten, Bubisher elkarteak informazio kanpaina indartu dute.



Aurreko urtean jasotako janaria. | BIBI ANDUEZA

Kanpalekuekiko egoera

NBEko Elikagaien Mundu Programaren arabera, egoera oso larria da. Elikagai programako murrizte gogorrek errefuxiatuen osasunean eragin handia izan dute eta, batik bat, 5 urtetik azpiko haurren eta haurdun edo edoskitze aroan dauden andrezkoen egoera larriagoa da.

Janari bilketa maiatzaren 9tik 27ra izango da eta hiritar orori zuzenduta dagoen arren, herriko ikastetxeetan presentzia handiagoa izango du. Dena den,

herriko supermerkatu eta janari-denda guztietan janaria lagatzeko aukera dago. Janariaz gainera, dirulaguntzak emateko aukera ere badago Euskadiko Kutzako 3035 0009 13 0091113300 kontu korrontean.

Oporrak Bakean programa

Bubisher taldeak aurten ere abian jarri du Oporrak Bakean programa. Parte hartzeko deialdia zabalik dago eta argibideak behar izanez gero deitu 617 26 04 11 telefono zenbakira.

Udalak bekak eskainiko ditu musika taldeek grabazioak egin ditzaten

I.G. | BERGARA

Beka horien helburua herriko gazteen musika produktioari bultzada ematea da; horretarako, aurten egingo diren musika grabazioen kostuaren zati baten kargu egingo da Udala, gehienez kostu osoaren %30 ordainduko da. Udalak programa horretako dirulaguntzetarako 2.000 euroko partida bat bideratu du.

Baldintzak

Beka hori jasotzeko aukera izango dute edozein musika estilotako talde, bikote eta bakarlariek. Hala ere, dirulaguntza eskatzen dutenek zenbait bal-

dintza bete beharko dituzte: taldekideen erdiak Bergaran erroldatuta egon beharko du eta taldekide guztiek 16 urte baino gehiago eduki beharko dituzte. Gainera, kideen erdiak gutxienez 30 urtetik beharokoak izan beharko dute.

Bekak gehienez 400 eurokoak izango dira, eta, Udalak horrela eskatuz gero, dirua jasotzen dutenak beka jaso duten urtean edo ondorengo bi urteetan herrian hiru kontzertu doan eskaintzera derrigorturik egongo dira. Gura dutenek eskabidea ekainaren 1etik 30era aurkeztu beharko dute udaletxeko errejistro nagusian.

Miguel Altunak ekainean zabalduko du aurrematrikula

Miguel Altuna institutuak heziketa ziklo guztietarako eskaintza normalean eta eskaintza partzialen eta sarrera probarako aurrematrikula ekainaren 1etik 10era izango du zabalik. Informazio gehiago jasotzeko: www.imaltura.com-era idatzita edo 943 76 24 91 telefono zenbakira deitu.

Mendekoste jaietako plazako txosna ustiatzeko baldintzak

Txosna ustiatzeko Bergarako elkarte, entitate edo taldea izatea ezinbestekoa da. Interesatuak instantzia bidez aurkeztu beharko dute eskakera, udaletxean, maiatzaren 31a baino lehen. Halaber, jaietan plaza giroten laguntzeko txosnak-festa egunetan derrigor bete beharreko ordutegi jakin bat izango du.

Agenda 21eko ikasleek energiaren inguruko zenbait iradokizun eman dizkiote udalari

- ▶ Udalak egindako lanak txalotu bai, baina, oraindik hutsune ugari daudela atzeman dute ikasleek
- ▶ Herriak udaltzaintzat kotxe elektriko bat erosteko ideiak oso harrera ona izan du udalean

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarako Eskolako Agenda 21eko programaren ohiko martxarekin jarraituz, herriko ingurumena ezagutzeko lanari ekin diote herriko ikasleek. Herriko ikastetxe guztietako 2.368 ikasle aritu dira energi ustiaketaren inguruan diagnostiko bat egin eta ikusitako akatsei konponbideak jartzen aritu dira.

Iaz egin zuten eskolen egoeraren gaineko diagnostikoa. Aurtengo ere zenbait neurketa egin dituzte, ezarritako neurriak betetzen diren frogatzeko. Orokorrean egoera hobetu egin den arren, ikasleek zenbat energia alferrik galtzen duten ikusteko aukera izan dute. Ondorioen artean, batzuetan zenbait eraikinetan argiak piztuta geratzen direla edota ordenagailuak ez direla beti itzaltzen.

Honetaz guztiaz eta aurreko urteetako neurketek baliatuta ikastetxe guztietako bozeramaileek, pleno aretoan, Bergara ekologikoago bat lortzeko proposamenak eman dizkiote jakitera Agurte Barruso alkateari.



Agenda 21 garatu duten ikasleak pleno areotan Agurte Barruso alkatearekin. | ARTELATZ INGURUGIRO ZERBITZUAK

Herri mailako diagnostikoa

Ikasleak auzoetako argiztapena behatzera ateratu dira, udalak, aurreko urtetik hona gauza batzuk hobetu dituelako. Zenbait puntutan argiztapen sistema hobetu egin den arren oraindik hobetze-

ko puntu batzuk geratzen dira.

Proposamenetan, kaleko argiteriaren inguruan eskaera ugari egin zituzten haurrek eta ikusitakoari kasu eginez atzemandako puntu desagokiak pixkana-pixkana egokitu ditu udalak. Hala

ere, aurtengo diagnostikoan udalaren lan positiboak baloratzeaz gainera Barruso alkateak aurtengo neurketek agerian utzi dituzten zenbait punturi buruzko iradokizun eta eskaerak jaso ditu.

DATUA

2.368

HAUR

Herriko ikastetxe guztietako 2.368 ikasle aritu dira 2010/11ko Agenda 21 ekimenean.

Eskaera eta erantzunak

Ikasleen iradokizun eta proiektuak entzun aurretik, Barruso alkateak, udalak auditoria bat egin zuela azaldu zien bertaratu zirenei. Alkateak esan zuenez, udalak lan handiak egin ditu ahalik eta energia gutxien galtzeko eta ildo horretan zenbait lan egin dituztela ere gainera zuen.

Ostean, ikasleek zenbait iradokizun eta galdera helarazi zituzten berari. Eguzki energiaren abantailen inguruan galdetu zioten alkateari eta bere erantzuna argia izan zen "herri barruko eraikinetan ezin dugu eguzki plakarik jarri, baina kiroldegietako teilatuetan jarri ditugu".

Kotxe elektrikoaren gaiaren inguruan Barrusok aurreratu zuen aztertze moduko gai bat zela eta udaltzainek honelako kotxe bat izatea ez dela fikzioa, zerbait bidezkoa, baizik. Bideguri inguruan berriz, bere konpromisoa berretsi zuen, momentu honetan bi tramu berri egitekotan daudela argitu eta gero.

bildu

bergara

eman

botoa

www.bildu.info/bergara/
bergara@bildu.info

- 1 Jesus Elortza
- 2 Jaione Isazelaia
- 3 Lauri Askargorta
- 4 Leire Iruin
- 5 Maren Belastegi
- 6 Arianne Kareaga
- 7 Piti Madariaga
- 8 Maider Arregi
- 9 Jabi Bengoa
- 10 Alan Gutierrez
- 11 Amalia Albeniz
- 12 Jabier Garmendia
- 13 Nagore Iñurrategi
- 14 Iñaki Arizmendiarrera
- 15 Arantzazu Zabaleta
- 16 Ander Elortza
- 17 Nerea Agirrezabal
- 18 Nora Madariaga
- 19 Elsa Manso
- 20 Iraitz Arizabaleta

Energia nola erabiltzen den aztertu dute Eskolako Agenda 21eko neska-mutikoen

Askotariko ekintzak egin dituzte diagnostikoa osatzeko eta antzemandako akatsak konpontzeko hainbat proposamen egin diete udal arduradunei

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Energiaren gaineko ikerketa eta hausnarketa sakona egin dute Eskolako Agenda 21en parte hartu duten ikasleek. Askotariko ekintzak egin dituzte diagnostikoa osatzeko, eta antzemandako akatsak konpontzeko hainbat proposamen egin diete udal arduradunei. Hilaren 11n egin zuten osoko bilkura berezia alkatearekin, euren ikerketaren emaitzak ezagutzera emateko. Elkar Heziko, Zuazola-Larraña intitutuko, Txantxiku ikastolako eta Errekalde herri eskolako 1.512 ikaslek jardun dute irailetik.

Energiaren erabileraren nondik norakoak hiru alorretan landu dituzte: curriculum mailan –gelan zer ikasten eta zer irakasten duten aztertu dute–; kudeaketa mailan –ikastetxearen egoera zein den ikertu dute–; eta parte-hartze mailan –energiarekiko herriko egoera aztertu–.

Lourdes Idoiaga alkateak adi-adi jarraitu zuen ikasleen diagnostikoaren nondik-norakoak, eta eurek proposatuakoa aintzat hartuko duela esan zien: "Gureta oso inportantea da egiten duzuen lana. Zuen ekarpenak aintzat hartuko ditugu, eta jakin



Osoko bilkuren aretoa lepo, umez eta politikariz. | MIREIA BIKUÑA

ezazue, edozein unetan zabalik dituzuela udaletzeko ateak, bestelako proposamenak egiteko".

Kontsumo baxuko bonbillak

Eskolako Agenda 21eko ikasleek salatu zuten, besteak beste, kultura etxean bero larregi egiten duela, eta kontsumoa jaistea beharrezkoa dela; herri barruan autoaren erabilera mugatu egin beharko litzatekeela; kontsumo baxuko bonbillen erabilera bultzatu beharko litzatekeela; eta, etxe-tresna elektriko eraginkorrak

erosteko laguntza eman beharko luketela. Azken horren gainean alkateak esan zien: "Etxe-tresnak saltzen dituzten enpresek hobariak ematen dituzte A motako gailuak erostearren".

Beste hainbat galdera ere egin zituzten: *Azkoagaingo fokoen argitasuna eraginkorra da?; Zergatik jarri dituzue salgai merkatuko eguzki-plakak?; Zer da kiroldegi-kogenerazio sistema?.* Alkateak eta osokoan zeuden udal teknikariek guztiak erantzun zituzten, banan-banan.

DATUA

1.512

IKASLE

Horiek dira jardun duten ikasleak: Txantxiku ikastola, Elkar Hezi, Zuazola-Larraña institutua eta Errekalde herri eskolakoak.

Ikasleen konpromisoak

Energiaren gaia landu ondoren ateratako ondorioak, eta har ditezkeen neurriak ezagutzera emateko kanpaina bat egingo dute. Informazioa zabaltzeko tokiko hedabideak erabiliko dituzte. Euren asmoa da ekainean, uztailan eta irailean egitea. DBHko hiru ikastetxeetan, gai bana aukeratu eta landuko dute.

Dena den, ondorio positiboak ere atera zituzten. "Egoera asko hobetu dela jabetu gara. Bidegorria aurrera doa eta itxura ederra dauka; farola berriak jarri dituzte; Led argiak dituzten semaforoak ipini dituzte, eta Gabonetan energia kontsumoa asko murriztu duzue. Hori guztiori txalotzekoa da", esan zuten.

Ikasleek hainbat konpromiso hartu dituzte: argia piztuko dute beharrezkoa denean; oinez ibiltzen ahaleginduko dira; ur bero gutxiago erabiliko dute; dutexen iraupea murriztuz; eta etxean kontsumo baxuko bonbillak erabiliko dituzte, besteak bestea.

OHARRAK

ZENBAKI SARITUAK

San Migel Txiki jaietako zenbaki sarituak dira: lehenengo saria 6.501 (ordezkoa 1.435); bigarren saria 7.338 (ordezkoa 7.405); eta hirugarren saria 1.861 (ordezkoa 1.226). Zenbaki horiek balizkoak izango dira hilabetez.

MAIATZA BORROKAN

Nubi elkarteak afari-tertzulia antolatu du hilaren 26rako Oinarri elkartearen, 21:00etan. *Maiatza borrokan* lelopean antolatu dute ekitaldia da. Interesatuak nubieltarte@gmail.com edo 685 72 48 17 telefonoan eman behar dute izena, hilaren 23a baino lehen.

ZINEMA

Gaur 19:30ean da *Sin limites pelikula* ikusteko azken aukera. Kultura etxeko zinema aretoan. Bradley Cooper eta Robert De Niro dira protagonistak.

DEIALDIA

1946an jaiotakoek irteera berezia egingo dute ekainaren 4an. Hain zuzen ere, ekainaren 4an egingo dute. Interesatuak izena eman behar dute maiatzaren 28a baino lehen, Izarraitz tabernan edo Urrutia dendan. Antolatzailerak dei berezia egin diete guztiei irteeran parte har dezaten.



Oñati!

hamaikabat!



Gipuzkoa!

hamaikabat!

AMAIA INZA

OÑATIKO ALKATETZARAKO
HAMAİKABATEKO HAUTAGAIA



H1! POLITIKA EGITEKO ERA BERRI BAT AHALBIDETUKO DU

Hamaikabat Udaletxearean ateak eta lehiok irekitzeko borondatearekin dator, eta horrela politika egiteko era berri bat martxan jartzeko. Udal bizilagunen eta elkarten topaleku izan behar du, horrela adostasuna posible izan dadin eta oñatiarren arazoak konpontzeko benetan lan egin dezan.

Zuretzat lan egin nahi dugu

Gure jarrera ireki, gardena, parte hartzekoa, bakegile eta integratzailearekin.

Udaletxearean ateak herritarrei zabaltzeko eta udal arduradunekin harreman zuzena ahalbidetuz, Oñatiko bizilagunen eskaeren erantzun egokia lortzeko.

Kalean politika eginez, Oñatiarren eguneroko kezke so eginez, udalak bere bizilagunen arazoak konpontzen ahalegindu behar duelako.

Oñatiarren proiektua eraikitzeko, hiri kalitatean eta bertako ekonomian oinarrituta. Oñati kudeatzeko era berri bat. Desberdinen arteko elkarbizitza hobetzearekin ilusionatuta dauden pertsonen topaleku izan nahi dugu.

PELLO GONZALEZ

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIRAKO
HAMAİKABATEN HAUTAGAIA



AGINTEA ZUREA DA, nolako Gipuzkoa nahi duzun erabaki dezazun. Guk zuretzat lan egin nahi dugu. **ZURETZAT LAN EGIN NAHI DUT.**

Zuk nahi baduzu, hau da egingo dugun ekarpena:

- **Gobernu Onaren aldeko jarrera irmoa.** Gardentasunez jokatzeko duen gobernu eta aukeratzeko duten aurrean kontu ematen duena. Herritarrek parte hartu egiten dituen Gobernuak.
- **Gure enpresen berrikuntza eta lehiakortasunaren aldeko konpromisoa, krisitik indartuta atera gaitzen.** Enpresetan langileen parte hartzea bultzatuz eta lanpostuen sorrera sustatuz.
- **Gipuzkoako kohesio sozialaren alde egingo dugu lan.** Zerga sistema bidezkoago bat finkatuz, gehien duenak gehiago eman dezan. Eta iruzurraren aurkako borrokan jarraituko dut. Iruzurra egiten duenak, denok iruzurtzen baikaitu.
- **Guztionezko gizarte zerbitzuak sendotuko ditugu.** Duintasuna eta elkartasuna ardatz hartuta, guztiok elkarrekin aurrera egin dezagun.
- **Gipuzkoa akordio handien bidetik eraikiz.** Lurralde batu bat nahi dugulako, frentismorik gabe, inor baztertzen ez duena.
- **ETAren amaierarekiko exijentzia.** Biolentziarik gabeko eta bere justifikaziorik gabeko herria eraiki behar dugulako.

OÑATIK AUERRERA EGIN
DEZAN LAN EGINGO DUGU

ZURETZAT
LAN EGINGO DUGU



«Beti zuk aukeratutako kargu publikoa izatearen kontzientzia osoaz. Arduraz jokatu dut, babesa eman didatenei huts egin gabe».

ESKORIATZA

Patronatuak EAJri eskatu dio egoitzaren egoera arma gisa ez erabiltzeko hauteskundeetan

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako zaharren egoitzako Patronatuko Juntak eskatu dio EAJri egoitzaren egoera ez erabiltzeko arma gisa udal hauteskundeetan. EAJko alkategai Aitor Urrutiak zerrendaren aurkezpen ekitaldian esandakoen harira ateratu du prentsa oharra Patronatuak.

Egoera berriak aprobetxatu

Patronatuaren esanetan, zaharren egoitza kudeatzen duen Fundazioa ondo zuzentzea dago berari. Horregatik egoitzako zuzendari ohi eta egun EAJko alkategaia den Aitor Urrutiaren adierazpen publikoak ezagututa zera eskatu dio EAJri: "Euren alkategaiari ez uzteko herritarrek engainatzen jarraitzea, zuzendari izan zen bitartean nahikoa engainatu zituelako. Orduan egindako kudeaketa negargarriaren eta erakutsitako arduragabekeria-

ren ondorioz lan kontratua eten zitzaien eta lan-etete hori Eibarreko Lan Arloko 1 zenbakidun epaitegiak babestu egin zuten, hartutako erabakia bidezkoa zela aitortuz".

Gaineratu du arduragabekeria larri horren ondorioz 400.000 euro inguruko zorra duela egoitzak: "Zor hori zuzendariak ezkutatu egin zien Patronatuko Juntari, Udalarari eta baita Aldundiari ere".

Beste eskaera bat ere egin dio Patronatuak Eskoriatzako EAJri: "Erantzukizun instituzionalak dituen alderdia izanik, egoitzako egoerari buruzko hausnarketa zintzoa egin dezala eta egoera berriak aprobetxatuta (estatutu berriak; Aldundi eta Udalean kide berriak...), alderdikeriak alboratu, eta guztion artean egoitza aurrera ateratzea; batez ere, egoitzan bizi direnek bizi kalitaterik onena izan dezaten".

OHARRAK

BILDU KOALIZIOAREN JAIALDIA EGUENEAN

Hilaren 19an, eguena, jaialdia egingo du Eskoriatzako Bilduk, plazan (19:00). Argibideak eman eta herritarren kezka entzuteko elkartuko dira, beti ere, jai giroan. Hala bada, txistulariak eta txalapartariak izango dira, euskal kantuekin girotuko dute ekitaldia eta mokadutxoak ere eskainiko dute.

HIRU DIMENSIOTAKO PROIEKZIOA IBARRAUNDIN

Bihar eta etzi, hiru dimentsiotako argazki proiektzioa eskainiko du argazkigintza estereoskopikoan aditua den Jose Luis Feo arrasatearrak. Ibarraundi museoan dira proiektzioak (19:00).

Hiru dimentsiotako diapositibak erakutsi eta efektu optikoaren gainean jardungo du.

Kirol talde eta elkarteendako dirulaguntzen oinarriak ikusgai daude

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako kirol talde eta elkarteek 2011n garatuko dituzten jarduerak eta ekintzetarako dirulaguntzak emateko oinarriak onartu zituen udalbatzak apirilaren 15ean. Oinarri horiek jendaurrean jarri dituzte gura duten herritarrek aztertu ditzaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak

jarri eta iradokizunak egiteko. Ekainaren 14a arte egongo dira ikusgai –baita webgunean ere: www.eskoriatza.net.

Behin epe hori pasatuta iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, oinarri horiek behin betiko onartutzat emango dituzte bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

ARETXABALETAKO

Jolaslekua jarri dute Iralabarri plazan eta barandak Otaloran

Bi gune egin dituzte Iralabarrin: txikiendakoa eta 6 urtetik aurrerakoendakoa



Iralabarri plazako jolasleku berria, txintxaun dotoreekin hornituta. | M.A.



Barandak loreontziekin Otalora jauregiaren eta elizaren aurrealdean. | M.A.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Egokitze lanak bukatzen dabilta egunotan eta laster gertu izango da Iralabarri plazako jolasleku berria. Txintxaun moderno eta dotoreak jartzen dabilta azken asteotan eta bi gune bereizi dituzte: bata, 3 eta 6 urte arteko umeendakoa eta bestea, 6 eta 10 urte artekoendakoa.

Udal ordezkariak uste dute ume asko ibiltzen dela inguru horretan, ikastetxeak gertu daudelako, eta hala, hutsik zegoen plaza biziberritu egingo dutela.

Barandak loreontziekin

Bestalde, Otalora kalean, parrokiaren eta Otalora jauregiaren aurrealdean barandak jarri dituzte, loreontziekin apainduta. Egunotan ibili dira lorezainak loreak landatzen eta lanak dagoneko bukatuta daude.

Udal ordezkarien esanetan baranda horien helburua da bidegurutze horretan dagoen zebra-bidetik pasatzea bidea oinezkoek: "Oinezkoek lasterbideak hartzen dituzte bertan dauden zebra-bideei kasurik egin barik eta horrek askotan arriskuak dakartza". Eta jakinarazi dute azkenaldian pare bat susto egon direla.

Jolas tradizionalak ezagutzen

Debagoieneko eskola publikoetako 10 urteko ikasleekin –Lehen Hezkuntzako 4. maila– bete zen Aretxabaletako Herriko Plaza egubakoitzean, hilak 13. Jolas tradizionalak ezagutu eta jolasean jardun zuten eguraldia lagun, tartean, soka-saltoan, gomarekin, diabolarekin, boloetan, kromoekin, txapekin...



M.A.

Elizateak ere herriko partaide!

eman botoa

eskoriatzako elizateen elkarteak



Lehen Hezkuntzako umeak, udalbatzako hiru zinegotzi eta udal idazkaria, osoko bilkuren aretoan. | LZ

ELGETA

Hauteskunde atarian herriko umeen eskaerak entzun dituzte politikariek

Eskolako jolastokiaren eta Bolatokiko kantxaren egoera hobetzeko eskatu dute herriko neska-mutikoek Eskolako Agenda 21 programaren ekitaldian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Agintaldiko azken osoko bilkura oso berezia izan da; eskolako umeek ikasturtean zehar Eskolako Agenda 21 programaren barruan landutakoak azaldu zizkieten Oxel Erostarbe alkateari eta Ana Gillegi, Patxi Basauri eta Edurne Alberdi zinegotziei. "Aurten energiaren gaia landu dugu", azaldu zieten hasiera-hasieratik.

Patruila berdea

Ikasturte honetan ere mota askotako ekintzak garatu dituzte eskolako umeek. Behaketak egin, diagnostiko bat ondorioztatu eta ikusitako akatsei konponbideak jartzen saiatu dira. Gainera, patruila berdeak ere osatu dituzte. Eskolako ikasle guztiak izan dira, txandaka, patruila berdeko kide. Patruila berdeko domina

soinean dutela, zortzi egunez behaketa lanak egitea eta energiaren erabilerari buruz fitxak betetzea egokitu zaie.

Proposamenak Udalari

Neska-mutikoek konpromiso batzuk hartu dituzte, baina udal ordezkariari hainbat proposamen ere zuzendu dizkiete.

Herritarren artean eraginkortasun energetikoaren inguruko informazioa zabaltzeko eskatu dute, baita autoa modu eraginkorrean gidatzeko ikastaroak antolatzeko ere. Herrian autoa partekatze sistemaren bat martxan jartzea komenigarri ikusten dute eta herritarrendako laguntza eskatu dute etxean jasotzen dituzten elektrizitate eta gas fakturak ulertzeko. Gainera, Udalak energia berriztagarriak bultzatzeko egiten duena azaltzeko eskatu

dute, eta herriko iturriak errebitsatzeko. Gustura azaldu dira Udalak eskolako berotze-sistema hobetzeko egindako lanekin, eta herriko hainbat farola konponatzeko eskatu dute.

Kantxa eta jolastokia

Eskatzen hasita, umeek hainbat eskaera egin zizkieten udal ordezkariari. Eskolako jolastokiaren eta kiroldegiko inguruaren egoera kezkatzen ditu gehien. "Eskolako futbol zelaiako ateak oso zaharrak dira, zelaiaren erdian zulo bat dago eta ingurua txakur kakaz beteta dago. Gainera, belarra moztu egin behar da eta hesia apurtuta dago", adierazi zuten. Bolatokiko kantxa, berriz, oso hondatuta dagoela uste dute.

Eskaera mordoa jaso dute udal ordezkariak. Kontuan hartuko dituztela adierazi zuten.

ANTZUOLA

Lizarragatik Galartza auzora ura eramateko proiektua idatziko dute

Behin proiektua idatzita, urriaren 21erako egin beharko dira lanak dirulaguntza jasotzeko

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den eguazteneko osoko bilkuran aho batez onartu zuten Laskurain Handi baseritik Galartza eta Uzarragako baserrietara ura eramateko saneamendu eta horniketarako proiektua idaztea. Ingenieria 21 izeneko enpresak idatziko du proiektua, 12.000 euroko aurrekontuarekin.

Lanak egiteko 25.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak Debagaraiatik; urriaren 21erako egin beharko dira lanak dirulaguntza hori jasotzeko.

400 kv-ko lerro elektrikoa

Gueñes-Itxaso 400 kv-ko lerro elektrikoak Antzuolan izango duen eragina izan zen bilkuran

eztabaidatu zuten beste gaietako bat. Hirigintza eta Zerbitzuen batzorde informatzaileak egindako erabaki-proposamenaren arabera, lineak eragin handiena izango du babes eta zaintza bereziko N1 eremuan. Linearen 600 metro babes bereziko eremu horren gainean doaz. Proiektuari alegazioak aurkeztea onartu zuten aldeko 7 boto (udal gobernu, Aralar-Zutik-EB eta PSE-EE) eta 3 abstentziorekin (EAJ).

Legealdia bukatzen ari denez, herriko bandera eta herri gutuna emango zaie zinegotziei, bilkuran aho batez onartu ondoren. Hurrengo ohiko osoko bilkura ekainaren 8an izango da.

ARAMAIO

Urdaibaiko Madariaga dorretxea bisitatzeko irteera hilaren 21ean

Zuiako koadrilak antolatu du familia guztiari begira; Aramaiotik 09:00etan irtengo dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Zuiako Koadrilak familia guztiarendako irteera antolatu du Urdaibaiko Madariaga dorretxera. Zapatuan da, hilak 31. Bisita gidatua izango da, eta goizean egingo dute Madariaga dorretxera bisita.

EAEko biodibertsitatea eta naturaren ezagutza sustatzeko helburua du zentroak eta biodibertsitatearen garrantzia azpimarratzeko premiarekin sortu zen. Hau da, biodibertsitateak gizakioi ematen dizkigun onurak eta espezieen desagertzearrekin galtzen duguna ezagutzera ematea da Urdaibaiko zentroaren xede nagusia. Bisita gidatuaz gain, Txatxarramendiko irlara ibilaldia egingo

dute eta Laidara ere joango dira, itsaso tartearen itsasontzian gurutzatu ostean. Arratsaldean, berriz, haurrendako tailerrak egingo dituzte, eta gurasoek denbora libre izango dute gura dutena egiteko.

Bazkaria etxetik eraman

Egun osoko plana da: 09:00ak aldera irtengo dira eta Aramaiora ez dira 20:00ak arte itzuliko. Hala, antolatzaileek jakinarazi dute bazkaria etxetik eraman behar dela edo bestela han erosi. Hona autobusaren eta sarreraren prezioa: 0 eta 2 urte artekoek doan izango dute, 3 eta 12 urte artekoek sei euro ordaindu beharko dute eta 13 urtetik gorakoek, azkenik, zazpi euro.



Urdaibaiko Madariaga dorretxea. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako etxeen ardura Paul Aznalendako

Lau urterako hartuko du mendi etxeen ardura eta ekain erdirako zabalik izan gura ditu

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako mendi etxeen deialdira eskaintza bakarria aurkeztu da eta hari ematea ardura erabaki zuen udalbatzak eguenean, hilak 12, egindako ezohiko osoko bilkuran. Paul Aznal Larrañagak kudeatuko ditu Gaztainuzketako zazpi mendi etxeak datozen lau urteotan. Izatez Debakoa da baina Gatzagan bizi da orain, eta ostalaritza zereginetan eskarmentu handia du, Soran Etxean hotellean egiten duela lan. Hain zuzen hainbat urtetan mendi etxeen ardura izan zuen eta egun Soranen ugazaba den Loren Larrañagaren senidea da.

Orain hamabost bat eguneko epea du agiri guztiak aurkeztu eta kontratua sinatzeko Aznalek. Amaren laguntza izango duela etxeen kudeaketan

jakinarazi du, eta asmoa da ekainaren 1ean sartu eta ekain erdirako zabaltea: "Urteko sasoirik onena da orain, udaberri eta uda partea, eta lehenbailehen hasi gura dugu lanean, dagoeneko nahiko berandu gabiltzalako", dio. Ilusioz ekingo diote lanari, naiz eta jakin egoera ekonomikoak ez duela laguntzen. Hala ere, ostalaritza zerbitzuen eskaerak zertxobait gora egin duela uste du eta hori aprobetxatu gura dute.

Museo eta dendaren luzapena

Bestalde, gatz museoaren eta Labidea dendaren kontratuak luzatzea onartu zuen udalbatzak joan den eguenean. Aitziber Gorosabelek du horien ardura eta bi aldeak konforme izanik beste urtebetez luzatzea erabaki dute.

LA REVISTA
EUSKAL HERRIA
ALDIZKARIAK AURKEZTEN DU



Mundumira

La fiesta de las culturas del mundo Munduko kulturen festa

ELGETA . DEBAGOIENA

Maiatzak 27, 28, 29 mayo 2011

LOS DELINQUENTES

JEREZ DE LA FRONTERA

Dub Inc FRANCIA

The Billie Jeans EUSKAL HERRIA

Habana con Kola CUBA

Mery May + AIN_1 ARRASATE

Andrakan EUSKAL HERRIA

Kukubiltxo EUSKAL HERRIA

La Troba Kung-Fú CATALUNYA

Jorginho MÚSICA BRASILEÑA

Moya Kalongo MOZAMBIQUE

Oreindik EUSKAL HERRIA



EH-ko BOULDER Txapelketa

NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN AZOKA, UMEEN GUNEA, KALE ANIMAZIOA, ARTISAUTZA ETA MUNDUKO ZAPOREAK, ELKARTASUN FOROA...

www.mundumirafesta.com - 902 18 14 71

<p>ANTOLATZAILEAK</p> <p>EUSKAL HERRIA www.euskalherria.aldizkaria.com</p> <p>DEBAGOIENKO MAHOMUNDAIA TUNISI</p> <p>ELKARTASUN FOROA</p>	<p>BABESLE NAGUSIAK</p> <p>kutxa</p> <p>Gizartearen Foru Mende Departamento Foral de Gipuzkoa</p>	<p>BABESLEAK</p> <p>ULMA</p> <p>EUSKADI</p> <p>MONDRAGON UNIBERTSITATIA</p> <p>eker</p> <p>TERNUA</p> <p>Obra Social Fundación "la Caixa"</p>	<p>KOLABORATZAILEAK</p> <p>goiena</p> <p>San Miguel</p> <p>inguru</p> <p>PEPSI</p> <p>ALZOLA</p> <p>radio euskadi</p> <p>teletrean</p>
--	---	---	--



Mondrako entrenatzaile eta jokalaria irabazitako kopa aurrean dutela pozik. | JULIO CALLEJA

AINHOA ALONSO
MONDRAKO JOKALARIA

"Ez neukan batere argi zer egin baina azkenean atera botatzea erabaki dut eta asmatu"

Lan ona egin zuen Ainhoak partidu guztian eta garaipenaren gola sartu. **Gogorra izan da partidua baina lortu duzue.**

Bai, partidu zaila izan da, oso borrokatua, baina iaiztik geunden Eibarri irabazteko gogoz, orduan eurek irabazi zigutelako, eta azkenean lortu dugu. Benetan pozik gaude.

Hirugarren gola, garaipenaren gola zeurea izan da, oso polita gainera.

Bai, azkenean atera zaigu jokaldia. Nik baloia hartu dut, jendea ikusten nuen alboan baina ez neukan oso argi zer egin, eta azkenean atera botatzea erabaki eta oraingoan asmatu egin dugu.

Eta datorren denboraldian maila bat gorago?

Arabarrek ez direla igoko esan dute eta hala bada hiruko tornea jokatu beharrik ez da egongo. Erronka horri gogoz ekingo diogu eta onena emateko gertu gaude.

FUTBOLA EMAKUMEZKOAK

Eibarri irabazita Mondrako neskek txapeldunak

- ▶ Eibarren bi golak Mondrako hutsegite larrien ondorioz izan ziren
- ▶ Ainhoa Alonsoren gol bikainak garaipenera eroan zituen arrasatearrak



Maitane Roa baloia ez galtzeko borrokan. | JULIO CALLEJA

EMAITZA	
MONDRA	
3-2	
EIBAR	

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Gipuzkoako txapelketako kopa Mondrako neskek daukate. Horren bila joan ziren Azkoagain futbol zelaira (Oñati) zapatu eguerdian, jakinik Eibar talde indartsua zutela aurrez aurre. Eta gogor borrokatu ondoren, 3-2 gailendu zitzaion, merezimendu osoz.

Lehen zatian galtzen

Mondraren gola partidua hasi eta segituan etorri zen, 7. minutuan; kornerra atera eta Vanesak buruarrekin sartu zuen. Hala ere ez zen batere partidu samurra izan. Tentsio handia egon zen zelaian, urduritasuna nagusi, eta bai alde batekoek bai besteak akats asko egin zituzten. Akats larri horien ondoren etorri ziren Eibarkoen bi golak. Lehenengoa 17. minutuan; Oihana atezainaren eta defentsen arteko gaizki ulertua izan zen eta erne zegoen aurrelari eibartarrak gola sartu zuenç.

Eta bigarrena 23. minutuan izan zen; atezainak ateratako baloia galdu zuen Mondrako atze-

lariak eta atezainak baloia urrundu nahian Eibarko aurrelaria bota zuen. Epaileak penaltia adierazi zuen orduan, Mondrakoak konforme egon ez arren; gola sartu zuen Ainhoa Letek. Mondrakoek borrokan jarraitu zuten, nahiz eta zelai erdian baloi asko galdu eta ezin iritsi aurkarien atera. 38. minutuan Eibarko Laura Mendikatek min hartu zuen orkatilan, eta anulantzian eroan behar izan zuten.

Ainhoaren gol bikaina

Berdinketaren gola bigarren zatia hasi eta berehala etorri zen, 5. minutuan. Maitane bakarrik geratu zen Eibarko atezainaren aurrean eta honek lurrera bota zuen aurrera egin ez zezan; penaltia adierazi zuen orduan epaileak, eta Maitanek berak sartu zuen

gola. Berdinketak piztu egin zituen arrasatearrak eta emaitzari eutsi nahian hasi ziren jokatzeko. Eibartarrek hainbat arrisku momentu sortu zituzten, baina Arrasateko neskek ez zeuden etsitzeko. Eta garaipena partidua bukatzeko bost minutu geratzen zirenean etorri zen; Ainhoa Alonsok oso gol polita sartu zuen goitik botata. Eibarko Lara atezainaren aurrean zer egin jakin barik geratu eta galdu aurretik botatzea pentsatu zuen; baita barrura sartu ere. Arrasateko zaleak pozarren saltoka hasi ziren orduan eta partidua lehenbailehen bukatzeko eskatzen epaileari.

Bigarren mailako taldea

Behin partidua bukatuta ospatzeko unea iritsi zen: jokalaria pozik saltoka eta elkarri besarka, eta harmailetan zeuden arrasatearrak, oihuka. Txapelketa irabazi zutela ziurtatzen duen kopa jaso zuten gero Gipuzkoako Futbol Federazioko ordezkarien eskutik, eta zaleekin batera ospatu zuten garaipen hori.

Datorren denboraldian bigarren mailan jokatu dute, baldin eta Arabako taldeak uko egiten badio mailaz igotzeari. Gaur jakingo da hori.

Bestetik, gaur GOIENAKO Harmailatik saioan Mondrako kideak izango dira kontu kontari Xabi Urtzelai kazetariarekin.

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Oihana, Aritz, Garazi, Vanesa, Ainhoa, Alaine, Ane, Olatz (Andrea Paredes, 67. min.), Maialen, Rakel eta Maitane.

Eibar: Lara, Miren (Lorea, 26. min.), Laura (Naiara, 38. min.), Nerea Blasco, Nerea Gantxegi, Andrea (Maider, 60. min.), Nagore, Leire (Ione, 73. min.), Alana, Ainhoa eta Laura (Elisabeth, 60. min.).

Epaileak: Aritz Reguero; eta haren laguntzaileak: Jon Garcia eta Iñigo Alkorta.



Roa kapitaina kopa hartzen, jokalarien txalo artean. | JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaletarendako hiru puntuak derbi parekatuan

Gol bakarra UDAk egin zuen (0-1) nahiz eta jokalaria bat gutxiagorekin egon bigarren zati hasieratik

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Aloña eta Aretxabaletaren arteko derbiak ikusmin handia sortu zuen atzo Azkoagainen. Partidu oso parekatua izan zen, bai alde batekoen, bai bestekoen aukerekin. Baina azkenean gola aretxabaletarrek egin zuten.

UDAKo atezaina bikain

Indartsu ekin zioten derbiari bi taldeek, indar fisikoan oinarritutako jokoa eginez. Aretxabale-

tarrak fisikoki indartsuagoak ziren eta Aloñakoak mendeen hartu zituzten lehen minutuetan. 20. minututik aurrera baloi oso onak lapurtu zituzten oñatiarrek eta konbinaketak tarteko UDAkoen atera iritsi ziren: "Baloi luzeekin ezin genuela jokatu konaturatu gara eta aldatzea erabaki dugu", argitu zuen Aloñako entrenatzaile Oruetak. Hala ere, etxe-koen golik ez zen iritsi, UDAko atezain Iker bikain ibili zelako

partidu guztian, eta geldiketa politak egin zituelako. Hala bada, husnako emaitzarekin bukatu zen lehen zatia.

Etxaberi txartel gorria

Bigarren zatia hasi orduko Beñat Etxaberi txartel gorria atera eta jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen UDA. Ondoren erasoan atera ziren UDAkoak, eta Aloñako hainbat huts tarteko gola sartu zuen Ibaik 51. minutuan.

Handik aurrera Aloñakoak baloia jokatzen hasi ziren, Aretxabaletakoak atzean geratu bitartean, baina golik ez zen iritsi nahiz eta aukerak izan: "Gutxienez berdinketa merezi genuela uste dut, eta penarekin geratu naiz; hala ere, pozik nago taldearen jarrarekin", zioen Oruetak.



Aretxabaletako atezain Iker baloia eskuartean duela, bi taldeetako jokalarien begiradapean. | M.A.



PREFERENTEA

UDAKo Jon Iregi kapitainari agurra

Lazkaoren aurka zapatuan jokatutako partidua izan zen azkena Aretxabaletako erregional preferenteko kapitain Jon Iregiendako eta oroigarria eman zioten taldekideek urteotako lana eskertzeko. Ondoren, partidua berroa jokatu zuten, Lazkaokoek irabazi beharra zutelako mailari eusteko. Aretxabaletarrek azken minutuan berdindu zuten (2-2), eta irain asko entzun behar izan zituzten epaileek.

OHOREZKO ERREGIONALA

Galdu egin zuen Bergarak Trintxerperen aurka (1-0)

Pasaian jokatu zuten bergarrek zapatuan eta esku-hutsik itzuli ziren etxera. Puntuak eskuratu gura zituzten Trintxerpek atzeko postuetatik hurruntzeko eta lortu egin zuen. Bergarak 46 punturekin jarraitzen du, eta zortzigarren postuan dago. Datorren partidua Rotetaren aurka jokatuko du etxean.

OHOREZKO ERREGIONALA

Buelta eman zion partiduari Mondrak eta irabazi (3-2)

Hiru puntuak eskuratu zituzten Mondrak zapatuan, Idiazabalen aurka. Galtzen hasi ziren etxe-koak eta bigarren zatira arte itxoin behar izan zuten buelta emateko markagailuari. Hiru gol egin zituzten jarraian gero, eta Idiazabalek penaltia sartu arren, emaitzari eusten jakin zuten arratsatearrek.

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

OTALA ZELAIKO KROSA

Varela eta Talavera nagusi korrikalari kopuruak beheara egin duen krosean

Gaztetxoan lasterketetan Leintz aldeko neska-mutiko asko elkartu ziren zelai inguruan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Eguraldi freskoa lagun izan zuten atzo goizean, 33. Ojala Zelaiko herri lasterketako korrikalariak. Aurreko urteetan baino lagun gutxiago hurreratu ziren Urkulu urtegiari itzulia emateko -8.410 metro-, 48 guztira, baina giro polita sortu zen helmuga inguruan. Yerai Varela oñatiarrak ez duela aurkaririk Urkulu inguruan erakutsi zuen beste behin, eta emakumezkoen artean Rosi Talavera nagusitu zen Marisol Ramosen aurretik.

Beñat Arnaiz laugarren

Oñatitiko etorritako hiru lagun, tartean Varela, lasterketa buruan jarri ziren hasi orduko eta erritmo bizia jarri zuten. Haien atzetik ibili ziren gainerako lasterkariak, aurretik zihoazekin gehiegi kezkatu barik. Ibilbidean aurrera egin ahala Varela banandu egin zen taldetik, azken kilometroak bakarrik eginez. Eta helmugan ere ez zuen aurkaririk izan estutzeko (denbora: 26:00). Haren atzetik sartu ziren Oñatiko bi lagunak Ouaalit Walid eta Sergio Garcia (26:32). Aretxabaletarren artean lehenengoa -laugarren sartutakoa- Beñat Arnaiz triatleta izan zen (28:03).

Emakume gutxi hartu zuen parte, seik bakarrik, eta guztien artean nagusi Hendaiako Rosi Talavera izan zen (32:21). Urteetan aurrera joan arren, 50 urte, oraindik sasoi onean dagoela erakutsi zuen, eta lehenengotik jarri zen aurrean. Haren atzetik sartu zen Marisol Ramos oñatiarra (33:06) eta hirugarrena izan zen Maitane Aizpuru (38:18). Aretxabaletarren artean, ostera, Anabel Aranzadi izan zen lehenengoa (41:37).

Gaztetxoan lasterketak

Helduen krosa baino lehen, gaztetxoan lasterketak izan ziren, eta neska-mutiko asko gerturatu ziren zelaiaren inguruan jokatu-tako txapelketara; 141 guztira. Hona txapelkunak: benjaminetan (buelta bakarria zelaiari), Josu Aizpurua eta Lide Larrea; kimue-

tan (bi buelta), Beñat Axpe eta Elene Errasti; eta haurretan (hiru buelta), Julen Garaik eta Ainara Merino. Julen Garaik gero helduen krosean ere hartu zuen parte.

Asier Muxika Kirol Zerbitzuetako teknikaria pozik agertu zen parte-hartze kopuruarekin: "Promozio lehiaketa bihurtu da Ojala Zelaiko txapelketa, eta gaztetxoak korrika egitera animatzeko aparteko eguna da. Helduen parte-hartzeak beheara egin du aurten, baina, horiek beste mila aukera dituzte korrika egiteko. Hortaz, oso pozik gaude gaztetxoan artean arrakasta handia izan duelako".



Yerai Varela oñatiarra, azken urteotako txapelketa, helmugan sartzen. | JULIO CALLEJA

YERAI VARELA | TXAPELDUNA MUTILEN ARTEAN

"Igoera eta jaitsiera asko ditu ibilbideak eta uste ez arren gogorra da"

Azken urteotan irabazi du lasterketa.

Tamaina hartuta diozu ibilbideari.

Hainbat urtetan etorri gara eta ibilbidea ezagutzea beti da abantaila.

Zelan joan da gaurko lasterketa?

Batera entrenatzen dugun taldeko hiru lagunek elkarrekin hasi dugu. Neu hasi naiz erritmoa ezartzen, baina gero bakoitzak bere lasterketa egiten duenez aurreratu egin naiz.

Ez da ibilbide luzea baina helmugara iristeko aldapa dago.



Yerai Varela. | M.A.

Urtegi inguruko ibilbideak igoera eta jaitsiera asko ditu eta gogorra da; eta helmugarako aldapa ez da samurragoa.

Eguraldi freskoa izan da, horrek lagundu du?

Bai, euririk ez du egin eta giro ona izan da korrika egiteko.

Hainbat oñatiar etorri izan zarete urtero; gustuko duzue Urkulu lasterketa?

Bai, etxetik oso gertu daukagu eta oso paraje polita denez asko etorri izan gara.



Ouaalit eta Garcia elkarrekin helmugan, Varelaren ostean. | JULIO CALLEJA

ROSI TALAVERA | TXAPELDUNA EMAKUMEZKOEN ARTEAN

"Hendaiatik etorri behar izan arren oso gustura nator paisaia zoragarria delako"

Hainbat aldiz etorri da Ojala Zelaira eta beti aurrean ibili izan da.

Zelan lasterketa?

Oso bizkor ateratzen naiz; Marisol Ramos ikusi dut eta arazoak eman-go zizkidala pentsatuta aurreratzea erabaki dut. Ondo nengoen eta bukaerako aldapa gogorra egin bazait ere gustura bukatu dut.

Ibilbidea ezagutzen zenuen aurretik, ezta?

Bai, hainbat urtetan etorri naiz eta Hendaiatik etorri behar izan arren oso gustura nator paisaia zoraga-



Rosi Talavera. | M.A.

ria delako. Gainera egin dituzten lanekin oraindik politagoa dago.

Gogorra da ibilbidea?

Bai, buelta asko dau eta bukaerako aldapa horrek gehiago gogortzen du. Horregatik indarrak gorde behar izaten dira.

Lasterketetan jarraitzeko asmoz?

Apur bat nekatuta nago urte asko daramatzadalako. Hain lehiakorra izan barik gozatzen hasi gurako nuke hemendik aurrera.



Rosi Talavera helmugan sartzen. | JULIO CALLEJA



Gaztetxoan lasterketako txapelkunak dominekin. | JULIO CALLEJA

DATUA

141

GAZTETXO

Krosa baino lehen egindako gaztetxoan lasterketetan 141 neska-mutikok hartu zuten parte: 79 benjamin, 55 kimu eta 7 haur.

LAUKO FINALA

Puntu batengatik galduta, Eskoriatzako neskek finaletik kanpo geratu dira

Fernando Rasoren neskek hobeto jokatu zuten aurkariak baino, baina azken segundoan galdu

EMAITZA

MURKIL ZAST
59-58
ESKORIATZA

IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Eskoriatzako neskek Lauko Finalako partidua jokatu zuten zapatuan Zarautzen, eta ezin izan zuten irabazi.

Eskoriatzarrak nagusi

Partidu oso gogorra eta orekatua izan zen, baina Fernando Rasoren neskek Zarautzekoek baino hobeto jokatu zuten. Eskoriatzarrak oso fin ibili ziren eta kantxara sartu ziren lehen minututik gogotsu ibili ziren. Horrela, lau eta bost puntuko abantailak lortzea eskuratu zuten, baita zortzikoa ere. Baina, zarautzarrek behin eta berriro berdintzen zuten partidua.

Jaurtiketa libreek min

Rasoren neskek beldur barik ibili ziren erasoan eta defentsan ere ongi; nahiz eta, hutsegite batzuk egin. Hain zuten, arerioa-

ren jaurtiketa libreek min asko egin zieten eskoriatzarrei. Hala, arerioak 24 puntu lortu zituen modu horretara. Zarautzarren jaurtiketa libreak mozte aldera, falta ugari egin zituzten eskoriatzarrek eta hiru jokalarik kalera bidali zituzten epaileek, bost pertsonal egiteagatik. Hiru jokalarik garrantzitsu horien hutsunea ondo aprobetxatu zuten zarautzarrek. Izan ere, pibot jokalarik oso altuak dituzte eta une hori baliatu zuten saskiratzeak egiteko. Hala ere, Eskoriatzako ordezkoak ongi aritu ziren eta lortu zuten partiduari eustea.

Azken jokaldi eztabaidatua

Partidua amaitzeko lau minutu gelditzen zirenean, Rasoren neskek huts egin zuten saskiratzean eta etxekoak gerturatu egin ziren markagailuan. Azken segundoan, berri, zoritxarreko jokaldi bat gertatu zen: Zarautzeko jokalarik batek baloia lapurtu eta eskoriatzarren saskiraino gerturatu zuten. Han Rasoren bi neska zituen itxaroten. Murkil Zast taldeko jokalariek urratsak egin zituen, baina epaileek falta adierazi zuten. Ondorioz, bi jaurtiketa libre botatu eta horietako



Eskoriatzako neskek lan oso ona egin zuten. | AITZIBER SORIANO

bat sartu egin zuen. Horren ostean etorri zen partidua amaiera.

Lastima eta poza

Eskoriatzarrek jokatu zuten partidua bikainaren ostean, azken unean galtzea lastima izan zen eta jokalariek izugarriko pena zuten. Hala ere, pozik azaldu ziren eginiko lanarekin eta Lauko Finala jokatzeko sailkatzea lortu zutelako. Horixe adierazi zion Ane Sanchez jokalariek: "Oso pozik gaude, izan ere, horrelako partidua jokatzeko orduan izaten duzun sentipena ezin daiteke gainontzeko partidutakoekin alderatu. Baina amorrux pixka bat ere sentitzen dut azken segundoan galdu dugulako. Fernando Raso entrenatzaileak honakoa esan zion: "Kirola batzutan ez da justua izaten".



Eskoriatzatik Zarautzera autobusean joan ziren jarraitzaileak. | A.S.

BIGARREN MAILA SENIOR

Soraluce BKEko mutilak seniorren lehen mailara igo dira, Eibarren zapatuan erraz irabazi ostean

- ▶ David Urbinaren mutilak hasieratik nagusitu ziren, garaipen malgua lortu zuten (39-86)
- ▶ Dagoeneko mailaz jaitsita zegoen arerio ahula izan zuten aurkari mahoneroek



Begararrak igoera ospatzen partidua amaieran. | JULIO CALLEJA



Soraluce BKEko mutilak gogor defentsan. | JULIO CALLEJA

I.G. | BERGARA

Soraluce BKEko mutilak mailaz igo dira. Zorionak! Zapatuan jokatu zuten partidua Eibarren eta irabazi egin zuten (39-86). Horrela, sailkapenean laugarren amaitu dute denboraldia eta igoera lortu. Lehen hiru taldeak igozten dira kategoriaz, baina hirugarren gelditu denak dagoeneko badu beste talde bat seniorretako lehen mailan; eta, beraz, Bergarak hartuko du bere tokia.

Garaipen erraza

David Urbinaren mutilak lehen unetik izan ziren nagusi kantxan. Horrela, 0 eta 8ko partzialarekin hasi ziren irabazten. Eskuratu-tako abantailari eutsi, eta aldeak nabarmen ziren lortu zuten: atsedendirako 23 puntuko nagusitasuna lortu zuten (22-45).

Arerio erraza izan zuten aurrean Bergarak. Eibar dagoeneko beheko mailara jaitsita zegoen eta ez zuen joko onik egin, ahul aritu zen. Gainera, defentsa gogorrari aurre egin behar izan zion, Urbinaren mutilek ondo babesten dute euren zona.

Mahoneroek afari on batekin ospatu zuten igoera.

PILOTA

Mendizabal eta Irureta nagusi Debarroko txapelketan

Ozkarbi taldeko pilotariek bikote indartsua osatzen dutela garbi utzi zuten

EMAITZA
KADETEAK
22-05
LAGUNAK

EMAITZA
GAZTEAK
22-07
BERGARA

EMAITZA
SENIOR
22-10
OZKARBI

MAIDER ARREGI | ONATI
Senior mailako partiduan, Ozkarbi biko bikoteak maila paregabea erakutsi zuen. Mendizabal aurrean fin ibili zen eta denetik egin zuen. Atzean, berriz, Iruretak ondo dominatu zuen pilota eta partidua erraz irabazi zuten. Tanto politik eskaini zituen Mendizabalek pilota erakustaldi ederra eman. Hasieran, partidua nahiko parekatuta egon arren, aurrea hartu zieten Jauregi eta Muguruza bergararrei.

Gazte mailan, Gallastegi oso ondo aritu zen; partidua berari esker irabazi zutela esatea ere ez litzateke gehiegizkoa. Hain justu, Rezustak atzean oso lan gutxi izan zuen, Iriondok ez zion-eta burukomin eta neke handiegirik eman.

Kadete mailako partiduan, berriz, kolore gutxi ikusi genuen. Pilotarien arteko aldea nabarmena zen. Kortabarria eta Garatek aise irabazi zien bergararrei.

Gorpuzkeran gehiago ziren Elgoibarko pilotariak eta kantxan igarri egin zen hori. Indarrez apurtu zituzten Gabilondo eta Diez aurkariak, eta ez zen lehia gogorrik egon.

Pilotari onenak

Nahikoa lan izan zuen epai-mahaiak hiru finalerako pilotari onenak aukeratzeko. Kadete mailan, Kortabarriarendako izan zen garaikurra. Atzean sekulako lana



Aitor Mendizabal fin aritu zen aurrean. | MAIDER ARREGI

egin zuen pilotari gazteak eta kadete mailako pilotari onena aukeratu zuten. Gazte mailan Gallastegik, aurrean erakutsitako mailagatik eskuratu zuen

txapela. Partidu osoa lan gehien berak egin zuen. Eta seniorretan, GRAVN irabazi berri duen Mendizabalendako izan zen pilotari onenaren saria.



JONATHAN GARATE ETA IBAI KORTABARRIA
LAGUNAK-ELGOIBAR

"Irabazi egin dugu, baina partidu osoa jokatu egin behar da. Partidua hasi aurretik ez dago irabazita. Aurkariak lana eman digu; batez ere atzealdean oso gogor ikusi ditugu. Egun ona izan ez duten arren, ondo defenditu dira. Txapela etxera eraman dugu eta gustura gaude egindako lanarekin. Txapelketako zortzi partidua irabazi ditugu eta pozik gaude. Gogorrena, azkena izan da, Itziarren jokaturakoa".



MIKEL GALLASTEGI ETA BEÑAT REZUSTA
BERGARA

"Atzo partidua jokatu geunden arren, gaur oso ondo ikusi dugu gure burua. Atzean nahiko lasai; aurrean izan dugu lan gehien. Txapelketa osoan partidua bakarra galdu dugu, Arrasateren kontrako. Elgoibarkoek lan handia eman izan digute aurreko partiduetan, baina, gaur ez dira oso ondo aritu. Txapelketan izan dugun partidu gogorrena lehena izan zen. Elgoibarkoek 14 tanto egin zizkiguten eta larri ibili ginen".



IÑIGO IRURETA ETA AITOR MENDIZABAL
OZKARBI

"Hasieran urduritasun puntu batekin geunden. Nahiko erraz irabazi dugu, eta bai atzean, eta baita aurrean ere, ondo moldatu gara. Gozatu egin dugu partidu osoan zehar. Ezkerrera pilota dezente sartu ditugu eta gustura gaude emaitzarekin eta egindako lanarekin. Hasieran, nahiko parekatuta ibili gara, baina, azkenean, txapela guretzako izan da. Txapelketako partidu guztiak irabazi ditugu".

APUSTUA

Zuazubiskarrek makinarekin aurre hartu zion Iturbe segalariari Udalako desafioan

Herritar ugari gerturatu zen Santa Ana hoteleko zelaira apustua ikustera

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Euriak ez zuen zapatu eguerdian egindako sega apustua zapuztu. Belarra mozteko ondo zegoela ikusita, aurrera egitea erabaki zuten Josu Zuazubiskarrek eta Javi Iturbek. Bata makinarekin eta bestea segarekin, 20 minututan moztu zuen Zuazubiskarrek lur-saila makinaz. "Erritmoa mantendu egin behar da, hor dago gakoa. Euri arina egin du eta belarra mozteko erraz zegoen".

Makinak esku lanari irabazi arren, lehen minutuetan aurrea Iturbek hartu zion segarekin. "Nekatuta baina ondo. Hasieran aurrea hartu diot, fresko nengoen-eta. Orain Santa Ana hotelean bazkaria ordainduko diot Josuri, merezi du-eta". Biak, sasoi betean daudela garbi erakutsi zuten. Hortxe errebantxarako aukera!



Bi apustugileak txapela jantzita. | MAIDER ARREGI

BATZARRA

Irizar jauregian egingo du gaur arratsaldean batzarra Bergarako kirol elkarteak

Batzarra kultura etxean egin behar bazuten ere, leku aldaketa egin behar izan dute, eta Irizar jauregian batuko dira; 19:00etan da lehenengo deialdia, eta 19:30ean bigarrena. Kirol Elkartearen estatutuak aldatzeko asmoz sail ezberdinetako ordezkariak batuko dira. Estatutu berrien kopia bat nahi duten bazkideek helbide honetara idatziz egin dezakete: bergarake@gmail.com.

SINADURA EKITALDIA

Athletic-eko jokalariek sinadura ekitaldia egingo dute eguaztenean Elgetan

Iker Muniain, Javi Martinez eta Fernando Llorente Elgetan izango direla agindu du Athletic-ek. Pozik hartu dute albistea Elgetan, izan ere, lagunartean egin zuen aurkezpen ekitaldian kale egin zuten Athletic-eko jokalariek. Egun horretan Elgetako umeak jokalarien sinadurarik eta erretratu barik itzuli ziren etxera. Horri buelta eman nahian talde zuri-gorriak konpromisoa hartu du eguaztenean, 18:30ean, sinadura ekitaldia egiteko.

ELKARTASUNA

Esku-pilota eta frontenis txapelketa antolatu dute Magaliri laguntzeko

18 urtetik gorakoendako esku-pilota eta frontenis txapelketak izango dira; azken hau presio moteleko pilotekin jokatu da. Maiatz eta ekaineko aste bukaeratan jokatu dira txapelketak kopa sistema bidez, 22 tantotara. Lehenengo faseak Angiozarreko frontoian jokatu dira eta finalak udal pilotalekuan, Bergarako jaietan. Informazioa: magalitxapelketa.wordpress.com.

Beñat Labaien | Futbol entrenatzailea

"Norberak bere mugen gaineretik jarri behar ditu helburuak, eta hortik aurrera, gogor lan egin"

- ▶ Beñat Labaien 17 urterekin abiatu zen Madrilera, futbol entrenatzaile izateko ikastera
- ▶ Atletico de Madrilgo harrobian eta Espainiako Futbol Federazioan egin du lan

JOKIN URIBETXEBERRIA | ARRASATE

Sei urte pasa dira Beñat Labaien (23 urte) bergararrak maletak egin eta Madrilera futbol entrenatzaile izateko asmoarekin joan zenetik. Denbora tarte horretan kirol munduarekin erlazionatutako bi ikasketa eta bi titulu eskuratu ditu, eta zenbait futbol taldetan aritu da entrenatzaile lanetan.

Zer dela-eta joan zinen Madrilera bizitzera?

Madrilera 17 urterekin etorri nintzen, futbola deitzen den amets batengatik. Hemen Espainiako Futbol Federazioarekin hitzarmen bat duen Camilo Jose Cela unibertsitatea dago, eta Ciencias del Deporte y de la Actividad Fisica (INEF) ikasketak egin bitartean entrenatzaile nazionala izateko titulua ateratzeko aukera eskaintzen du. Hori izan zen Madrilera etortzearen arrazoia.

Noiz erabaki zenuen futboleko entrenatzaile izan nahi zenuela?

Txikitatik izan dut entrena-tzaile izateko grina hori. 12 urte nituela, nire anaiak Aranzadi ikastolako futbol taldean jokatzeko zuten eta ni jada aulkian egoten nintzen. Betidanik izan dudana ilusioa da. Bergarako futbol taldean gazte mailara arte jokatu nuen, eta jokalaritza nintzen ere beti arduratzen ninduen joko ulertzeak, gauzen zergatiak ulertzeak eta abar. Egia esan, gehiago erakarri izan nau beti entrena-tzaile izateko berdegunean aritzeak baino.

Besteak beste Atletico Madrilgo harrobiko hainbat taldetako entrenatzaile izan zara. Bizi izan dituzun esperientzia horietatik zerk bete zaitu gehien?

Atletico Madrilgo harrobian bi urte pasa nituen alebin eta infantil mailetan. Lehenengo urtean txapeldunak izan ginen Getaferen aurretik eta egia esan, orain arte gutxi ikasi dudana urtea izan da. Ondoren Parla eskolako aukera suertatu zitzaidan eta bederatzi jardunaldien ostean 4 puntu batu eta kalera bota ninduten arren, gehien ikasi dudanezko esperientzia izan da.

Iazko martxoan Jose Mari Amorrorturen deia jaso eta gazte mailako lehenengo taldearen bigarren entrenatzaile izateko aukera eskaini zidan. Onartu egin nuen eta bertan Fran Alcoy-ekin batera aritu nintzen lanean. Alcoy hainbat urtez ibili da Cartagenarekin mundu profesionalean eta asko irakatsi didan pertsona izan da.



Beñat Labaien, Madrilgo etxeko bakoian. | BEÑAT LABAIEN



Beñat eta bere ikaskidea Dirk Kuyt jokalariekin, Melwood-en. | B.L.



Entrenatzaile aulkian. | B.L.

Liverpoolen ere izan zinen Rafa Benitezekin. Kontaiguzu nolako izan zen esperientzia hori.

Polita izan zen. Nire ikaskide den lagun batekin joan nintzen hara 2008ko aurreneboraldian, Rafa Benitezek lana nola egiten zuten ikusi eta aldi berean ikastera. Ia egunero joaten ginen Melwood-era entrenamenduak ikustera. Hantxe Liverpooloko prestatzaile fisiko zenaren Paco de Miguel eta lehenengo taldeko jokalariekin batera bazkaltzen ginen. Rafa Benitez ere geratzen

"Segurtasunekoari urdaiazpikoa emanda iritsi ginen Benitezengana"

"Alebinekin txapeldun izan ginen urtean ez nuen batere ikasi"

zen gurekin noiz edo noiz. Ez dut erraz ahaztuko uda hura. **Eta nola lortu zenuten Liverpool taldearen tripetaraino sartzea?**

Liverpoolera asteazkenean iritsi eta hurrengo goizean Melwood-era joan ginenean segurtasuneko gizonarekin egin genuen topo. Benitezekin hitz egitea nahi genuela esan genion eta berak ezezko borobila eman eta ea zorabuta geunden esan zigun. Ostiral goizean berriz joan ginen hara baina oraingo urdaiazpiko bat eskuan genuela. Berau segurtasuneko gizonari eman eta oraingo Benitezekin hitz egingo zuela eta hurrengo goizean berriz etortzeko esan zigun.

Larunbatean hirugarren egunez jarraian joan ginen Liverpoolen entrenamendu gunera eta oraingo berri onak eman zizkigun segurtasuneko gizonak. Astelehenean goizean joateko esan zigun eta halaxe egin genuen. Benitez nortzuk ginen, nondik gentozen eta zer nahi genuen azaldu, eta Melwood-eko atea adeitasun osoz ireki zizkigun. Hurrengo hilabete osoa hantxe pasatu genuen teknikari talde eta jokalariekin batera.

Zein da zure ametsa?
Elite mailan tituluak irabaztea, horretarako egiten dut lan. Norberak bere mugen gaineretik jarri behar ditu helburuak eta hortik aurrera, helburu horiek lortzeko gogor lan egin. Bihotza izan behar da gure ametsen gidaria eta ez burua, azken honek beti mugak jarriko baitizkigu. Nik ez dut nahi errealista izan, harago joan nahi dut. Horrekin amesten dut eta egunen baten lortuko dudalakoan nago.

Ze entrenatzaile duzu erreferente moduan?
Inoiz ez dut izan idolorik, ez jokalaritza eta ezta entrenatzaile bezala ere. Hala ere, Manuel Pellegriniren Vila-Real gustatzen zitzaidan baloia jokatzeko zuen eragatik, eta Jose Mourinho bere taldeek baloia galdu edota berreskuratzeko momentuan erakusten duten jarreragatik.

Eta, taldean ere giro ona dago, ez daude taldetxoak eta horrelakoak. Noski, gauza batzuetarako jerarkia oso argi dago, esaterako, entrenatzailearekin berba egin nahi dugunean, ala zerbait eskatu. Orduan Ocio, Orbaiz... nabarmetzen dira. Jokalarion artean, baina, ez dago halako alderik.

Momentu honetan zein proiektutan zaude murgilduta?
Datorren urterako dena prestatzen nabil orain. Bitartean Milinco Pantic-ek Atletico Madrilgo fundazioarekin batera duen campusean entrenatzen dut. **Zer esango zenioke entrenatzaile izateko ametsa duen gazte bati?**

Ez dut uste aholkuak emateko pertsona egokiena naizenik. Hala ere, nire esperientziatik abiatuta, bokazioa izan behar duela eta futbolaren mundua asko gustatu behar zaiola esango nioke. Eta batez ere amets egiteko, hori baita helburuak lortzeko eman beharreko lehenengo pausoa.

HEZIKETA

Nerea Agirre: "Betaurreko berriak jantzi eta aukerak mugatu gabe hezi behar dugu"

Haurren identitatearen eraikuntzan pisu handiegia dute generoaren arauak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Guraso.com atariko kolaboratzaile Nerea Agirrek hausnarketarako gai interesgarria plazaratu du; "Zer gertatzen zaigu gurasooi gure haurrari bere generoarenak kontsideratzen ez diren jolas, jostailu, arropak... gustatzen zaizkionean?". Betaurreko berriak ipintzeko proposamena egiten digu eta modu horretan gure seme-alaben logelako dekorazioari, jostailuei, arropoi... arreta ipintzeko eskatzen digu. Guraso askok sentitzen dugun presio sozio kulturalari buruz dihardu bere artikuluan, izan ere beldurra ematen digu hain definituta dauden patrioetatik ateratzeko.

Aniztasunean hezi

Agirreraren esanetan gure zeregin guraso moduan haurrei nahi duten jolasekin ibiltzen laguntzea da, "aukerak mugatu barik eta bide horretan lagunduz", dio.



Anai-arrebak sukaldearekin jolasten. | CLAUDIO LOBOS

"Inguruak ematen die esanahia eta konnotazioa ekintzei eta ulertu behar dugu haurrek euren esanahia ematen dietela ekintza horiei, guk emandakotik oso urruti dagoen esanahia".

Azazkalak margotzea, kolore larrosako jantziak soinean ipin-

tea, futboleko jolastu nahi ez izatea... gehiago kezkatu beharko genuke haurren aurrean erabiltzen dugun hizkuntzarekin, euren dako aukeratzen ditugun ipuinekin edo arropekin eta haurren artean sexu orientazioa anitza zabaltzearekin.

Errespetu faltaren atzean gauza asko egon daitezke, tartean autoritate falta

Juan Carlos Alonsok dio ondo desberdindu behar direla autoritatea eta autoritarismoa

L.Z. | ARRASATE

"Gauza asko egon daitezke errespetu faltaren atzean", dio Juan Carlos Alonso psikologoak. "Arau eta muga falta, balore heziketa eskasa, denbora falta, trebetasun sozial falta, haurrekiko errespetu falta...". Autoritate krisia ere badagoela dio psikologoak.

Ondo ulertutako autoritatearen aldeko aldarria egiten du Alonsok. "Ez da agintea edo boterea izatea, hori autoritarismoa da". Desberdintasunen artean galdetuta Alonsok dio autoritatea helduak 'heldu' izanda lortzen dela; "erabakiak, mugak eta arauak ipintzerakoan zentzuzkoak, bidezkoak eta koherenteak izanda".

Hezteko denbora hartu

"Haurrek jakin behar dute zer dagoen ongi eta zer gaizki. Denbora eskaini behar diegu eta trebetasun sozialetan hezi behar ditugu. Gauzak 'mesedez' eskatzen ikasi behar dute eta esker-erak ematen ere bai. Zaindu egin behar dugu umeek ikusten eta entzuten dutena; etxean zein telebistan. Horrek eragin zuzena du euren jokabideetan zein jarreretan. Eta gauzak zaintzen erakutsi behar diegu. Gizarte kontsumista honetan ia guztia hartu, erabili eta bota egiten dugu eta gauza bat erosi orduko beste bat nahi dute. Azkenik, eredu izan behar dugu. Haurren errespetua haurrak errespetatuz lortzen da".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

JAKINGAI

Solar Decathlon lehiaketara

Isaac Galarraga
Arizmendiko irakaslea

Lehenengoz parte hartuko du aurten Euskal Herriko talde batek Solar Decathlon lehiaketan, Madrilen. Euskal Herriko Unibertsitatea aurkeztuko da lehiaketara Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako eraikuntza-zikloaren laguntzarekin. Solar Decathlon nazioarteko arkitektura lehiaketa bat da eta haren oinarria ulertzeko etxebizitza pasiboaz hitz egin behar dugu lehenengo.

Etxebizitza pasiboa

Etxebizitza pasiboa esaten zaio energetikoki autonomoa den etxebizitza bati. Hau da, etxebizitza bat gai denean kanpotik inongo energiarik hartu gabe gastu txikia duen energia hori jasotzeko, pilotzeko eta banatzeko. Era horretako etxebizitzek karbono dioxidoa zero isurketa hurbildu nahi dute, eta,

horregatik, Europako Parlamentuak proposatutako klima aldaketari aurre egiteko eredu bat izan nahi dute.

Munduko energia kontsumoaren %40 eraikuntzek eragiten dute eta horiek isurtzen duten karbono dioxido-gasek berotze globala eragiten dute. Hori saiheste aldera, gure erai-kinetan ahalegin handia egin behar da energia kontsumoa murrizteko. Lau alor orokor izan behar dira kontuan: diseinu bioklimatikoa aintzat hartzea, isolamendu termikoa handitzea, energia instalazioen eraginkortasuna areagotzea eta energia iturri berriztagarriak erabiltzea.

Zailtasunak ere badaude

Baina nola lor daiteke emaitza onekin munduko klima desberdinetara egokitzea? Hori da etxebizitza pasiboaren arazorik handiena eta eredu bat lortzea ez da batere erraza. Etxebizitza prototipo asko saiatu dira etxe-

bizitza pasibora eta zero isurketa mitikora iristen, baina oraindik prototipoak besterik ez dira. Hala ere, dagoeneko badaude hainbat eredu ziurtariak lortzeko. Hemendik urte batzuetara araudia zorrotz egingo da eta behar-beharrezko neurriak hartu beharko dira nahiz eta oraindik "zero emisioa" lortzea oso zaila izango den. Hala ere, ari dira saiakerak egiten.

Ameriketara jotzen badugu, hori guztia garatzeko sortu zen hain zuzen ere Solar Decathlon nazioarteko arkitektura lehiaketa. Bertan parte hartzeko unibertsitate bakoitzak etxebizitza bat diseinatu eta eraiki behar du non energia norberak ekoiztu behar duen. Hamar proba gainditu behar dira saria jaso ahal izateko - hortik dator kio izena lehiaketari; Decathlon, eta eguzkia da energia ekoizpen iturri nagusia. Etxebizitza horiek astebete iraun behar dute operatiboki.



Lehiaketara aurkeztutako etxebizitza proiektua.

DECATHLON LEHIAKETAKO 10 AZTERKETAK

1. Diseinu arkitektonikoa	200 puntu
2. Sistema eta analisi energetikoa	150 puntu
3. Analisi ekonomikoa	150 puntu
4. Etxearen webgunearen bisitak	100 puntu
5. Konfort termikoa	100 puntu
6. Etxetresna elektrikoaren eraginkortasuna	100 puntu
7. Ura berotzeko eguzki-sistema	100 puntu
8. Argizatze sistema naturala	100 puntu
9. Balantze energetikoa	100 puntu
10. Mugikortasuna	100 puntu

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA

Arrakastaz estreinatu da 'Buah txabal' antzezlanaren funtsa

- ▶ AEDk ekoiztu, Unai Iturriagak idatzi eta Jon Zubiagak aurkezten du 'Buah txabal'
- ▶ Nerabe batek euskararekin duten harremana da antzezlanaren funtsa

I.GALLEGO / M.ARREGI | ARRASATE

Jon Zubiaga *Osoron* arrasatearrak Garikotz Kortabitarte izeneko 20 urteko gazte baten papera hartu du. Buah txabal!! esaldia 45 minututan eta ikuslea gogaitu gabe zenbat aldiz errepikatu daitekeen, hori behintzat egiaztatu zuten ikusleek. Zergatik buah txabal? Hori delako, hain justu, *Osoronek* egubakoitzean gaztetxean eskaini zuen antzezlanaren izenburua: *Buah txabal*.

AEDk ekoiztutako, Unai Iturriagak idatzitako eta *Osoronek* berak moldatu eta antzeztan duen lana da *Buah txabal*. Bere baitan, nerabe euskaldun batek euskararekin duen harremana oinarri duena. Bereziki, gazteen eleaniztasunaz jarduten den ikuskizuna eta nerabeen artean ohikoak diren egoera batzuen gaineko galderak planteatzen dituena: Zergatik mintzo dira etxean euskaraz eta kalean erdaraz? Eta hori horrela, zergatik dira Euskadiko selezioaren partidu batera edo Kilo metroetara doazenean inor baino euskaldunago?



Jon Zubiaga Arrasateko gaztetxean, emanaldian zehar. | JULIO CALLEJA

Mugikorra galdu, mundua erori

Garikoitz Kortabitarte *Beti* lokalean isolatuta bizi den gazte bat da. Behingoan kalera atera eta berriz lokalera iristean konturatu da sakelekoa galdu duela. Hor hasiko da *Beti* aipatutako hausnarketa eta gogoetekin; 45 minutuko emanaldian ateratzen da ligatzearen gaia eta emakumeak, eta bereziki eta esan bezala, euskara. Hausnarketa sakonak egingo ditu bakarrikzeta horretan *Betik*, betiere, umorea erabiliz.

Hizkuntza arina eta ulerkorra erabiltzen da uneoro eta askotan, ikuslegoaren konplizitatea eskatzen du. Gaztetxean elkartu ziren adin guztietako pertsonak, oso ondo erantzun zuten une horietan.

Nahiz eta hasiera baten 17 urtetik gorako gazteei zuzendutako antzezlanaren izenburua, edonork ikusteko modukoa da, izan ere, *Osoronek* dioen moduan, "denok pasatu ditugu nerabezaroko urte

zail horiek, eta guztiok sentitzen gara identifikatuta adin horretako kezka eta zalantzekin. Nire kasuan, gainera, lokal bat ere izan nuen, eta are gehiago".

Lepo bete zen egubakoitzean Arrasateko gaztetxea *Buah txabal* ikusteko; 160 lagun zehatz esanda. Ikusleak barre algaraka aritu ziren emanaldi guztian zehar. Horiek horrela, jakizue, *Betik* ez duela sakelako telefonoa aurkituko. Ezta neska laguna ere.

JON ZUBIAGA | MUSIKARIA ETA ANTZEZLEA

"Urduri nengoen, baina gustora gelditu naiz arrasatearrek izan duten harrerarekin"

Jon Zubiaga arrasatearrak badu tau-lagainean esperientzia. Gose taldeko gitarra eta baxu jotzailea eta antzezlea, gustura gelditu zen Arrasateko gaztetxean eskainitako emanaldiaren ondoren.

Aurrez ere eskaini duzu, ezta?

Bosgarren emanaldia izan da hau. Markinan egin nuen estreinaldia, eta Berrizen, Abadiñon eta Basaurin eskaini dugu. Arrasateko saioa izan zen denetatik gogorrena, urduritasunak tarteko.

Eta, Gustora?

Gaztetxea lepo bete zen. Agertokian nengoela jendea sartu eta sartu ikusten nuen eta ni ere harritu egin nintzen. Adin guztietako jendea etorri zen. Nire familia guztia ere hantxe zegoen, lehenengo ilaran. Egia esan behar badut, emaitzarekin eta jendearen harrerarekin oso gustura gelditu naiz.

Unai Iturriagak idatzitako testuarekin nola konpondu zara?



Jon Zubiaga. | JULIO CALLEJA

AEDk ekoiztu eta euskara elkarteak berak proposatutako gaiari Unai Iturriagak eman zion forma. Berak idatzi zuen gidioa eta nik moldaketa batzuk besterik ez ditut egin. Moldaketak egin eta antzeztu ere bai, noski. Ustedut lan txukuna gelditu dela.

Hurrengorik badago?

Maiatzaren 19an Irunen, Kabigorri Ateneoan, eta 20an, Lasarteko Jalgi tabernan eskainiko dut emanaldia.



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

KRONIKA

Musikaren laguntzaz Andaluziara bidaiari

FITXA

MUSIKA

PUREZA IKUSKIZUNA

Ikuskizun mota: Flamenkoa.

Non: Arrasateko Amaia Antzokian.

Eguna: Maiatzak 13, egubakoitza.

Iraupena: Ordu eta laurden.

MIREN ARREGI | ARRASATE

Agertokian lau kide. Aitor Escobar gitarra-jotzen, Malagako Miguel de Miguel abeslari lanetan, Angel Lopez gasteiztarra perkusioan, eta *La Kuka* dantzaria mugimendu flamenkoekin emanaldiari indar berezia ematen.

Pureza ikuskizunak flamenkoaren purutasuna ekarri zuen Arrasatera. 9 urtez kanpoan izan da Escobar gitarra-jotzaile arrasatearra, eta tarte horretan idatzitako kantuek eskaini zizkioten ikusle goari; hark harrera beroa egin zion bai Escobarri eta baita ikuskizunari ere.

Flamenkoa, bere osotasunean

Flamenkoa egitura askotarikoetan eskaini daiteke. Kantuan batetik, gitarraz bestetik, dantzaz... Bada oraingoan, guztien uztartzea



Pureza ikuskizuna Amaia Antzokian egubakoitzean. | MIREN ARREGI

zegoen ikuskizunaren oinarrian. Sekulako indarra eta energia zerion ikuskizunari eta txalo zaparradak etenik gabe entzun ziren Amaia Antzokian.

Aitor Escobarrek taula gainean bakarrik hasi zuen emanaldia. Haren gitarra doinuek berehala eraman gintuzten Andaluziara.

Ondoren igo ziren taldekideak, eta hasi zen festa. Hura zen sentimendua, hura zen kolorea!

Emanaldian zehar tartekatutuztuzten abesti mugituagoak lasaiagoekin. Federico Garcia Lorcarri eta *Manzanita* abeslariari ere egin zioten omenaldi xumea, *Yo te quiero verde* abesti ezagu-

naren moldaketa baten bitartez. Amaia Antzokian bildu ziren herritarrak irribarrez eta pozik atera ziren handik. Indartuta, flamenkoaren doinuek barruak astindu eta energiak bete izan balie bezala. Taldekideek, asko eskertu zuten Arrasatek egindako harrera.

'Bon Appétit' filmeko protagonistak, Oñatin

A.B. | OÑATI

Bon Appétit filmak zuzendari berriaren saria lortu du aurtengo Goya sarietan. Nolabait Oñatiko ukitua duen filma da: argazki zuzendaria Aitor Mantxola oñatiarra da-eta.

Bada, maiatzaren 20an, egubakoitza, *Bon Appétit* filma eskainiko dute Oñatiko kultur etxean. Emanaldiaren ondoren zinema-foruma egingo dute filmeko protagonistekin. Kultura etxean izango dira, besteak beste, David Pinillos zuzendaria; Aitor Perosterena, atrezzoaren duena; Unax Ugalde aktorea; eta Aitor Mantxola bera.

Gonbidapenak eskatu behar

Aurrez zine komertzialean eskaini zuten *Bon Appétit* filma; orain, baina, bertsi originalen eskainiko dute, azpitituluekin. 19:00etan izango da emanaldia eta ondoren zinema-foruma egingo dute aipatutako protagonistekin.

Parte hartu ahal izateko gonbidapenak eskatu behar dira kultur etxean, 16:30etik 20:30era. Pertsonako bina sarrera emango dituzte.



GUREA

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64



Gose talde arrasatearra izan zen lehena taula gainean. | JULIO CALLEJA

Gose eta Emon taldeen trikiti doinu dantzagarriekin bergararrak asetuta

Adin askotariko jendez bete zen gauean herriko plaza

MAIDER ARREGI | BERGARA

Nahikoa dantza eginda erromeria giro paregabea izan zuten zapatu gauean bergararrak. Gose eta Emon taldeen zuzenekoek ez zuten inor hotz utzi.

Lehena taula gainean, Gose taldea. Arrasatearrek giroa bero-bero utzi zuten. Bergararrak harrera bikaina egin zioten hirukoari eta herriko plaza bete egin zen. Gaztetxoek zein helduek disfrutatu zuten Goseren trikiti doinu elektronikoeekin. Azken diskoko abestiak eta korrikakoa izan ziren besteak beste entzungai. "Hemen dantza egitea kosta

egiten zaigu, baina giroa berotzea lortu genuen. Jende gaztea askeago zegoen eta lehen ilaran dantzaka ikusi genituen", azaldu digu Osoron gitarra jotzaileak. *Lokartu arte* edo Korrikako abesti ezagunekin dantzan ikusi genuen plaza. "Eszenatoki bakoitzak dauka bere xarma. Leku txikietan izerdi gehiago eta jendearekin kontaktu gehiago duzu. Plazan, berriz, gure kontzertura inoiz etorriko ez zen jendea ikusten duzu". Kontzertu agenda bete beteta dute arrasatearrek. Hurrengo zuzenekoak honakoak: maiatzaren 21ean Abadiñon eskainiko

dute kontzertua eta hilaren 29an, Ondarroan ospatuko den Ibilaldiaren festan.

Ondoren, Emon bergararrak igo ziren eszenatokira. Urte bete zeraman taldeak etxean jo barik. Zuzenekoan gustura aritu ziren. Lehen diskoko abestiak izan ziren entzungain, baina sorpresarik ere izan zen eta disko berrirako prestatzen ari diren abestiak ere eskaini zituzten. Bukaera borobila, nola ez, *Piztu herria* kantuak eman zion Erromeria egunari. Durangorako bigarren lana kale-ratzeko asmoa dutela ere esan digute.

Ehun artelan baino gehiago BEART-en bigarren festan

30 artistak beren lanak ikusgai ipini zituzten domeka eguerdian udaletxeko arkupetan

MAIDER ARREGI | BERGARA

Zirimiriak ez zuten Beart-en festa zapuztu. Ehun bat artelan batu zituzten udaletxeko arkupetan. Artistek erabilitako tekniken artean denetarik: akriliko, olio, tintaz, arkatzez edo akuarelaz egindako lanak. Paisaiak nagusi izan arren, erretratuak, margo abstraktuak eta egurrezko zein metalezko eskulturak ere ikusgai zeuden.

Bazkaria eta omenaldia

Eguerdian artista guztiak bazkaria egin zuten. Arratsalde partean, berriz, Nahikari taber-

nako Bittor Pozari omenaldia egin zioten. Pozak 25 urte daramatza tabernan erakusketak egiten muxu truk. Xabier de Zerio eskultorearen arte lana jaso zuten oroitza gisa.

Xabier de Zerio eskultoreak, bizirik dagoen estetika bilatzen duela kontatu zigun; euskal tradizioari jarraituz, espazio hutsekin jolas egiten duela bere eskulturetan. Bingen de Pedro Beart-eko lehendakariak egunaren gaineko balorazio positiboa egin zigun. Herritarren artean, harrera beroa izan duela festak azpimarratu zuten.



Udaletxeko arkupetan batu zituzten BEART taldekoek euren lanak. | J.C.



Huhezinemako sarituak, sari-emaileak eta aurkezleak. | ARANTZAZU EZKIBEL

'El Metodo Julio' laburrak irabazi du ikusleen saria

Huhezinemak berrikuntzak izan ditu aurten: kartel lehiaketa egin dute eta baita aurkezle castinga ere

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA

Huhezinemaren laugarren edizioaren sari-banaketa ekitaldia egin zuten egunean Aretxaba-

letako Arkupe kultura etxean. Aretoa bete egin zen, eta ekitaldira joan zirenek emandako botoekin, Jon Garañoren *El Meto-*

do Julio filmak irabazi zuen publikoaren saria. Venezuelan, Caracas ondoko auzo gatazkatsu batean, arazoak dituzten hurrei irakurtzen laguntzen die irakasle batek Julio izeneko metodoa erabiliz.

Huhezinema aurten berrikuntzekin etorri da. Kartel lehiaketa egin zuten eta Karlota Castri-llok eraman zuen saria. Aurkezle castingean, berriz, Odei Esnaola eta Maider Juaristi izan ziren aukeratuak.

**ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA**

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011
maiatzak 21

ekainak 18
uztailak 16
irailak 17
urriak 15
azaroak 19

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Emplu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
hurbiltasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



SARI NAGUSIA



Asteburu bat Txohebenta landetxean

Hondartzatik lau kilometrotara!
Gosariak, mundialak!
Goza ezazu Txohebenta landetxean!

TXOPEBENTA LANDETXEAK

Basetxetas
GAUTEGIZ-ARTEAGA (Bizkaia)
Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
www.nekatur.net/txohebenta
www.toprural.com

MUNDUMIRA

3 sari sorta: kamisetak, liburuak eta Euskal Herria aldizkarian harpidetzak



2 zozketetan parte hartzeko

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez.

Bidali KLUBA LANDETXEAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozatea. Eskubidea izango duzu datuotzen sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

2011n atera etekina txartelari

AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99

■ Bi erosi eta bat ordaindu
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA

Arrasate, 943 79 13 39

■ %2 gasolindegian erregaia erositara.
■ %2 dendako produktuetan

AZKOAGA ENEA

Eskoriatza, 943 71 45 66

■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraketa).
■ %10 deskontua jatetxeko kartan.

Barceló

Arrasate, 943 79 70 11 / Bergara, 943 76 08 43

■ 1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI
(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldia, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21

■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR

Eskoriatza, 943 71 43 41

■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO SPORT

Eskoriatza, 943 71 52 96

■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55

■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77

■ -%10 zerbitzu guztietan
■ -%15 inplanteetan
■ Aho-garriketa doan,
■ 120 eurotik gorako tratamenduetan
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oriati, 943 53 35 48

■ Sukalde osoa erositara, mikrouhin-labea opari.

LILURA

Bergara, 943 76 31 71

■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).
■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.
■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75

■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN

Aretxabaleta, 943 08 21 89

■ -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72

■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15

■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN

Donostia, 943 46 44 00

■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jai egun, jai egun bezpera, zubia edo oporraldia)
■ -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
■ -%10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78

■ %10 deskontua.

goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

GURE MUSIKA TALDEAK

LINED



Lined taldeko kideak: Andoni, Oxel, Ruben eta Aitor. | LINED

"Hau ez da moda bat, thrash metala gustuko duenak beti entzungo du"

- ▶ Amorrua, agresibitatea eta abiadura ditu oinarri lehen diskoak
- ▶ Muturreko doinuak riff gogorrekin eta akorde melodikoekin batzen dituzte

MAIDER ARREGI | ARRASATE

2008an abiatutako proiektuak eman ditu bere fruituak. Batzuek berrundara dena beste batzuenak bizi izateko modua da.

Lau urte inguru daramatzazue agertokietan.

Taldea 2008ko udan sortu genuen Andonik, Oxelek eta Rubenek. Sei hilabete geroago Aitor sartu zen taldera baxu-jotzaile moduan. 2009ko irailean lehen kontzertua eman genuen. Eta zenbait zuzenekoaren ostean, 2010eko udan diskoa grabatu genuen eta apiril bukaeran iritsi zaizkigu CDaren

kopiak.

Intentsitate handiko zazpi abesti batu dituzue.

Bai. Denbora erdiko erritmoak daude, baina, era berean, sekulako indarra dutenak. Oso estilo metalaren influentzia badago, noski, eta baita death melodikoaren ere. Ez dugu beste talderik imitatu nahi.

Todavía queda gente ignorante q busca un dios... diozue.

Heriotzaren aurrean oraindik jendeak daukan beldurra eta Jainkoaren beharra dutenak asko dira.

Jainkoa bilatzeko beharra sentitzen dute, bizitza aseguru bat izango balitz bezala. Baina okerrera da ignorantzia hori ikusita iruzurgile askok aprobetxatu egiten dutela horren kontura bizi izateko.

Numen eta Brutal Melody moduko taldeek thrash metalari bultzada eta oihartzuna eman diote.

Gutxiengoa izaten jarraitzen dugun arren, tarteka talde berriren bat ere jaiotzen da. Gainera, sekulako maila dutela ikusi dugu. Hau ez da moda bat; horregatik, thrash metala gustuko duenak bizitza

osoan entzungo du.

Zeri abesten diozue?

Gizakiaren jarrerari abesten diogu, nagusiki, gure abestietan. Ignorantzia, beldurra, gorrotoa, gezurra eta diruzalekeria da nagusi gure gizarte honetan. Hitz bortitzak eta gogorrak erabiltzen ditugu, gure musikak eskatzen dizkigunak. Baina ez gara bortitzak, ezta satanikoak ere. Ez dugu hil-kutxetan lo egiten. [Barre] Musika hau gustuko dugun jende arrunta, normala gara.

Zuen barrua betetzen duten doinuak direla diozue.

Metala maite dutenei abesten diegu. Askok ez dute ulertzen eta gauza arraro bat izango balitz bezala ikusten dute.

Muturreko doinuak riff gogorrekin eta akorde melodikoekin batzen dituzue.

Bai, halaxe da. Doinu markatuena doinu gogorrenekin kontrastea egiteko aprobetxatzen ditugu; tartetan eta errepikapenen batean sartzeko ere aprobetxatzen dugu.

Grabazio prozesua nola joan da?

Auryn Studios-ko Tristane landu digu. Lokalean grabatu dugu eta hark egin du nahasketa eta masterizazio lana. Oso pozik gaude emaitzarekin!

Orain ze asmo duzue?

Kontzertuak ematea eta gure lana ezagutzera ematea. Kantu berriak egiten ere bagabiltza. Bost euroren trukean, Arrasateko taberna batzuetan dago CDa salgai. Abestiak entzungai: myspace.com/linedgrupo.

ZERTZELADA



'LINED'

Estiloa: Thrash metala.

Egilea: Lined (Arrasate, 2008).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 25 minutu.

Muturreko doinuak abiadura handian

Arrasateko Thrash metal talde gaztearen lehenengo diskoak hasieratik harrapatzen zaitu. Lehenengo abestitik bukaeraino muturreko doinu gogorrak ditu. Ahots urratua, abiadura eta riff gogorrak dira diskoaren ardatza.

Abestien letrak soinua bezain bortitzak eta zuzenak dira.

Gizakiaren jarrera, ignorantzia, beldurra, gorrotoa, gezurra eta diruzalekeria... Musikaren gogortasunak letra bortitzak eskatzen ditu.

Abiadura, riff indartsuak, abiadura, soinua gogorra, abiadura, akorde melodikoak eta abiadura handiagoa! Debut lana aurkezten dabilza, zure herritik pasatzen badira ez galdu aukera muturreko doinuez gozatzeko.

IMANOL SORIANO

Disko gogorrik gabeko ordenagailu merkeak saltzen hasiko da Google ekainean

'Chromebook' izena daukate eta Internetera konektatuta egiten dute lan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Ordenagailuek Chrome web nabigatzailea erabiliko dute sistema eragile moduan eta ekainaren 15ean ipiniko dituzte salgai Amazon eta BestBuy atarietan. Samsung eta Acer etxeak hasiko badira ere, edozein fabrikatzailek erabil ahal izateko moduko sistema eragile irekia dute *Chromebook*ek. Sarean nabigatzeko erraztasna eta erosotasun izango dira, Googlekoek diotenez, ordenagailu mota berri honen indarguneak, 8 segundoko abiatze batekin, Internetera konektatu eta guzti. Sareko konexioarekin eta hodeiko informazioarekin bakarrik, bestelako software barik, lan egiten duten erabiltzaileentzat bereziki diseinatuta dagoen ordenagailua da. Esan moduan bi izango dira fabrikatzaileak momentuz.



Acer etxeak aurkeztu duen modelo. | CLONICK.COM

Modelo bi, momentuz

12,1 hazbeteko pantaila eta 1200x800 pixeleko erresoluzioa dauka Samsungen modeloak, 1,48 kiloko pisua eta 8,5 ordu irauten du bateriak. Nukleo bikoitzeko 1,6 GHz-ko prozesatzailea darama barnean, 2 GB RAM, 16 GBko flash memoria, WiFia, hautazko 3Ga, bi USB sarrera, memoria-

txartel irakurgailua, miniVGA irteera, mikrofonoa, kamera. 11,6 hazbeteko pantaila, 1,34 kiloko pisua eta sei orduko iraupena duen bateria. Prozesatzaile berdina du Acerren ordenagailuak eta bi USB sarrera, memoria- txartel irakurgailua, HDMI bideo irteera eta definizio altuko audio euskarria. wSamsungenak 303

euro balio du 3G bariko modelook eta 353 euro 3Gdunak. Acerrekoaren kasuan 247 euro balioko du merkeenak.

Gainera, Googlek enpresa eta hezkuntza erakundetzako plan bereziak iragarri ditu eta asmoa ei da enpresei 20 eurotan eta erakundeei 14 eurotan saltzea harpidetza bitartez.

Google Music abian, katalogo barik eta hodeiko biltegi moduan soilik

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Probarako moduan eta momentuz Estatu Batuetan soilik, baina Googlek ere bota du bere enbidoa musika streamingaren azkenaldiko eskaintza-uholde honetan. Googlen asmoek ez dut inor ezustean harrapatu baina iragarpen ofiziala Google I/O 2011 topaketen barruan gertatu da, aurrekoa asteen. *Google Music Beta* izenarekin eman dute ezagutzera eta Android eramangarrien plataforma hartuko du oinarri. Musika hodeian biltegitratzeko zerbitzua da, ez dute berezko katalogorik eskainiko, ezta, momentuz abestiak erosteko aukera.

Biltegi on-line

Antzerako zerbitzuen moduan hodeian biltegitratuko da musika eta streaming bidez entzun ahaliko. Spotify edota iTunesen ez bezala, ez dute katalogo bat eskainiko, musika gordetzeko espazio bat baizik. Espazio horren neurria oraindik ez dute zehaztu baina probak egiteko gonbidapenak eska daitezke dagoeneko (Estatu Batueran bakarrik) eta baliteke beta moduan denbora luzez egotea bestelako zehaztapenik ez baitute egin. Zerbitzu honekin batera filmak alokatzeko aukera ere dagoeneko martxan dagoela iragarri dute.



Google Music Betaren iragarkia. | GOOGLE

Microsoftek erosi du azkenean Skype

J. B. | ARRASATE

Azken hiru hamarkadetakako erosketarik handiena egin du Microsoftek eta ematen du Microsoft Live zerbitzuan etorriko dela aurrerantzean integratuta Skype. Komunikazio zerbitzuaren 686 milioi dolarreko zorrari ere egin beharko dio aurre Bill Gatesen erraldoiak baina, aldi berean, bereganatu egingo dituzte Skypen erregistratuta dauden 663 milioi erabiltzaileak. Tratua 8,5 bilioi dolarretan itxi dute.

Kontu bitxia izan da ze azken asteetan Google eta Facebooken artean kokatzen zuten hedabideek lehia baina azkenean Gatesen erraldoiak eskuratu du jatorri estoniaarreko komunikazio-software enpresa. Egun Luxemburgun daukate egoitza eta jakina da sasoi estua izan dutela azken urteetan finantziarioa dela-eta. Microsoften aldetik, Steve Ballmer burua izan da negoziazioen arduraduna. Halere, erosketak zalantza piztu da adituen artean.

KRONIKA



USOA AGIRRE

Euskaldunen sareak

Informatikari Euskaldunen Biltzarrean egoteak, aurreko eguenean, informatikari izan barik, estralurtar sentiarazi dakioke bati. Baina aurtengoan sare sozialak mintzagai izanda, komunikazioaren arloan lanean dihardugunoi asko ikasteko aukera eman ziguten bertako hitzaldiek. Asko izan ziren bertan irtendako ideiak eta erakutsitako tresnak, eta hemen azpimarratu nahiko nituzke deigarri egin zitzaizkidanak.

Gorka Julio *Teketen*-en hitzaldia, ohi bezala, argigarria izan zen eta euskalduna moduko komunitate txikiek egin beharreko apustuak azaldu zituen. Garbi dauka hark, euskaldunok sare sozial propioa behar dugu eta aplikazioen bitartez sare globalarekin bat egin, kohesio eta barne zein kanpoko komunikazioa ekarriko du horrek. Euskara hizpide, Topaguneako Joxe Rojasek gomendatu zuen, ahal dela, euskal tuitak hiru hizkuntzatan zabaltzea komenigarria dela

baina gakoa beti edukien interesa dela. Hark esan moduan, intereseko ekarpenak eginda, "hizkuntzaren langa" iragaterako lana hartuko dute erabiltzaileek. "Sinpletasuna, umore eta naturaltasuna", hara, beste gako batzuk mezuak botatzera-koan.

Eider Fernandezek txanponaren ifrentzuari begiratu zion eta mezuak zabaltzeko tresna ezinbestekotzak jota ere, "informazioa bilatzeko nora jotzen dute erabiltzaileek?". Bilatzaileek trafiko kalitate hobea ematen dute eta horietan sakontzea ere garrantzitsutzat jo zuen Fernandezek. Harentzat "Interneten egiten den guztia neurtu behar" da "jakiteko egiten gabiltzana ondo dagoen ala ez". Neurketen harira, Codesyntaxeko Josu Azpillagak *Umap.eu* tresna aurkeztu zuen, euskarazko tuitak aztertzeko neurgailua. 2.000tik gora erabiltzailek egiten dute euskaraz Twitterren; %11k euskara hutsean.

Lankidetzaz sareez ere hitz egin zen, garrantzitsuak erabat, eta herritarren eskuetan daudena. "Demokrazia ez da politikarien monopolioa eta horretarako sare sozialek asko balio dute, ekintzaile izateko" esan zuen Mikel Hidoik.

Horiek ideia batzuk; guztiak jarraitzeko #ieb11 gakoa duzue Twitterren.

Euro batean gigabyta, SSD txarteletan datorren urtean

J. B. | ARRASATE

Fabrikatzaileek SSD txartelen aldeko apustua egin dute bate-tik, eta bestetik, fabrikatze-ko modua asko merketu da azkenaldian. Hortaz espero da datorren urtean gaur egun hain garestiak diren SSDen prezioa asko merkatzea. Apple eta Dell etxeek, esate baterako, modelo berrietan dagoeneko badakarte txartel mota horietarako sarbidea. Applek MacBook Air eramangarrian dauka mota honetako memoria eta Dellek Vostro V130 eta ThinkPad X220 modeloetan. Datorren urtean espero da etxe gehiago eta modelo gehiago aterako direla memoria mota horiekin, hain zuzen ere. Gaur egun 2,5 dolar balio du gigabyteak SSD txarteletan baina dagoeneko fabrikazio sistema berri batekin, hasi da ekoizpena gutxitzen. SSDak NAND motako flash memoriak dira eta disko gogorak baino azkarragoak, txikiagoak eta energia kontsumoari dagokionez eraginkorragoak dira.

'Sinde legea'-ri izkin egiteko eskuliburua argitaratu dute sarean

Hacktivistas taldeak argitaratu du eta legeak ezarritako "zentsura" saihesteko moduak azaltzen dituzte, besteak beste, fitxategiak partekatze-ko softwarearen berri emanez. Informazio guztia eta arrazoiak *Hacktivistas.net* eta *Sindigate.net* aurki daitezke. Diotenez "legea ez errespetatzera eta kontrol mekanismoak saihestera behartzen" dituzte "kultura sustatzen eta sortzen" ibilitakoak "gaizkiletzat" joaz. "Makinaria gelditzeko deia" egiten dute amaitzeko.

Applek haurrentzako aplikazioetatik publizitatea kendu du

iAd delako publizitate sistemak galarazi egingo du haurrei zuzenduriko aplikazioetan publizitatea txertatzea. Iragarleak eurak kexatuta erabaki du hori Applek, ez baitute uste haurrentzako inguruetan publizitatea eraginkorra denik. Bestelako sistemak baino kontrol zehatzagoa ezartzen du Applek iAd izeneko sistemaren bitartez. Baldintzak ere berriki aldatu dituzte eta haurrentzako inguruetan zorrotz.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA

Bazen behin...
Ipu-pomamua

Garai honetako telebistaren eskaintza ez da oso anitza, gutxiago haur eta gazteen kasuan. Orain arte, marrazki bizidunek bakarrik lortu dute telebistako parrillan mantentzea. Baina monopolio honetan badago telebista saio bat bere lekua bilatzen ari dena eta marrazki bizidunetatik aldentzen dena: *Ipu-pomamua*.

ETB 1-en ikus daiteke haur eta gazte literatur saioa. Ipu-nak, poesia, eta marrazkiak nahasten ditu. Haur eta gazteak entretenitzea da telebistaren helburu orokorretariko bat, baina, *Ipu-pomamua*-haur eta gazteen hezkuntzan ere eragina izaten saiatzen da.

Haur eta gazteei, normalean, literatura ez zaie gehiegi interesatzen. Beraz, horrelakoetan zaila izaten da publikoak erakartzea. Baina, *Ipu-pomamua*-kek lortu du. Gazteengandik urrutit dauden gaiak gustuko dituzten gaiekin nahasten dira. Poesia bideo-jokoekin, adibidez. Hori izan daiteke horren sekretuetariko bat. Haurrek eta gazteek eurentzat ezezagunak diren arloak proba ditzakete interesatzen zaizkien gaiak erabiliz. *Ipu-pomamua*-k literatura entretenitzeko modu bat ere izan daitekeela frogatu du.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 16



Aretxabaletako alkategaiak

20:45

Aretxabaletako alkategaiak ezagutuko ditugu gertutik eta euren programaren ildo nagusien berri emango dugu.

13:05 Marrazki bizidunak
13:30 Kantari
14:05 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 Klik
15:45 28. Klip
16:15 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:15 Hauteskundeak 2011: Eskoriatza
18:00 Hauteskundeak 2011
18:35 Ikusmira
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Hauteskundeak 2011: Aretxabaleta
21:35 Harmailatik
22:15 Magazinea
23:15 Hauteskundeak 2011: Aretxabaleta
23:55 Harmailatik

MARTITZENA, 17



Oñatiko zerrendaburuak

20:45

Hirigintza, ingurumena, kultura-aisialdi-gazteak, euskara, gizarte ongizatea eta kirola izango dituzte hizpide alkategaiak.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:20 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Hauteskundeak 2011: Aretxabaleta
18:00 Hauteskundeak 2011
18:30 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Hauteskundeak 2011: Oñati
21:50 Magazinea
22:45 Hauteskundeak 2011: Oñati
23:50 Magazinea

EGUAZTENA, 18



Bergarako alkategaiak

20:45

Bergarako alderdi politiko bakoitzeko alkategaien programarako proposamenak entzuteko aukera izango dugu eguaztenean.

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:45 Hamaika.bit
16:15 Kantari
16:45 Berriak
17:15 Hauteskundeak 2011: Oñati
18:20 Hauteskundeak 2011
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Hauteskundeak 2011: Bergara
21:40 Magazinea
22:40 Hauteskundeak 2011: Bergara
23:35 Magazinea

EGUENA, 19



Arrasateko zerrendaburuak

20:45

Debagoieneko herrietako zerrendaburuak ezagutzen eguenean amaituko dugu. Arrasateko alkategaien txanda izango da.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Hamaika.bit
15:45 Ikusmira
16:35 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Hauteskundeak 2011: Bergara
18:10 Hauteskundeak 2011
19:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Hauteskundeak 2011: Antzuola
21:45 Hauteskundeak 2011
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Hauteskundeak 2011: Antzuola
23:40 Magazinea

EGUBAKOITZA, 20



Sukaldaritza kontuak hizpide

14:15

Onein saioarekin plater goxoak nola prestatu ikasiko dugu. Horretarako, errezeta berriekin etorriko zaigu oraingoan ere sukaldaria.

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Leku txiki bat
16:00 Hamaika.bit
16:30 Berriak
17:00 Hauteskundeak 2011: Antzuola
17:55 Hauteskundeak 2011
18:30 Leku txiki bat
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Hauteskundeak 2011: Antzuola
21:45 Hauteskundeak 2011
21:15 Magazinea
22:15 Hauteskundeak 2011

ARRASATE IRRATIA

Ken Zazpi taldearen kontzerturako sarrerak ditugu zozketan

Amaian Ken Zazpi talde bizkaitarraren kontzertua izango dugu hilaren 20an 20:00etan. Bertako taldekideekin solasaldia izango dugu Arrasate Irratiko uhinetan eta sarrerak ere izango ditugu entzuleen artean banatzeko. Deitu 943 25 05 05 edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.

Baserritarren azokaren berritasunak berbagai, Arrasate Irratian

Arrasateko maiatzeko baserritarren azokaren berritasunez jardungo gara Arrasate Irratian aste honetan. Azoka zapatuan izango da, Seber Altube plazan eta horren nondik norakoak jaso ahal izango dituzue *Igo autobusera!* irratsaioan goizeko 10:30ean hasita.

Hauteskundeetako saio berezia, domekan zuzen-zuzenean

Domekan, hauteskundeen emaitzak eta egunak eman dituenak kontatuko ditugu Arrasate Irratian. Izan ere, Goiena telebistan eta Arrasate Irratian, bietan botako dugu aldi berean, hauteskundeen gaineko programa berezia. Zuzeneko konekzioak, herriz herriko datuak, iritziak... denetarik jasoko dugu.

TELE-ALBISTEAK

Debagoieneko alkategaiak ezagutzen jarraituko dugu

Aretxabaleta, Oñati, Bergara eta Arrasateko alkategaiak ezagutuko ditugu asteen

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Aurreko astean hasita, egunero-egunero Debagoieneko herrietako alkategaiak ezagutzen aritu gara. Dagoeneko ezagutu ditugu Leintz Gatzaga, Elgeta, Aramaio, Antzuola eta Eskoriatzako alderdi politiko guztietako alkategaiak.

Gaurtik aurrera, falta diren lau herrietako alkategaiak ezagutuko ditugu gertu-gertutik: Aretxabaleta, Oñati, Bergara eta Arrasatekoak, hain zuzen.

Eta hauteskundeak borobiltzeko, hauteskunde egun bertan,

hilaren 22an, zuzen-zuzenean jarraitu ahal izango dugu bailarako herrietan gertatzen ari dena Goiena Telebistaren bitartez.

Herrietako alkategaiak

Gaur, astelehena, Aretxabaletako alkategaien programak entzungo ditugu, martitzenean Oñatikoak, eguaztenean Bergarakoak, eta azkenik, eguenean Arrasatekoak entzungo ditugu.

Emisio ordutegia hauxe izango da: 20:45ean eta 22:45ean. Horrez gain, hurrengo eguneko 17:00etan errepikatu egingo dugu saioa.



Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuko dute domekako saioa. | OIHANE ISASI

Aretxabaletako alkategaiak ezagutuko ditugu gaur, astelehena

Domekan, zuzenean

Hauteskundeetako emaitzak ezagutzeko aukera ere izango duzue zuen toki telebistan 19:45ean; datuak herriz herri, zuzeneko konekzioak, iritziak... denetarik jasoko baitugu zuzenean punta-

puntako teknologiarekin egingo dugun saioan. Goienako langileak buru belarri lanean ibiliko gara hauteskundeetan zuei informazioa ahalik eta azkarren helarazteko bai telebistaz, Internetez, paperean eta irrati bidez.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Aimar Hernandez Otxoa-Aizpurua
Maiatzaren 20an, 2 urtetxo. Zorionak, pototi! Muxu handi-handi bat familiako guztien partetik. Mui!



ARRASATE
Unax Gartzia Dorrnsoro
Maiatzaren 20an, 2 urte. Zorionak, melocotón! Muxu potolo bat zure kolega Shane eta izeba Susanaren partetik.



OÑATI
Unax Larrañaga Lasaga
Maiatzaren 19an, urtebete. Zorionak, pottoko, zure lehen urtebetetzean etxeko danan partetik. Patxo handi bat!



OÑATI
Naiara Apaolaza
Maiatzaren 19an, 7 urte. Dagoeneko 7 urtetxo. Zorionak zure egunean, Naiara!



ARRASATE
Beñat Alonso Lopez
Maiatzaren 19an, 8 urte. Zorionak, maittia! Etxeko gure mutilak 8 kandelatxoei putz egingo die fuerte-fuerte. Ederto pasatu, laztana, familia bazkarian eta ikastolako merendolan baita ere. Patxo pila-pila etxekoen, aitatxo, amatxo eta Marenen partetik. Muxuak, txapeldun!



OÑATI
Elena Altube Zurutuza
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, prexioxa! Zapatuko pintxua benetan goxua euen! Ondo pasatu eta urte askotarako. Goxatu!



BERGARA
Anartz Asula Errexil
Maiatzaren 19an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat aita eta amatxoren partetik!



ARRASATE
Uxue Arexolaleiba Erretolatza
Maiatzaren 18an, 5 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure egune! Patxo bat etxekoen partetik.



ARRASATE
Unai Lopez Ormaetxea
Maiatzaren 18an, 39 urte. Zorionak, paintbolero! Ederto pasatu eguna, potxolo; hogeita hamar danak egiten dituzu, gogoratu! Larunbateko bazkarian denok ospatuko dugu Tauroen eguna. Muxu potoloak etxekoen eta bereziki zure loba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, guapisimo.



OÑATI
Mikel Arregi Kortabarria
Maiatzaren 18an, 7 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Oso ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetzean. Patxo handi-handi bat.



ARAMAIO
Rafa Alonso Esquina
Maiatzaren 17an, 44 urte. Zorionak, tio! Oso ongi pasatu eguna. Nolako zerbaki politxe; kapikua! Muxu zaparrada potolo-potoloak, etxekoen eta bereziki zure loba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, mutikote.



ESKORATZA
Alazne Urkia Agirregabiria
Maiatzaren 16an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Patxo handi-handi bat eta mila-mila zorion etxeko guztien partetik; bereziki, Manex, Maddi, Amaia eta Julenen partetik.



ARETXABALETA
Arrate Arkauz
Maiatzaren 15ean, 40 urte. Zorionak, Arrate! 40 urte aurten! Ederto ospatuko dugu zure eguna Otalazelain txorixo pikau-pikau eta gaileta surtiduekin. Muxu handi bat kuadrilako guztien partetik. Aupa Valentine's Party! Aupa K. Otxagabia!



ARETXABALETA
Oinatz Iturbe Murgiondo
Maiatzaren 14an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Zelako ondo ospatuko gauen zure eguna Zigarrolako jaixetan! Muxu handi-handi bat familia danan partetik.



OÑATI
Lur Biain Aranburuzabala
Maiatzaren 14an, 3 urte. Azkenian zuk gura zeuen moduan, 3 urte dittuzu! Orain arte moduan jarraitu, zorionak!



ARRASATE
Uhaiz Apraiz Arabiourrutia
Maiatzaren 14an, 3 urte. Aitatxo, amatxo eta Xubanen partetik, zorionak, potxolo!



ARRASATE
Aitor Auzmendi Berezibar
Maiatzaren 14an, urtebete. Zorionak, Aitor! Patxo handi bat etxekoen, eta bereziki, osaba Ibonen partetik.



OÑATI
Maider Madariaga
Maiatzaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, potxola! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Tartiak handitxuaua izan biharko dau 18 kandela kabitteko! Jejeje. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Gentzane Lopez Ormaetxea
Maiatzaren 13an, 40 urte. Zorionak, potxola! Hamarkada estrenatzen duzu, beraz klaseko gaztean izango zara... Lekapatatazko muxuak eta gogoratu sardexka badaezpada ezkututzen... Zu bai bolidoa! Muxu handi bat, bereziki Uxue eta Aurkenen partetik.



BERGARA
Noa Chimeno Valencia
Maiatzaren 12an, 2 urte. Zorionak, Noa. Muxu asko etxekoen partetik, printzesa.




BERGARA
June Arteaga
Maiatzaren 12an, 7 urte. Zure zazpigarren urtean zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Zaraitzu Bergaretxe Larrinaga
Maiatzaren 11n, 7 urte. Urte askotarako, poxpolin! Zazpi urte dagoeneko. Handi eitten zoiez, e? Patxo handi bana Amaiur, amatxo eta aittaxoren partetik.



ARRASATE
Egoitz Bergaretxe Gaztañaga
Maiatzaren 8an, 5 urte. Zorionak eta patxo potoloak Egoitzi eta baita amatxo Maitei ere. Etxeko guztien partetik. Aupa Reala!



OÑATI
Peru Guenetxea Irizar
Maiatzaren 8an, urtebete. Zorionak zure lehen urtebetetzean bi familien partetik eta batez ere Iratiren partetik muxu handi bat.



BERGARA
Gorka Ibarra Guridi
Maiatzaren 6an, 7 urte. Zorionak, txapeldun, eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Hiru muxu potoloak Jone, aitatxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
Elena Pardo
Maiatzaren 17an, urtebetetzea. Zorionak guapisimo! Ez galdu irriparra, jarraitu orain arte bezain guapa eta muxu pila bat zuretzat. Edurnen partez.

Zorionak!

Zoriontzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitzez goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zorionagurak@goiena.com helbidera, adieraziz izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

**GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.**



Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ESKER ONA

**Engracia
Alava Aguirre**




Gasteizen hil zen 2011ko apirilaren 29an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko meza datorren domekan, maiatzaren 22an,
12:30ean, Arrasateko San Andres auzoko elizan ospatuko da.

Arrasaten, 2011ko maiatzaren 16an.

ESKER ONA



**Feli
Larreategi Arenaza**



Gasteizen hil zen 2011ko maiatzaren 8an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta
samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko bere senar,
seme-alaba eta biloben izenean.

Bergaran, 2011ko maiatzaren 16an.

JAIOTAKOAK



Aimar Rodriguez Sanzberro

Arrasate 3,150 Kilo. Maiatzaren 12a.
Gurasoak: Nerea eta Fertxu. Argazkian,
Aimar sehaskan lo.



Ainhize Etxebarria Gomez

Arrasate 3,280 Kilo. Maiatzaren 8a.
Gurasoak: Natalia eta Aitor. Argazkian,
umea gurasoekin.




Andoni Azurmendi Lizaranzu

Idiazabal 3,680 Kilo. Maiatzaren 7a.
Gurasoak: Vanesa eta Asier. Argazkian,
umea gurasoekin.



Haizea Balzategi Telleria

Arrasate 3,5 Kilo. Maiatzaren 8a. Gura-
soak: Naiara eta Ander. Argazkian,
umea sehaskan.



Manex Iraeta Jaso

Oñati 4,050Kilo. Maiatzaren 9a. Gura-
soak: Gotzone eta Mikel. Argazkian,
Manex aitarekin.



Liher Sanchez Jimenez

Bergara 3,100Kilo. Maiatzaren 9a.
Gurasoak: Mirari eta Alberto. Argazkian,
umea amarekin.



Aner Lopez Lasuen

Otxandio 3,560Kilo. Maiatzaren 8a.
Gurasoak: Ainhoa eta Jon. Argazkian,
Aner amama Carmenekin.



Elaia Jauregi Ibabe

Aramaio 3,700Kilo. Maiatzaren 10a.
Gurasoak: Alazne eta Joseba. Argazkian,
Elaia izeko Mirenekin.



Edith Jimenez Cabello

Aretxabaleta 2,940Kilo. Maiatzaren
10a. Gurasoak: Ainhoa eta Fernando.
Argazkian, umea amarekin.



Anje Lagunilla Urzelai

Aretxabaleta 3,360Kilo. Maiatzaren
10a. Gurasoak: Olaia eta Mikel. Argaz-
kian, Anje lotan.


BABESLEA



**IKUSI
MAKUSI**




Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32




Martin Garcia Ortega

Barakaldo 3,780Kilo. Maiatzaren 12a.
Gurasoak: Barbara eta Jose Manuel.
Argazkian, umea amarekin.



Laida Eraña Larrea

Aretxabaleta 3,820Kilo. Maiatzaren 11.
Gurasoak: Izaro eta Xabi. Argazkian,
umea amarekin.



Irati Gorosari Zuazubiskar

Eskoriatza 2,880Kilo. Maiatzaren 12a.
Gurasoak: Maider eta Haritz. Argazkian,
Irati gurasoekin.



Ekam Singh Badwal

Eskoriatza 3,100Kilo. Maiatzaren 8a.
Gurasoak: Kamawet Kaur eta Rashpal
Singh. Argazkian, umea amarekin.

Itxaronaldian ez aspertzeko

Arrasaten badaude autobusari itxaron bitartean musika eskaintzen duten markesinak. Ondoko hori pauso bat aurrerago doa.
www.sarda.es



"Ezin dut jasan momentu honetan daukadan proletario aurpegia"

CARMEN LOMANA | FAMATUA

Proletario aurpegia ez dakigu, baina azal gogorra, behintzat, badu Espainiako telebistetan ia egunero ikus dezakgun *celebrity* horrek. Zalantza da proletario aurpegi hori zein gremiotakoa den, haren lanbidea zein den ere ez dakigu-eta.
MTV telebista-katea



Max. 17°

Min. 10°

Iparraldeko hodeiak urriagoak izango dira, baina goizean ostarteei gailenduko zaizkie.
euskalmet.net

goiena

2011-05-16

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

Txomin Artola Hondarribiarra Anje Duhalderekin dabil aspaldion agertokietan. Euskal kantagintzaren klasikoetako bat, gure mugetatik kanpo ere entzun ahal izan da haren musika. | TXOMIN MADINA

"Ezagutzen ez zaituzten tokian jotzea gozada hutsa da"

1. Entsegu batetikatera berri harripatu zaitugu. Zure ibilbidearekin, entsegu beharra oraindik ere?

Semeak lagunduta Anje Duhalderekin kantaldi batzuk egiten nabil, eta, emanaldien bezperan, dena finkatzeko erreposoa egiten dugu. Musikan denbora luzea eraman arren, serio hartzeko ditugu gauzak.

2. Bob Dylanek zenbateko errua du du musikari izateko?

Maixua da, jainua. Lehen diskoarekin ezagutu nuen; Hondarribian, muga ondoan bizita, Frantziako irratiak hartzen genituen eta musika beritasunak lehenago hartzen genituen.

3. Kantuak, haiek datoz ala bila joan behar da?

Biak. Picassok zioen inspirazioa etorri gero izan zedila eskuetan pintzel bat izanda; gure kasuan, instrumentu bat. Atzetik joan behar duzu, eta etorri egiten da. Ez da askorik mitifikatu behar.

4. Nolakoaren zure kantu batek azaltzekotan, zein da egokiena?

Ez da erraza! *Ibiltariarena*, esango nuke; Joseba Gartzariarena da letra eta nahiko ondo azaltzen du.

5. European hainbat jaialditan jo duzu. Musikak ez du mugarik?

Ez du inolako mugarik. Musika-riok erabiltzen dugu hizkuntza erabat unibertsala. Hizkuntza ezberdina izan arren, musika tresna batekin gai zara elkar ulertzeko. Mugak goitik datoz.



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Egoera erabat absurdoa litzateke"

"Hori erabat ezinezkoa da, ez naiz sekula lehendakari izango. Egoera hori erabat absurdoa izango litzateke; ondorioz, baita erantzunak ere: Beatlesak nahi eta nahi ez orduoro entzun beharra egotea edo dirua egiteko makina asmatu eta dirua barra-barra banatzea. Horrelako gauzak esango nituzke, jakinda egoera erabat absurdoa dela".

6. Jaialdi bat aukeratzekotan?

Kalean jotzen egon naiz oso gustura. Gaztetan batez ere Ingalaterran ibili nintzen: kalean zaude, inork ezagutzen ez zaituen tokian, eta hori gozada hutsa da; batzuk gertzen dira, besteak ez. Jaialdi handiak beste muntaia bat dira.

7. Semearekin agertokian, izan duzu errietan hasteko tentaziorik?

Ez, aita-seme arteko harreman oso ona dugu. Ez dugu frikziorik; ez agertokian, ez handik kanpo.

8. Kontzertuetan, zer ikusteak egiten du ilusio handien: betiko jarraitzaileak ala jende gazteak?

Entzule gazteak, jende berria etortzea atsegina da; baina baita betikoendako kantatzea ere, zure kantuak ezagutzen dituztenendako.

9. Musika dagoen moduan egonda, merezi du diskoa grabatzea?

Diskoak bi alde ditu: gauzak erakusteko modua da; baita salgai dagoen zerbait ere. Lehenengorako oso ondo dago; baina produkzioa garestia da eta ez da ezer saltzen. Zentzu horretan ez du merezi; gainera, Internetekin sarean jar dezakezu zure lana ezagutarazteko.

10. Iparraldea eta Hegoaldea, hain ezberdinak dira?

Izugarri. Iparraldea ondo ezagutzen dut; ama, adibidez, hangoa da. Hemen jendeak kantari eta telebista espainolak ezagutzen ditu; han, frantsesak. Horrek markatzen du ezberdintasuna. Euskara eta euskal kultura dira bitartekari.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



Bizitzaren helburuak

Aurrejubilatuta nintzen eguneko biharamunean norbaitek galdetu zidan nire bizitzaren helburuak bete ote diren. Orain arteko helburu horiek zeintzuk izan diren jakin izan banu bezala! Konbentziturata nago gizon-emakumeon bizitza-ibilbidea hautaketa jarraikiaren soka luzea dela. Hamaika talaia desberdinetako erpinetara igotzen gara etengabe eta bakoitzetik ikus daitezkeen zeru mugak zeharo bestelakoak gerta daitezke aurrekoekin alderatuta.

Niri inork esan izan balit 1974an, hogeita hamazazpi urte geroago irakurleko batentzat idazten -eta gainera euskaraz!- jarraituko nuela, zorrotzat hartuko nukeen. Belaontzi batean ozeanoak zeharkatzea izan nuen gazte denborako ametsik erakargarrienetako bat... harik eta Uribarri Ganboako urtegian neukan belaontzi txikia irauli arte. Asmo hura bete ez izateak ez nau sekula goibeldu, batez ere nabigatzaile bakartiaren porrota izpiritua asebate didaten beste xede batzuekin gaintu nuelako?

Gizakiok beti gaude prest bizitza-mendira igo eta hodeiertz berriak igotzeko. Horrek ematen digu, hain zuzen, bizitzarako adorea.

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

